

•eus Jakin 253

herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2022

Euskal kultura 2022

Jalgi hadi dantzara! Jalgi hadi plazara!

ARITZ IBAÑEZ

‘Euskal bolloen’ intersekzioetan barrena

AMAIA ALVAREZ URIA

ITZIAR UGARTE
MAIALEN AKIZU
ANDONI IMAZ
ANE ZABALA
AMETS ARANGUREN
IRATI ELORRIETA
MIKEL ONANDIA
LIBE MIMENZA

TXAKUR GORRIA
PATXI GALLEGO
DANI FANO
AXPI
NEREA UNANUA
JOSEVISKY
ADUR
MADDI ZUMALABE

LIBURUAK

Euskal liburugintza 2021

XABIER EIZAGIRRE

Jakin^{•eus}253

herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2022



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

ERREDAKZIOA

Haritz Azurmendi • Oihana Iguaran

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Euskal kultura 2022

11 Jalgi hadi dantzara! Jalgi hadi plazara!

Aritz Ibañez Lusarreta

Euskal dantzak –euskaldunon gorputz-hizkuntza oso eta autonomo gisa, eta esperientzia kolektibo gozagarria denez gero– euskalgintza eta euskal kulturgintzaren sistema saretzeko bidean egiten duen ekarpen garrantzitsua aztertzen da.

29 ‘Euskal bolloen’ intersekzioetan barrena

Amaia Alvarez Uria

Euskara eta lesbianismoa nola gurutzatzen diren ezagutzeko saiakera bat da; intersekzio horren konplexutasuna eta mugimenduak aditzera emango dizkigute Hegoko talde lesbofeministetako kideek eta Iparreko Amaia Ezpeldoi pertsonaia literarioak.

47 Itziar Ugarte Irizar • Txakur Gorria • Patxi Gallego Maialen Akizu Bidegain • Dani Fano • Andoni Imaz Pozueta • Axi • Ane Zabala • Nerea Unanua Otxoantexana • Amets Aranguren Arrieta

Irati Elorrieta Agirre • Josevisky • Mikel Onandia
Garate • Adur • Maddi Zumalabe Irastorza
Libe Mimenza Castillo

Urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzea idazten dute zortzi egilek. Itziar Ugarte Irizarrek euskal kulturegintzari eskatzen zaion eta behar duen jauziari buruz egiten du gogoeta, besteak beste; Maialen Akizu Bidegain, Andoni Imaz Pozueta, Ane Zabala, Amets Aranguren Arrieta, Irati Elorrieta Agirre, Mikel Onandia Garate, Libe Mimenza Castillo bertsolaritza, zinema, arte eszeniko, musika, literatura, arte eta hedabideen eremuak jorratzen dituzte, hurrenez hurren. Txakur Gorria, Patxi Gallego, Dani Fano, Axi, Nerea Unanua Otxoantexana, Josevisky, Adur eta Maddi Zumalabe Irastorza irudigileen begiradak biribiltzen du urtearen balantzea.

LIBURUAK

113 Euskal liburugintza 2021 Xabier Eizaguirre Gesalaga

2021ean euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkeztzen da: ohar metodologikoak; liburu produkzioaren zifren iturriak; argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen izaera eta aniztasuna, argitaletxe emankorrenen aipamena eta kanpoko eta bertako argitaletxeen ekoizpenaren konparaketa; argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluen zifrak eta nobedadeak eta berrargitalpenak; azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa.

KONTRAZALA Dom Campistron

BASQUE CULTURE 2022

Bring the dance on to the square!

The dancer Aritz Ibañez Lusarreta analyses the major contribution made by Basque dance –both as a complete, autonomous body language for Basques and as an agreeable collective experience– in training and strengthening the system in favour of the Basque language and Basque cultural activity. **Aritz Ibañez Lusarreta**

Through intersections of 'Basque bollos (lesbians)'

The writer, teacher and literary critic Amaia Alvarez Uria analyses the complexity and movements at the point where the Basque language and lesbianism intersect, citing testimonies given by members of lesbian feminist groups in the South Basque Country and the literary personality from the North Basque Country, Amaia Ezpeldoi. **Amaia Alvarez Uria**

Basque culture 2022

Nine Eight authors, professionals and analysts from the world of Basque culture provide us with a critique of the cultural events that have taken place during 2022. Itziar Ugarte Irizar reflects, among other issues, on the leap forward asked of and needed by Basque culture, while Maialen Akizu Bidegain, Andoni Imaz Pozueta, Ane Zabala, Amets Aranguren Arrieta, Irati Elorrieta Agirre, Mikel Onandia Garate and Libe Mimenza Castillo offer an appraisal of the activity that has been pursued in the areas of verse improvisation, film, performance arts, music, literature, art and the media, respectively. The satirical and artistic view provided by the cartoonists Txakur Gorria, Patxi Gallego, Dani Fano, Axpi, Nerea Unanua Otxoantexana, Josevisky, Adur and Maddi Zumalabe Irastorza illustrates this appraisal of Basque culture. **Various authors**

Basque bibliography 2021

Xabier Eizagirre Gesalaga, a graduate in Philosophy and editor-in-chief of JAKIN, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2021. In this year, 2.243 books were published in the Basque language, 321 less than in 2020. Most of these publications are children's and young people's literature (34%), followed by school books (23,7%), books on human and social sciences (15,5%) and literature for adults (14,9%). The author continues with the work involving the classification and study of Basque bibliography that Joan Mari Torrealdei first embarked on in 1976. **Xabier Eizagirre Gesalaga**

Urtea joan da etorri bezala. Azkar, bere luzean, eta tarteka motel, bere sakonean. Pandemia oste osteko urtea izanik, eztanda urte gisa batailatu izan da, kaleetan, jaietan eta kultur ekimenetan biltzekoa eta ospatzekoa. Hortxe Durangoko Azoka arrakastatsua, eta hortxe Bertsolari Txapelketa Nagusi loriatua. Bi eztanda goren, adibide gisa. Baina denak du bere ifrentzua, eta, eztrandaren urtea izan den legez, jauzia ematearen premia larriaren eta ezinaren urtea ere izan da, jausiarena, alegia. Egia da jauziak han-hemen ari direla eragiten, baina ez behar adinako sendotasunarekin. Batzuetan badirudi gauzak aldatzen direla, baina ez iruditutako adina. Edo ez bederen nahi norabidean, nahi azkartasunez. Kulturaren emariak aurrera jarraitzen du, bai, sormen berri eta berrietuekin, garaiari eta lekuari errotuta, sortzen eta sortzen gure bizi aukerak. Baina lurra bera da, agian, aldatzen ez dena, esan nahi baita, baldintzak, materialak eta sinbolikoak; alegia, baliabideak eta aitortzak, hau da, sistema eta ahotza. Estutasun ekonomikoen eraginak eta kulturgintza eredu beregain baten beharrak hor diraute. Eta, hala ere, nagusiki jauziak emanez dator kultura, geure buruak eta mundua ulertzen eta hobetzen laguntzen digun zerako zera hori.

Aritz Ibañezek, dantza gai hartuta, jauziaren nolakotasuna eta norakotasuna argitzen duten hitz/esaldi giltzarri hauek harilkatu ditu: «herrigintzaren ardura soziala», «herrigintzarako artefaktu politikoa», «euskal dantza gizartearekin batera garatuz, dantzaren alorrean pil-pilean diren generoari buruzko eztabaiden aurrean». Translazioz beste kultur eremuetara ere eramán daitezkeen ideiak. Amaia Alvarez Uriaren lesbianismoaren eta euskalduntasunaren arteko loturen ekarpena –kulturan barna– ere gizartearekin batera aldatu eta garatu beharraren aldarrikapena da. «Hizkuntzen eta sexualitateen ekologia 'denon kontua da', feminismoa den bezala», hori idatzi du eta hori da, besteak beste, herrigintzarako artefaktu politiko izatea.

Maialen Akizuk dio bertsolaritza feminismotik ari dela egiten eta bertsolaritzatik ere zedarritzen dela mugimendu feminista, eta antzeko uztarketa dagoela bertsolaritzaren eta gazte mugimendu

batzuen artean ere. Garaiari eta egoerari erantzun nahi eta behar bat, finean. Eta hori da bizirik egotearen seinale. Seinale bertsuak EHAZetik ere, Antzerkizale Feministen Topaketak antolatu baititu aurten lehenengoz; eta, Ane Zabalak idatzi duenez, «antidinamika» izan da bertan dinamika –hori ere ez da ideia giltzarri txarra, betikoa errepikatzea antzua denean, bereziki–.

Ametz Arangurenek baieztatzen du musikaren eremutik: «Kulturgintzan aritzea jardun prekarioaren eskutik dabil oraindik ere gure jendartean, eta epe motzera aldatzeko itxurarik ez du oraingoz», eta Mikel Onaindiak birbaieztatzen artearenetik; eta pandemiaren geroztik sortzaileen lan baldintzez kontzientzia hartzeko deiek indar hartu dutela iritzi dio Itziar Ugartek. Akizuk antzeratsu, ibaiaren beste ertzera joanda: «bertsolaritzak lortzen du jendea emozionatzea, jendea batzea, jendea harrotzea. Ordea, herria ez da jendea. Zer egin sarreraren prezioarekin? Denok al dugu kulturarako sarbidea?». Ibañezek dioen «kulturaren helburua ez da ekonomikoa, komunitarioa baizik» hori horri lotu dakiok. Kontua, agian, bi helburuak ez direla bata bestearen baztertzaile zertan izan, prekaritatea gaindituta eta sarbidea demokratizatuta egin ahal izango dela komunitatea aiseago.

Eta euskara arrotutako pantailez Andoni Imazek, eta adimen artifizialaren eta digitalitatearen eztandaz Libe Mimenzak, barne eta kanpo gerrak ulertzeko literatur bideez Irati Elorrietak. Guztiek aurtengo kultur kronikari hitzak jarri dizkiote, eta irudiak, berriz, Txakur Gorria, Patxi Gallego, Dani Fano, Axi, Nerea Unanua, Josevisky, Adur, Maddi Zumalabe eta Dom Campistronek. Guztiak, herrigintzaren artefaktu politikoak; bestela esan, herrigintza-zentzua euskararen barruan baino ezin dela hartu, Joxe Azurmendik dioen moduan. Zeren jauzia herrigintza justua, parekidea eta askotarikoa eraikitzea da, ezta?

EUSKAL KULTURA 2022

11 Jalgi hadi dantzara!
Jalgi hadi plazara!
Aritz Ibañez Lusarreta

29 'Euskal bolloen' intersekzioetan
barrena
Amaia Alvarez Uria

47 Itziar Ugarte Irizar
Txakur Gorria
Patxi Gallego
Maialen Akizu Bidegain
Dani Fano
Andoni Imaz Pozueta
Axi
Ane Zabala
Nerea Unanua Otxoantezana
Amets Aranguren Arrieta
Irati Elorrieta Agirre
Josevisky
Mikel Onandia Garate
Adur
Maddi Zumalabe Irastorza
Libe Mimenza Castillo

Jalgi hadi dantzara! **Jalgi hadi plazara!**

Euskal dantzak gure kulturaren definizioan sartzeko zailtasunak izan ditu azken hamarkadetan, eta, ondorioz, prestigio, balorazio eta sustapen politiketatik kanpo gelditu da. Dantzariok bi arrazoi aldarrikatzen ditugu euskal dantzak aintzat hartuak izan daitezen euskal kulturaren. Lehenbizikoa: euskal dantza gure gorputz-hizkuntza da, euskara gure berbazko hizkuntza den gisa berean. Bigarrena: euskal dantzak ezinbesteko ekarpena egiten du euskaingintza eta euskal kulturagintzaren sistema artikulatzeko eta elikatzeke zereginean.

Kultur sistema, diziplina bereizietan irudikatu beharrean, elkar eragiten duten eta elkarrekin aritzen diren alorretako jardun moduan irudikatzen badugu, aiseago kuestionatuko dugu diziplinen artean nagusitu den ordena hierarkikoa. Hain zuzen ere, diziplinarteko kulturagintza esperientziei esker, argiago zaigu kulturak duen gaitasuna gizarte artikulaziorako eta herrigintzarako.

Zeregin horretan, Euskal Herrian bada berebiziko lana egin izan duenik. Izan ere, euskal dantzarioi bidea argitu izan digu Argia dantzari taldeak azken mende erdian. Alabaina, euskal dantzatik kanpo ez dira merezi bezain ezagunak Juan Antonio Urbeltzek eta Marian Arregik gidatutako taldearen ekarpenak. Argia taldeak frogarazi eta ikusarazi digu euskal dantza

Jalgi hadi dantzara! Jalgi hadi plazara!

gorputz-hizkuntza osoa eta autonomoa dela, eta horrekin mundua kontatzeko eta mundua bizitzeko gai garela. Erakutsi digu euskal dantzan jarduten ardura sozialetik abiatuta, herri honetikiko arduratik abiatuta. Harekin ikasi dugu dantza ulertzen herrigintzarako tresna gisa, taldekeriak gaindituz eta proiektua partekatzen duten guztiak sare berean integratuz. Euskal dantzaren sarea artikulatuta, euskal kulturgintzarena elikatuz.

Euskal dantza, gorputzen euskara?

Idazle eta bertsolarien artean tarteka gertatzen diren eztabaida horietako bat atera zait parera duela zenbait hilabete Twitterren. Hor ibili dira sokatiran ea Bernat Etxepare zer ote zen gehiago, poeta ala bertsolaria. Eta pentsatu dut, niri galdetzeraz, Etxepare beste deusen gainetik dantzaria izan zela erantzunen nukeela.

Izan ere, *Linguae Vasconum Primitiae* bere liburuko bi testurik ezagunenei dantza airea darie izenburutik. Uste da *Sautrela* jauzika egiten zen gure sokadantzaren aspaldiko ahaidea izan zitekeela. Eta *Kontrapas* dantza molde ezberdinei deitu izan zaie. Adibidez, gure aurreskuaren agurrari edo katalanen sardanaren aurrekari den dantza generoari. Kontrapasa, gainera, ohiko urratsa dugu gure branle eta dantza-jauzietan.

Sarasketako erretoreak, bere kobletan, euskararen hedapena dantzan ospa dezagun desiratu zigun. Ez da ameslaria izan beharrik ere, beraz, sortu zuen dantza-khorda horren buru irudikatzeko Bernat Etxepare bera, garaiko apaiz festazaleek ohiko zuten gisan, bestalde.

Etxepareren testuak musikatu eta ezagutarazi dituzten artistek ere zerbait susmatuko zuten beren doinu hautaketa egin zutenean. Izan ere, Xabier Letek, kontrapasarena ez, baina baltsaren egitez jantzi zuen Mosen Bernaten testurik ezagunena. Alta, berriki, Euskal Barrokensemleren *Euskal Antiqva* izeneko lan zoragarrian, Mixel Etxekoparrek Etxepareren Kontrapasari eman dio behar zuen doinua, branle dantzaren moldean interpretatuz.

Etzekoparrek euskaraz badaki, noski, baina gure gorputz-adierazpenaren bidezko hizkuntza –euskal dantza– ere menderatzen duenez, modu egokian interpretatu ahal izan du Ettxeparek, duela 500 urte, azalpen handirik gabe iradokitakoa. Kodeak partekatuz gero, dantzaren bitartez komunika gaitezke baita bost menderen buruan ere!

Ez partekatzekotan, berriz, ez dugu elkar ulertuko. Urri erditsuan gertatu da: Espainiako eskuin muturreko alderdi batek euskal dantzen erakustaldi bat egin nahi izan du bere ekitaldi batean. Euskal jantzitza har ditzakegun arropez beztiturik, dantzari talde bat aritu da dantzan Jesus Guridiren *El caserío* zarzuelaren preludearen doinura. Irudiak azkar hedatu dira sarean eta harridura sortu dute. Euskal dantzetako urrats batzuk baliatu dituzte, baina beste zenbait pauso, egitura koreografiko eta, batez ere, dantzaera bera, arrotzak egin zaizkigu hainbati.

Balleteko eta beste dantza molde batzuetako elementuak baliatu dituzte eta, beraz, berehala ondorioztatu dugu ez direla euskal dantzan ari.

Horrelako egoerak ezagututa gaude lehenago ere, zineman, adibidez. *Ocho apellidos vascos* film espainiarrean edo *Mission Pays Basque* frantziarrean konparazione. Bietan ere, protagonistetako bat euskaraz hizketan

hasi da, omen, eszenatako batean. Hitz batzuk harrapatu dizkiogu. Baina belarria zorroztu eta berehala ohartu gara mingaina ez duela egiazki euskaraz dantzarazten. Ez dago taxututako esaldirik, ez ahoskera egokirik, aipatutako hitz solte eta usatu horietatik harago. Ezin esan, beraz, euskaraz ari direnik.

Eskuin muturreko alderdiaren mitineko dantzaldian zein bi filmotan irentsarazi diguten karikatura hori izan da azken hamarkadako gure kultur produkzio ez gutxiren sorburu. Oraindik ere, tarteka, agertzen zaigu ildo horretan doan

Argia dantza taldeak
frogarazi eta ikusarazi
digu gorputz-hizkuntza
osoa eta autonomia
dela, eta horrekin
mundua kontatzeko
eta mundua bizitzeko
gai garela

Jalgi hadi dantzara! Jalgi hadi plazara!

sorkari herrariren bat. Horrekin batera, beste moda berri bat ere hedatu da gurean; bai euskarak bai eta euskal dantzak ere berezko dituzten baliabideak alboratu eta arrotzekin ordezkatzan dituen. Zesta puntako neguko txapelketari *Jai Alai Winter Series* izena eman diote Gernikan, ingelesa hobetsiz baina euskarazko ukitu exotikoarekin. Bestetik, gero eta dantza talde gehiagok hobesten dute dantza garaikidea delakoa, euskal dantza pittin batekin gatzpipertua.

Euskal dantzak, euskarak bezala, baditu berezko gramatika, lexiko, semantika, doinu, morfologia eta gainontzeko hizkuntza osagaiak. Berezko koreografia-arau, urrats multzo, sinbolismo, dantzaera eta estetikak. Ondare hori ez da zurruna eta, beste edozein hizkuntza bezala, ekarpen eta maileguak hartzeko aski malgua da. Egundaino heldu bada, bere berritzeko eta birsortzeko gaitasunari esker izan da. Errepikatutako errepertorio jakin batzuetatik harago, euskal dantza hizkuntza-sistema integrala da eta, Lizardik euskararentzat nahi zuen bezala, noranahikoa.

Argiaren itzala

1991 urtean Argia dantzari taldearen *Alakiketan* ikuskizuna ikusi dut Iruñeko Labrit pilotalekuan. Ikuskaria ilunpean hasi da. Idiarenaren doinuarekin, ke artean, sudurretik sua darion herensuge erraldoia eszenaratu da. Argiaren herensugeak isurtzen duen su horrek argitu du harrezkero gure dantzari ibilbidea. Azken sei hamarkadetan euskal dantzaren egoera irauli du Juan Antonio Urbeltzek eta Marian Arregik gidatutako taldeak. Espainiako gerrak utzitako desertu kulturala gainditu nahi eta, 1960ko hamarkadatik, herriz herri ondare koreografikoa bildu, aztertu eta, ia momentu beretik, sortu eta birsortzeari ekin dio Argiak, ezagutza, sentsibiltate artistikoa eta ardura soziala ardatz, euskal dantzari hizkuntza osoaren eta noranahikoaren izaera aitortuz.

Fernando Larrukert eta Nestor Basterretxearen *Ama Lur* filmaren grabazioan ezagutu dute elkar Juan Antonio Urbeltzek

eta Jorge Oteizak, 1965ean. Ekosistema kultural guztia aintzat hartuta, Oteizak Euskal Arte Eskola Garaikidea sortu eta Urbeltz eta Arregi akuilatu ditu, Hegoaldean 1936ko gerrak utzitako basamortuan kimu dantzatuen bila abia daitezen. Hamarkada luzea eman dute Arregik eta Urbeltzek Euskal Herriko hamaika herri kurrituz, bertako dantza-ohiturak ezagutuz, ikasiz eta ahanzturatik ateraz eta gure gramatika koreografikoen nondik norakoak deszifratzen saiatuz. «Gaur eguneko euskaldun bezala dantza egiteko modua aurkitu nahi dugu, baina horretarako lehengo gure dantza zaharrak aztertu eta ikertu nahi ditugu», azaldu dio Urbeltzek Rikardo Arregiri 1967ko elkarrizketa batean.

Ez da ariketa kontserbadore hutsa izan. Ondare hura guztia bildu ahala, sorkuntzari eman zaizkio, euskal dantzaren alorrean burutik bururako iraultza gauzatuz. Hasieran, xumeki, bildutako egitura koreografikoek faltan dituzten hutsuneak osatuz. Ondotik, gure errepertorio tradizionalak eskas dituen dantza-ereduak josiz –egile jakinak dituenik ere ahaztu dugun Jaurrietako Axuri beltza, adibidez–. Geroago, ikuskizun xoragarriak apailatuz, urtetan pilatutako esperientziaren eta jakitatearen eta Arregi-Urbeltz bikoaren berezko sentiberatasun artistikoaren ondorio. Ikuskizunon atmosferaren lilurak hainbat belaunalditako dantzariak ahaldundu ditu, beren gorputz-hizkuntza integrala dela sinetsaraziz. Bestetik, milaka ikusle xarmatu ditu, euskal dantza, bere baliabideetan sinetsiz baliatzen bada, komunikatzeko eta hunkitzeko gaitasuna duen bitarteko eraginkorra dela agertuz.

Lan oparo horren eskarmentua ez da eszenara mugatu. Azken hamarkadetan ezpata-dantza erritual aberatsak ugaltu dira Euskal Herri osoko plazetan (Eibar-Arrate, Beasain, Andoain, Iruñea, Añorga, Biarritz, Elgoibar, Portugalete, Sestao...), eta, horien sorburuan, Urbeltz eta Arregiren eskua egon da, sortzaile, bultzatzaile zein aholkulari gisa. Hori guztia gutxi ez, eta dantza gizarteratu eta ludikotasunetik euskal dantzaz gozatzeko lan-lerroa ere sustatu dute, Bilboko

Jalgi hadi dantzara! Jalgi hadi plazara!

Kafe Antzokiko Dantza Ganbararen bitartez, gizartearentzat euskal dantza dibertsiorako hizkuntza ere badela frogatuz.

Argia dantzari taldeak hasieratik bertatik izan du argi, beraz, tradizioa eta sorkuntza txanpon beraren bi aldeak direla. 1960ko hamarkadan zeuden dantzaren alorreko beste proiektuek ez zuten sinesten euskal dantzak, bere horretan, balio zezakeenik edozertaz aritzeko. Euskararekin gertatzen zen modu berean. Eta horren erakusgarri da batzuek balletera jo izan zutela euskal dantza osatzeko –azkenengo urteotan beste batzuek dantza garaikidera jo izan duten bezala–. Baina Argiak egindako apustua honetan datza: euskal dantzari izaera noranahikoaren aitortzan. Euskal dantzan sinetsi dute (euskaran sinetsi dugun moduan), eta hamarkadaz hamarkada erakutsi dute hizkuntza horrek, euskaldunon gorputz-hizkuntzak, balio duela egungo mundua kontatzeko, beste dantza lengoaiak beste, gutxienez.

Hori izan da Argiaren ekarpen nagusietakoa, euskal dantzaren esparruak oraindik ere guztiz asimilatu gabea. Izan ere, oraindik urteak pasatu beharko baitira dantzariok Argiaren

Argia dantzari taldeak
hasieratik bertatik izan
du argi tradizioa eta
eta sorkuntza txanpon
beraren bi aldeak
direla. Argiak egindako
apustua honetan datza:
euskal dantzari izaera
noranahikoaren aitortzan

lan guztia digeritzen dugunerako. Espainiako gerraondoko idorte kulturalaren ondotik, euskal dantzaren mundua egarri zen, eta Argiaren sorkariak bere horretan xurgatu zituen, irrikaz. Egun, gure plazetan ikusten ditugun dantzen eta egokitzapen koreografikoen hein handi batek Argiaren zigilua darama; gehienondako, oharkabea. Baina Argiak ez dizkigu *produktu* jakin batzuk eskaini. Ezagutzen, sentsibili-

tatean eta gure herriarekiko ardura sozialean oinarritutako amets dantzatu berriak sortu eta birsortzeko modu oso bat jarri du gure esku.

Euskal Arte Eskola Garaikidearen mugimendu hartatik, Argia da gaur egun geratzen den adierazpen kolektibo bizi bakarra. Garai berrietara aurreratu eta egokitzeko eta bere burua berrasmatzeko gaitasunak ekarri du Argia gaur egun oraindik ere aktibo egotera. Dantzari multzo finkoa duen ohiko dantza taldea izatetik, proiektu koreografiko berriak aurrera ateratzeko elkartzen diren norbanako eta dantza talde ezberdinen partzuergo izatera pasatu zen 1990eko hamarkadan.

Ordutik, Euskal Herri guztiko dantza taldeak ari dira Argiaren orbitan, sare itxurako elkar elikatzea eraginez. Horrek bere lan eta influentzia eremua zabaltzea ekarri du. Arregik eta Urbeltzek pasioz bizi izan dute beren egitekoa, eta dantzari gazteei pasio hori bera transmititzen asmatu dute. Argiaren proiektua ez baita ohikoa izan. Batetik, belaunaldiarteko egitasmoa da, gazte eta helduek partekatua, zeinean transmisioa gauzatzen den: gazteek energia eta aitzinatzeo kemena dakarte, eta helduek egindako bidearen ezagutza transmititzen diete. Bestetik, dantzaren bitartez kontzientzia komunitarioa sustatzeko lan-tresna garrantzitsua ere izan da Argia, eta ez dira gutxi bertan bildutako sentsibiltate eta ezagutza beste kultur alor batzuetan ere –kantagintzan, musikagintzan, kazetaritzan, zineman, jantzigintzan...– proiektatu dituztenak. Horrez gain, gure herriko beste hainbat proposamen artistikorako ezinbesteko inspirazio iturri –sarri aitortu gabea– (izan) da Argiaren lana.

Gaur egun berean ere, sasoiko mantentzen da Argiaren apustua, Pio Barojaren Martin Zalakain abenturazalearen eleberriaren egokitzearen dantzatua bukatu berrian. Euskal Herri osoko ehundik gora dantzari eta musikaririk 26 emanaldi eskaini dituzte 15.000 ikusleren aitzinean, musika, dantza, antzerkia eta kantua uztartu dituen ikuskizun totalean.

Bernat Etxeparek iradoki eta Jorge Oteizak Euskal Arte Garaikidearen Eskolaren bitartez artikulatutako diziplina artistiko ezberdinen arteko elkar igurtzi orohartzaile horren indarraren kontzientzia aspaldikoa du Argiak. Ez Dok

Amairuko kantariekin batera, *Baga-Biga* edo *Zazpiribai* izeneko 1970eko hamarkadako ikuskizunak plazaratu zituenetik, behintzat. Bertan, diziplina horien arteko mugak lausotzen ziren. Dantzariak kantan ari ziren eta kantari eta musikariak dantzan. 1997ko *Khondarian* izeneko ikuskizunean ere herri literatura, antzerkia eta dantza uztartu zituen Argiak, eta bi-daia horrek *Martin Zalakain* izan du azken-aurreko kapitulua.

Horrelako proiektu jendetsua horrenbeste denboraz ikusgai mantendu ahal izatea ezinezkoa litzateke bertan parte hartu dutenen inplikazio azpimarragarririk gabe. Herrigintzarako ardura soziala deitu izan dio horri Juan Antonio Urbeltzek. Izan ere, horrelako munta handiko ikusgarria erantzukizun sozialagatik baizik ezin da egin, ez baitago horrenbeste jenderen errepika eta emanaldi orduak diruz ordaintzerik. Esan nahi baita, *Martin Zalakain* (edo Argia dantzari taldeak atondu dituen gisa honetako gainontzeko ikuskizunak) edo modu amateurrean sortzen dira edo ez genituzke gozatzen ahalko.

Kultur produktuak berak ere etekin ekonomikoaren arabera neurtzen ditugun garaiotan, geroz eta beharrezkoagoak zaizkit merkatuaren baldintza eta interesei iskin egiten dieten ekoizpen kulturalak, gure euskal komunitate anomaloaren alde. Merkatuak bere mesedetan jokutzen baitu beti. Borondate onenarekin ari den artista profesionalaren lana ere baldintzatzen du, bere jarduera artistiko ordaindu horren arabera baldin bada ahora eramatekorik izanen duen ala ez. Herrigintzaren eta merkatuaren epeak, moldeak eta helburuak ezberdinak direla argi da.

Ane Garcia kantari eta idazleari irakurri diodan elkarrizketa batean, kazetariak galdetu dio ea bere sorkuntza lana ote duen ogibide. Anek ezetz erantzun dio, eta ez dakiela hala izaterik nahiko lukeen ere. Sorkuntza lanetik biziko bagara, merkatuaren makineriak behartzen gaituela gure burua modu ezberdin askotan saltzera. Jardun amateurrek babestu egiten du arizalea profesionalen zenbait morrontzetatik, esaterako, merkatuaren zikloetan sartzeko uneoro sorkuntza berriak plazaratu beharretik eta arrakasta izanen

duten, alegia, salduko diren produktuak ekoitzi beharretik. Argiaren itzalean aritutakoei eta, oro har, euskal dantzan dihardugunoi, merkatuaren legetik aske egoteak libertatea ematen digu, gure indarrak eta ekarpenak jartzeko euskal dantzari eta kulturari eskaini nahi diogun horretan. Baina, aldi berean, kultura gero eta gehiago jardun profesional moduan bakarrik estimatzen duen sektorean, deseroso gertatzen dira askatasun amateurra eta *trending*-etatik aparte ibiltze hori, ekonomikoki kuantifikatzerik ez dagoena ez baita aintzat hartzen.

Berritasunaren kontrakoa errepikapena da. Errituala. Toki, denbora eta testuinguru jakin batean behin eta berriz errepikatzen dugun hori. Konfinamendu garaian, gure denboraren ordenamendu oro lausotua izan delarik, Margaret Bullenek ospakizun horiek galtzen ez uzteak duen garrantziaz ohartarazi gaitu. Alde batetik, gure bizitzako denborak ordenatu egiten baitituzte, anabasak sor dezakeen ziurgabetasun eta larritasunaren kontrako antidoto gisa. Bestetik, festaren eta kulturaren funtzio nagusietako bat ondokoekin elkartzea eta elkarrekin bidaia bat konpartitzea baita; kolektiboa eta haragizkoa da. Kulturaren helburua ez da ekonomikoa, komunitarioa baizik.

Jalgi hadi plazara

Antton Lukuk oso ongi ulertu zuen Arregik, Urbeltzek, Oteizak, Etxeparek eta beste hainbatek seinالاتu diguten gure kultur ekosistemaren elikatze modua, duela hamasei urte, Nafarroa Beherean, inauterietako libertimenduen fenomeno berpizteari ekin zionean. Labur esateko –eta sakondu nahi duenak hor du Lukuren *Libertitzeaz* liburu antologikoa–, inauteri giroko Artedrama da libertimendua. Bertan, bi talde nagusi aurkezten zaizkigu: batetik, zirtzilak, antzerki jokoan ari diren pertsonaia ilun eta zirtolariak, urte osoan zehar herrian gertatu izan diren trapu zaharrak modu satirikoan salatzen dituztenak. Bestetik, parean, dantzariak eta

Jalgi hadi dantzara! Jalgi hadi plazara!

musikariak, garbiak, izurriarendako txerto eta satira piper-tuaren goxagarri. Eta, azkenik, bertsolariak, plaza gainean gertatzen den orenen epaile. Inauteria egun zehatz batean agertzen da plazan, baina mustra hori prozesu luze, mamitsu eta aberasgarri baten ondorioa baino ez da.

Prozesu horretan, bat egiten dute elkar ezagutzak, belau-naldiartekotasunak, sorkuntzaren plazerak, diziplina artistiko eta norbanako ezberdinen arteko negoziazioak, musikak, bertsoak, dantzak, antzerkiak eta euskarak. Herrigintzarako artefaktu politikoa da, inondik inora, denborak ematen duen perspektibatik ikusita. Izan ere, formulak funtzionatu du. 2006an Garazin libertimendua berpiztu zutenetik, Donapaleu, Irisarri, Oztibarre, Baigorri eta Aldude batu zaizkio ospakizunari. Eta Nafarroa Behereko muga gaindituz, Hazparne, Makea, Luhuso, Lekorne eta Baionara ere hedatu da festa total horren olatua. Herri bakoitzeko gazte eta ez horren gazte euskaldunen artean komunitatearen trinkotzea ahalbidetzeaz gain, zirtzil-konexion edo saretze indartsua gertatu da herri horietako guztietako arizaleen artean. Gazte engaiatu horiek dira, gero, inaute garaia fini denean, herriko dantza taldeari segida ematen diotenak urtean zehar, gaztetxeko egitaraua kudeatzen dutenak gainontzeko hilabeteetan, musika talde bat, bi edo hiru sortu eta biziarazten dituztenak, edo antzerki lan bat muntatu eta Baionako Etxepare Lizeoan 500 ikasleren aurrean antzezten dutenak.

Urbeltzek esan izan digu gure herrietako ondarea hirietara ekartzen asmatzean egon daitekeela gure kultur transmisioaren gakoetako bat. Beraz, batez ere Iparraldeko herrietan bizi izan den esperientzia horren onurak Iruñea bezalako hiri batean ere funtzionatuko ote lukeen esperimentatzeko asmoz, hiri buruzagian libertimendu bat plazaratzeko prozesua abiatu genuen 2017an. Ospakizun mota horren oinarrietara jo eta hezurdurari Iruñeko mamia eransten saiatu ginen, erreferentzietan, musiketan, pertsonaietan eta enparauetan.

Emaita? Ipar Koreako ereserkia eta Ahuntxa dantza-jauzia uztartzen dituen doinuan dantzatzen den New Orleans

moldeko Second Line-a, sanferminetako peñek astintzen dituzten gisako pankarta salatari beltza, orroka ari den milizianoz jantzitako kobre-fanfarre inprobisatzailea, Iruñeko lehoi aurpegidunaren iturria irudikatzen duen herensuge erraldoi ur jaurtitzailea, intsektu beldarraren itxura duen lepoan hartutako santua eta axeri itxura duten eta gorritz janzten diren dantzari kokoxuri hindu inspiraziokoak. Igande goizean goizetik Iruñeko alde zaharreko karrikak inarrostean ditu konpartsak, eta, ondotik, eguerdiz, Santana plazan, urteak utzi duenari errepasoa ematen diote dantzari, musikari, arizale eta bertsolariak, haien jardunen arteko talkan oinarritutako mustran.

Plazako jarduna euskara hutsean da doike, baina baita horraino heltzeko prozesu guztia ere. Inauteriaren logistika guztiaz arduratzen den lantaldearen merenduetatik hasi, eta kokoxuriaren zintzarriak josteko atelierretaraino. Dantzarien errepikak, antzerkilarienak. Horien ondoko tragoa ere, euskaraz. Eta modu horretan gertatu izan da, bestela, agian, lehen ezagutza gaztelaniaz eginen zukeen jende batek, Iruinkokoari esker, euskaraz elkar ezagutu duela. Eta harreman horrek euskaraz egin duela aurrera, aipatutako prozesuari esker; eta, beraz, harreman horiek euskarazkoak izaten jarraitzen dutela denboraren iragaitearekin ere.

Norbaiti entzuna diot proiektu ederrenak izaten direla beste proiektu berri batzuetarako bide ematen dutenak. Iruinkoak komunitatetxo bati harremana euskaraz eraikitzeko balio izan dio, eta elkarrekin lan egiteko gogoa piztu du. Eta balio izan du bestelako proiektu batzuentzako pindar gisa. Iruñeko euskaldunon harremanak, bere txikian, txirikordatzeko balio izan du, eta baita Nafarroa Behereko eta Lapurdiko gainontzeko libertimenduetako arizaleekin harreman sare berri bat ehuntzeko ere. Eta sare hori ere euskaraz trikotatua da.

Eta sare horren ehule garrantzitsuenetakoak, Iruñeko dantza talde ezberdinetako dantzariak. Dantzariak kokoxuri ari dira, noski, baina kokobeltz zirtziletako ez gutxi ere dantzariak dira, eta plaza gainean ikusten ez diren lan zikinen arduradunen erdia baino gehiago ere dantzariak dira.

Jalgi hadi dantzara! Jalgi hadi plazara!

Iruñean, dantza taldeen arteko harremana ez da beti gozoa izan, aldizka garratza ere bai. Horregatik, Iruinkokoaren proiektua irakaspen etengabekoa da. Azken urteotan, hainbat lagunen (Urbeltzen, Lukuren, Araolazaren...) diskurtsoek dantzarion jardueraren zentzu politikoaz kontzientzia be-

Iruinkokoari eta
gainontzeko
libertimenduak
bezalako diziplinarteko
kulturgintza esperientziei
esker, argiago agertzen
zaigu kulturak
gizarte artikulaziorako
eta herrigintzarako
duen gaitasuna

rrartzera eramán gaituzte –gure aurreko belaunaldiek inoiz galdu ez duten kontzientzia, bide batez esanda–. Iruinkoak frogatu digu jarduera politikoaren eraginkortasun go-rena taldekerietatik askatzen garenean lortzen dela, aurretik beste hainbat esperientzian ikusi duguna berretsiz, aipatutako Argiaren jardunbide ezohikoan, adibidez.

Iruinkokoari edo gainontzeko libertimenduak bezalako diziplinarteko kulturgintza

esperientziei esker, argiago agertzen zaigu, beraz, kulturak gizarte artikulaziorako eta herrigintzarako duen gaitasuna. Lagun eta alor ezberdinen arteko igurtzi eta elkarrekintzak komunitate-sentimendua sortu, antolatu eta trinkotzeko bertutea du, bertute politikoa, alegia. Eta nabarmentzekoa iruditzen zait txirikordatzeko horretan dantzaren sareak jotzen duen paper garrantzitsua, hizkuntzarekiko interesa, kezka eta kontzientzia aktibatzen dituen heinean, euskalgintzaren, euskal kulturgintzaren eta herrigintzaren lurra goldatu eta ongarritzeko.

Gozamenerako partzuergoen mapa bat

Lerrook idazten ari nintzelarik, berriz hartu dut esku artean Eduardo Apodakaren *Identitatea eta anomalia* liburua. Aitzinera egin arau, euskal dantza komunitateko arizale gisa,

identifikatua sentitu naiz liburuak eskaintzen duen marko teorikoarekin. Apodakak ere, besteak beste, tradizioa ber-rasmatzeko eskubidea, erritua, transmisioa, erantzukizun soziala... aipagai ditu bere lanean. *Performance* edo simulakrotik euskarazko (eta orriotan azaltzen saiatu naizenez, dantzako) bizi-jardunbide gozagarrietarako jauzia egiteko proposamena luzatzen digu, esperientzia atsegingarri horiek lotzen baikaituzte hizkuntzaren erabileran eta praktiketan gehiago sakontzera. Praktika horien arteko partzuergoen bitartez, sare tankerako komunitate trinkoagoa lortzeko bidea seinalatzen digu Apodakak.

Dantzan egitearen aktibitate fisikoak berak dakarren endorfina askatze gozagarritik harago, dantzak komunitate bat, lagun eta konplizitate sare bat eskaini dizkigu, eta sare horrek elikatzen du gure dantzarako gogoia. Eta dantzarako gogoak sarea elikatzen. Nerbio sisteman bezala, dantzaren komunitateko subjektu bakoitzak neurona baten eragin esparrua du, baina aldi berean beste hamarnaka neuronekin konektatua da, elkarrekintzan. Interakzio horretan jasotzen ditugun estimuluetako askok gozamen sentsazioa eragiten dute gugan, eta horrek interakzioak errepikatzen bultzatzen gaitu, sistema berrelikatuz. Gainera, dantza jardun kolektiboa da. Bakarka egin badezakegu ere, dantzak konpartitua denean hartzen du bere izate osoa. Elkarrekin dantzan egiteak gorputz kolektiboaren esperientzia sentsorialaren gozamena sentiarazten digu.

Iruñeko Duguna dantza taldean egin dut nire dantzari ibilbide nagusia. Baina 2007tik hona, umea nintzelarik suzko herensuge harekin liluratu ninduen Argia dantzari taldearekin dantatzeko zortea ere izan dut. Euskal Herri osoko dantza talde ezberdinen lankidetzan oinarritzen da Argiaren jarduna. Besteak beste, Donostia, Eibar, Elgoibar, Biarritz, Portugalete eta Iruñeko dantzariak ari gara proiektu horretan, elkarlanean. Euskal Herrietako antzoki nagusietan erakusten ditugun ikuskizunak ondu eta jokatzear gain, irazki zabalago bat ere ehundu da Argia den lotunetik abiatuta: *Dantzan.eus* webgurearen inguruan sortutako dantzazale komunitatea, arestian

aipatutako ezpata-dantzen sarea, *Dantzari Ikasi* dantza irakasleendako ikasketa programa, *Ezpalak* dantza tradizionalen nazioarteko jaialdia... Lotune horiek guztiek biderkatu egiten dituzte Euskal Herri osoko errealitate linguistiko-kultural ezberdinetako beste hamarnaka dantza eragileren arteko elkarrekin eta sinergiak –eta igurtzi hori zinez gozagarri da–, bakoitza bere ingurunean dantzatik, euskaratik, kulturgingintzatik eta herrigintzatik eragiten saiatzen den ber denboran.

Esan bezala, ezpata-dantzak loturak eraikitzeke dantzak gertatu zaizkigu. Ezpata-dantza genero koreografiko moduan definitzen duen ezaugarria da ezpata-dantzariak sokak, kateak osatzen dituztela ezpaten bidez. Dantzari batek heldulekutik hartzen du bere ezpata eta punta eskaintzen dio beste dantzari bati. Horrek eskaintako punta hori hartzen du esku batekin eta, beste eskuarekin, ezpata heldulekutik hartuta duela, hiruugarren dantzari bati eskaintzen dio berearen punta. Katebegiak dira ezpata-dantzariak, eta dantzarien arteko lotura

hori du ezpata-dantzak ezaugarri nagusia. 2005etik aurrera, ezpata-dantzari taldeak ere elkarrekin lotzen hasita dira. Eta, horrela, Eibarko Arrateko ezpata-dantzatik eskaintako puntari heldu zitzaizkien Beasaingo eta Iruñeko ezpata-dantzariak, eta ezpaten soka hori luzatu eta luzatu egin da, Andoain, Elgoibar, Biarritz, Portugalete, Añorga, Sestao edo Donostiako ezpata-dantzeekin. Argiaren ezpata-dantza eredu-tik abiatuta, nork bere ezpata-dantza apailatzeko prozesuan besteen lankidetzara eta emaria

barneratuz, ezpata-dantzan elkarrekin eginez, sormenaren lilura eta dantzaren plazera kolektiboki gozatzeko bidea eskaini

Ezpata-dantzak loturak
eraikitzeke dantzak
gertatu zaizkigu.
Katebegiak dira
ezpata-dantzariak, eta
dantzarien arteko lotura
hori du ezpata-dantzak
ezaugarri nagusia.
2005etik aurrera, ezpata-
dantzari-taldeak ere
elkarrekin lotzen hasi dira

du ezpata-dantzarien partzuergoak. Errealitate sozial, kultural eta linguistiko oso desberdinetan diharduten dantzariak euskal dantza ulertzeko duten moduak lotu ditu, eta euskal gorputz-hizkuntzan eta euskal berbazko hizkuntzan ere, euskaraz, bizi eta erreproduzitzen den komunitatea eraiki dute, beren ingurune geografikoa ere zipriztinduz.

Zipriztin horietako bat izan zen, adibidez, 2015ean Iruñean atondu eta jokatu genuen Joxemiel Bidadorren omenezko pastoralara. Duguna dantza taldeaz gain, Euskaldunon Biltoki, Karrikiri eta Zaldiko Maldiko elkarteetako lagunak ere aritu ginen antolaketan. Motibazio ezberdinetako eragileen arteko lankidetzak fruitu ederra eman zuen, bai plazan, baina batez ere hilabeteak iraun zituen eta euskara hutsean gauzatu zen prozesu aberasgarrian. Proiektu horretarako elkarlanak utzitako zapore gozoa izan zen Iruinkokorako legamia. *Bidador* pastoralara Gotainen jokatu genuen 2016an, eta, Iruinkokoari esker, Nafarroa Behere eta Lapurdiko libertimenduetako ari-zaleekin loturak estutu ditugu. Aurretik bagenituen bestelako harremanekin batera, dantzari esker ehundutako sareak Baigorri, Urepelen, Biarritzen, Ezpeletan, Makean, Gotainen... egin ditugun hainbat errepika, atelier edo emanalditan lotune berriak korapilatu ditu. Dantzan, besta giro gozagarrian eta ezinbestean euskaraz korapilatu ditugun lotuneak.

Ondorioak

Zenbaitetan, dantzaren orratzarekin jositako hariek urrutira-go garamatzate. 2022ko martxoan Nastja Slavec Ljubljana Unibertsitateko ikerlari esloveniarra Iruñera etorri zaigu bere doktorego tesirako landa-lana egitera. Ofizialki Italian den Trieste hiriko komunitate esloveniarrek da bera. Hizkuntzatik –Triesten eslovenierak duen egoera larritik– iritsi zen dantzara, ikusi baitzuen esloveniar dantzetan ziharduten taldeek esloveniar hizkuntzarekiko interesa, kezka eta kontzientzia aktibatzen zutela. Euskal Herrian euskararen sustapena eta dantza taldeen dinamika askoz sendago sumatu zuenez,

hori ikertzero etorri da Iruñera. Kanpoko begiradaren perspektibatik, jadanik zenbait ondorio atera ditu.

Haren ustez, euskaldunok garrantzi handiagoa ematen diogu gure gorputz-hizkuntzari Europako beste hainbat eskualdetan haien dantza lengoaiei ematen dietena baino. Bere

Dantzak jendea euskarara
erakartzeko ahalmena
du, eta dantzatzea den
esperientzia kolektibo
gozagarritik partituz,
ekarpen garrantzitsua
egiten du euskalgintza
eta euskal kulturgintzaren
sistema sartzeko bidean

esanetan, garrantzitsua zaigu balioak partekatzen dituen komunitatearen adierazpide dantzatuan aritzea. Euskararekiko atxikimendu garrantzitsua dugun bezala, euskal dantzarekiko atxikimendu berezia ere sumatzen du Slavecek. Ikerlariari iruditzen zaio pasatu garela gordetzea eta zaintzea garrantzitsua zen berreskuratze fase batetik, zertarako eta nola hitz egin edo dantzatu nahi dugun ardatz duen beste garai batera,

paralelismo argia irudikatuz gure berbazko hizkuntzen eta gorputz-hizkuntzen artean.

Fase berri horretarako jauzian, euskal dantza bizi-bizirik dagoela dio ikerlariak, museorako pieza bat izatetik oso urruti. Adibidez, dantzaren alorrean pil-pilean diren generoari buruzko eztabaidek erakusten duten bezala. Euskal dantza gizartearekin batera garatuz doa; bizirik dago, beraz, gorputz-hizkuntza oso eta autonomo den heinean, egungo mundua bizitzeko eta kontatzeko guztiz eraginkorra dela erakutsiz.

Dantzaren bitartez elkarri lotutako komunitateak sortu eta artikulatu egiten direla ikusi du Slavecek. Bere ikerketarako ezinbesteko betekizuna delakoan, euskara eta euskal dantza ikasten ari da ikerlari esloveniarra, eta iruditzen zaio gure dantzek, ezagutzen dituen beste batzuekin alderatuz, elkarlan eta komunitate zentzu handia dutela bere baitan. Gainera, zuzenean egiaztatu ahal izan duen moduan, dantza, gehienetan, festa eta gozamenerako testuinguruetan agertzen da,

zeinetan jendeak elkar igurzten duen, komunitatea ahaldunduz eta trinkotuz, gizarte artikulaziorako eta herrigintzarako duen gaitasuna agerian utziz. Slaveci gertatu zaion bezala, euskal dantzaren alorrera gerturatzen den jendeak euskaraz bizi den komunitatean erortzeko arrisku handia izaten du, euskal dantzarekiko eta euskararekiko konpromiso bikoitz horretan bizi baita gehienetan euskal dantzaren mundua.

Nastja Slavec ikerlariaren gogoetek bide ematen digute bilana egiteko gure gorputz-hizkuntzaren –euskal dantzaren– eta berbazko hizkuntzaren –euskararen– artean antzematen ditugun parekotasun, elkarrekintza eta lotuneen artean.

Euskal dantza, euskara bezala, hizkuntza autonomo eta osoa da, eta beraren bitartez mundua bizi eta konta dezakegu, Argia dantzari taldearen azken hamarkadetako lan moldeak erakutsi digunez. Diziplinarteko kulturgintza esperientziek agerian jarri digute dantzak –bere horretan, baina batez ere elkarrekintzan– duen gaitasuna gizarte artikulaziorako zein herrigintzarako. Dantzak jendea euskarara erakartzeko ahalmena du, eta dantzatzea den esperientzia kolektibo gozagarritik partituz, ekarpen garrantzitsua egiten du euskaigintza eta euskal kulturgintzaren sistema saretzeko bidean. Dantza ditzagun, beraz, zango zein mingainak! Aldarrika dezagun Etxepare, baina har dezagun haren leloa osorik: Euskara da kanpora eta goazen oro dantzara. 🍷

Amaia Alvarez Uria

‘Euskal bolloen’ intersekzioetan barrena

Norberaren nortasuna eta taldearen identitatea ezin dira kategoria zehatz, argi eta hertsien bidez definitu gaur egun, are gutxiago gure burua definitzeko kategoria bakarra erabiltzen badugu. Adibidez, emakumea naiz esatean, zer da esaten duguna? Emakume guztiok sentitzen edo pentsatzen dugu gauza bera ‘etiketa’ horri buruz ari garenean? Berdin definitzen dugu beste kategoria, kokapen eta egoera batzuen eraginean dagoela dakigunean? Artikulu honetan, bi kategoriaz ari-tuko gara, ‘euskaldun’ eta ‘lesbiana’, eta elkarrekin gurutzatuko ditugu, artaziaren bi piezen modura, begirada desberdinetatik begiratzeko eta lotura edo elkargune horretan zer gertatzen den ikusteko.

Euskalduna izatea ez da gauza bera etxean ikasi eta egunerokoan erabili ohi duenarentzat edo eskolan ikasi eta bere familiarekin erdaraz egiten duenarentzat; Tafallan, Miarritzen edo Aulestin bizi denarentzat; laneko hizkuntza duen edo soilik tarteka musika bidez jasotzen duenarentzat. Euskalkien eta euskara batuaren afera ere hor dago; eta ‘euskaldun berri’ eta ‘euskaldun zahar’ tentsioa oraindik ez da baretu. Gainera, euskara-duna eta euskaltzalea izatea ez da gauza bera, ezagutza eta erabilera bereiztean ere jarrerak eta jo-kaerak agertuko zaizkigu; eta «euskaraz bizi nahi dut» leloa

oso modu desberdinetan gauzatuko da hori aldarrikatzen den aldi bakoitzean (Euskaraldiko ahalduntzearen eta estres linguistikoaren arteko oreka, kasu), besteak beste, euskararekiko dauden aurreiritzi eta estereotipoen zamaren eraginatik eta hizkuntza hegemonikoek duten botere, baliabide, aitortza eta presentziarengatik.

Lesbianismoa ere egoera eta modu desberdinetan bizi da (lesbofobia eta armairua gorabehera, erreferente positiboen falta, eta sexilioa edo ghettoa ere aipa ditzakegu). Izenetik has gaitezke, denak ez baitira ‘lesbiana’ hitzarekin identifikatzen; zenbaitek ‘bollera’ nahiago dute, eta badira, besteak beste, euren burua izendatzeko ‘tortillera’, ‘safika’ edo ‘queer’ erabiltzen dutenak ere.

Baina, horrez gain, bada beste bereizketa bat: praktika sexualak eta subjektu politikoa bereizten dituenak. Gauza bat delako zeinekin egiten duzun larrutan eta beste gauza bat zer zapalkuntzaren kontra borrokatzen zaren. Gainera, bibolloak eta pansexualak ere agertuko zaizkigu aldarrika; izan ere, emakumeekin bakarrik ez bagabiltza sexu-jolasetan, emakume kategoria eta binarismoa auzitan jartzen baditugu, edo transak sartzen badira jokoan, aukerak zabaldu eta mugak lausotu egiten dira.

Eta, zer gertatzen da bi kategoria dinamiko horiek elkarrekin gurutzatzen ditugunean? Esan bezala, ‘euskal bolle-rak’ ez dira denak berdinak. Belaunaldi desberdinen artean alde handiak daude, besteak beste, erreferente lesbikoetan, komunitatea eta sareak egiteko eretan eta jendaurreko ahalduntze bolloari begira; eremu euskaldun edo erdaldunetan bizi direnek ere ez dute berdin bizi lesbianen arteko euren euskalduntasuna, euskaraz jarduteko aukera eta oztopoak neurri eta pisu desberdinekoak baitira egoeratik egoerara; eremu indibidualak eta eremu instituzionalak, aztergaia deskribatzean, nola edo hala mugiaraziko du; eta zapalketa batarekiko edo bestearikiko kontzientzia edo parte-hartze soziopolitikoa ere handiagoa ala txikiagoa izan daiteke kide horien artean.

Bi zapalketari buruz jardungo dugu lerrootan, baina kontuan izanda ardatz identitario horiek modu eta egoera desberdinetan gurutzatuko direla, eta beste ardatz identitario batzuekin ere gurutzatuko direla; zapalketak eta pribilegioak nozituko edo gozatuko dituzte pertsonak horren arabera, esaterako, gorputz gaixoei, gorputz osasuntsuei, zuriak, arrazializatuak, argalek, lodiak, klase ertainekoak, prekariatuak, gaitasun funtzional desberdinetakoak, edo nazio eta kultura desberdinetan kokatzen direnak, batzuk aipatzearren.

Izan ere, Donna Harawayren arabera (1988), egia bakarra eta objektibitate erabatekoa ('naturala', 'normala' dena) ez dira existitzen, ez dira errealak, gure 'ezagutza kokatua' da eta. Mundua behatzailearen ikuspegitik ezagutu daiteke, errealtatearen lekukoak gara; eta gehiago edo gutxiago sakondu, esperimendu eta hausnartu daiteke aztergaiari buruz, baina inguruaren, besteen eta norberaren ezagutza kokapen sozialak baldintzatzen du. Adituaren ezagutza legitimatua da ordena sozialari buruz hitz egitean, eta horregatik da garrantzitsua hark esplizitatzea nondik hitz egiten duen, gaiaren inguruan dakienak eta sentitzen/pentsatzen duenak nola baldintzatu ahal duen argi izateko.

Hortaz, zapalkuntzak, pribilegioak eta kokapen sozialak aipatuta, ezinbestean, ikuspegi intersektionalera begira jartzen gara. Kimberlé Crenshaw erabili zuen lehen aldiz kontzeptu hori 1989an. Feminismo intersektionalaren arabera, gure gorputza ardatz identitario desberdinek gurutzatzen dute eta, horren ondorioz, diskriminazio eta abantaila desberdinak ditugu. Gurutzaketa bakoitzarekin ikasiko dugu identitatea konplexua dela eta egoera sozial desberdinetan kokatzen gaituela;

Bi zapalketari buruz
jardungo dugu
lerrootan, baina kontuan
izanda ardatz identitario
horiek modu eta
egoera desberdinetan
gurutzatuko direla,
eta beste ardatz
identitario batzuekin ere
gurutzatuko direla

izan ere, bell hooksek eta Patricia Hill Collinsek 1984an eta 1990ean adierazi zuten moduan, emakume beltzen borroka ezin da feminismotik edo antirrazismotik soilik azaldu, eta ‘emakume’ hitzak ez du esperientzia guztiak argitzeko balio (Hancock 2007).

Mende aldaketarekin batera, kategorien konplexutasunari begiratu zioten Leslie McCallek eta Ange-Marie Hancocek (2005 eta 2007), eta, proposatutako sailkapen batzuen bidez, kategorien arteko analisia proposatu zuten, hau da, kategoriek elkarren artean dituzten eraginei azpimarra ipini zioten. Hala ere, adi egon behar gara intersekzionalitatearekin, eta aniztasunak aintzat hartzeak ez dezala botere-harremanak salatzea baztertu (Yuval-Davis 2013 eta Salem 2018). Horregatik, intersekzionalitatea darabilgunean, kategorien arteko harremanei eta horren ondoriozko kokapenei ikuspegi kritikotik eta politikotik begiratuko diegu.

Ikergai ditugun kategoriei begira jartzen garenean, esan behar dugu sexualitatearen eta hizkuntzaren arteko intersekzioa gatazkatsua dela, intersekzio guztiak bezala. Hori dela eta, saiatu gara bi horien arteko gurutzaketa desberdinak jasotzen. Eredu eta arau hegemonikoetatik kanpo daude bai bolloak, bai euskaldunak, eta, horren ondorioz, zapalkuntza espezifikoak jasaten duten kolektiboen parte dira. Eta bi identitate horiek bizitzeko eta gurutzatzeko era diferenteak topatu ditugu jaso ditugun ahotsetan. Lan honekin diferentzia ez esentzializatzen laguntzea espero dugu: euskaldun guztiak ez dira berdinak, bollera guztiak ez dira berdinak eta euskal bollo guztiak ere ez. Baina praktika eta borroka batzuek biltzen gaituzte eta komunitatea osatzen dugu; beraz, elkar ezagutza, ikusgarritasuna eta erreferentzialitate positiboa sustatzeko bide bat izan daiteke hau.

Zapalketei, biolentziari eta diskriminazioari buruz ari garenean, subjektuak biktimizatzeko arriskua izaten da, eta hori ere saihestu nahi izan dugu. Lesbophobia, misoginia eta euskaldunfobiaren aurrean, agentzia eta ahalduntzea aldarrikatzen ditugu, subjektu politiko bihurtzen gaituena ez dadila izan

biktima rola edo partekatzen dugun mina, baizik eta sistematikiko kritiko izatea, jendarte alternatibo bat defendatzea eta horretarako borrokan eta lanean jardutea (Askoren artean 2021). Azkenean, justizia soziala eta eskubideen aitorpena landuko ditugu zeharka afera hori isiltasunetik ateratzen eta argitan erdigunean ipintzen dugunean.

Artikulu honetan, Euskal Herrian intersektzio horrek gurrutzatzen dituen gorputzen jabeen zenbait ahotsi entzungo diegu. Hego Euskal Herriko ahotsak bildu ditugu talde lesbofeministetako kideen artean (Ipar Euskal Herrian talde feministak egon izan dira azken urteotan, baita LGTBIQ+ taldeak ere, baina ez da talde lesbofeministarik egon, guk dakigula, eta are gutxiago euskalduna). Beraz, batetik, hiru belaunaldi desberdinetako talde lesbofeministetan ibili diren edo badabiltzan kide batzuen esanak ekarriko ditugu:

- A. Bilbon: Bizkaiko Lesbianen Kolektiboko (1987-2005) eta Sare Lesbianistako (2013-) Maite; OihuK emakumeen* etxe okupatuko (2015-2019) Batirtze eta Nahia; Nagore eta Amanda.
- B. Gasteizen: 7menos20 taldeko (2006-2016) Txiki, Elena eta Montse; eta BALA (2019-) taldeko Irati.
- C. Iruñean: Lumatza taldeko (2010-2016) Josune eta Ana.
- D. Gipuzkoako Izaskun (Eibar-Bilbo), Maren (Donostia-Bilbo), Garazi (Zarautz), eta Argi (Pasaia).

Bestetik, Ipar Euskal Herriko testigantza edo ahots bila fikziora joko dugu, eta euskal literaturan erreferente bollero nagusi den Amaia Ezpeldoi euskal detektibe errural lesbioari emango diogu hitza. Horretarako, Itxaro Bordaren *Jalgi hadi plazara* (2007) eta *Euri zitalari esker* (2021) liburuetara joko dugu, eta euskal hizkuntzari eta sexualitate bolleroari buruzko pasarte batzuk ekarriko ditugu hona. Sei lanek osatzen dute Ezpeldoiaren bilduma, eta guk laugarren eta seigarren lanak erabiliko ditugu, laugarrenean aterako delako armairutik protagonista –lesbiana dela adieraziko du–, eta seigarren liburua azkena delako eta bildumari amaiera ematen diolako, nolabaiteko laburpen bat eginez.

Bi ikuspegi horiekin batera, hirukia ixteko (ikerketa kualitatiboan aipatzen den triangulazioa egiteko), aipatutako begirada horiek harilkatuko dituenaren esperientzia eta ezagutza ere bertan egongo dira, bere ezagutza kokatuan.

Euskalduna eta lesbiana identitateen gurutzaketa militantzian

Euskalduntasunak eta lesbianismoak elkarri zelan eragiten dioten jakin nahi dugu elkarriketatutako kide lesbofeministen ahotsen bidez. Hasteko, argi ikusi dugu bereiztuta bizi izan direla bi borrokak urte askotan zehar. Izan ere, elkarriketatuen arabera, lesbianismoa borroka gisa landu izan dute mugimendu feministaren baitan, gay askapenarekin batera, edo

Argi ikusi dugu
euskalduntasuna eta
lesbianismoa bereiztuta
bizi izan direla urte
askotan zehar. Bi
borrokak uztartzeko
aukera xxi. mendea
hasita heldu da

talde lesbofeministetan. Baina euskararen alde luzaroan aparte aritu izan dira, ezker abertzalearen komunitatean edo euskgintza mugimenduaren barnean. Bi borrokak uztartzeko aukera xxi. mendea hasita heldu da. Horren adibide esanguratsua Euskal Herriko Jardunaldi Feministen azken edizioa izan da: Durangon 2019an egin zen, eta euskara

erdigunera ekartzeko lan handia egin zen bertan. Ordukoa da BALA taldearen sorrera-hitzaldia eta hari eman zioten izenburua: *Bollojabetza feminista*.

Euskaltzaleak ez zeuden bereziki sartuta gure mugimenduetan, haien mundua eginda zeukaten nolabait. Halere, guretzat inportantea zen, eta gure artean bazegoen euskararen alde aritutako jendea. (Josune)

Ezker abertzaleko militantzian ez dut bollerismorik bizi izan, ez zegoen halakorik; Bilgune Feministan eta OihuKn bizi izan dut. (Batirtze)

Hainbat urtez ura eta olio bezala bizi izan ditut [euskal eta lesbiana identitateak]. Izan ere, Bilbora bizitzera etorri nintzenean ezagutu nuen mundu bolleroa oso erdalduna zen; nire inguruko mundu euskaltzalea, berriz, oso heteroa. (Izaskun)

Horretan eragin handia izan du egoera soziolinguistikoaren bilakaerak: azken urteotako ezagutzaren hazkundera erabakigarria izan da talde lesbofeministen hizkuntza-politikan. Taldean kide euskaldunak ez izatetik edo euskaldunak gutxiengoa izatetik, kopuru aldetik euskaldunak gehiengoa edo denak izatera pasatu dira.

[Euskararen eta lesbianismoaren bilakaera Gasteizen] Izugarria izan da. Ni gogoratzen naiz, armairutik atera nintzenean, 94. urtean edo, anbientean edo lesbianak zeuden tokietan deitzen zidatela 'la vasca'. Gaur egun, uste dut Gasteizko lesbianen mundua euskalduna dela. Garai hartan [euskaldun] bakarrenetarikoa nintzen, eta gaur egun erdalduna denari euskaraz esaten dena itzultzen zaio. (Txiki)

Era berean, taldeotan jendartean eragiteko helburuak euskararen erabilerarekin talka egin izan du beti hiriguneetan; izan ere, eremu erdaldunetako mugak ezagututa eta nozitura, elebidun jokatu izan da urteetan zehar, gaztelania nagusi zela. Denborarekin hizkuntzen arteko indar korrelazioa pixka bat aldatzen joan da, kanpo-komunikazioetan euskarari lehen-tasuna emanez, nahiz eta gaztelania ez den atzean geratu.

Kalera begira, esfortzua egiten genuen [Bizkaiko Lesbianen Kolektiboan]. *Sorginak* aldizkaria ateratzen genuenean [*Lesbiana Feministen Kolektiboaren aldizkaria*], argi genuen zer edo zer ipini behar genuela euskaraz. Donostiako [Kolektiboko]ek guk baino gehiago erabiltzen zuten euskara; guk hurbilen genuen lagun euskaldunari eskatzen genion artikuluren bat. 90eko hamarkadatik aurrera jendea kontzientziatu zen eta kide gehiago hasi ziren euskara ikasten eta erabiltzen. (Maite)

Kide gehienak ez ziren euskaldunak, ez ziren ondo moldatzen euskaraz edo ez zuten beren burua gai ikusten. Horregatik, bilera ofizialetan ahozkoa gehienbat gaztelaniaz izaten zen. Espazio informaletan, nortzuk biltzen ginen arabera, euskaraz egiten genuen. Idatzizkoan, karteletan, manifestuetan eta abarretan, elebi-

tan egiten genuen. Nafarroan aritzen ginen; garrantzitsua da bertoko hizkuntza egoera eta ezagutza kontuan hartzea. Iruñeko lesbianak ziren gure publikoa, eta gertu genituen gehienak ez ziren euskaldunak. Gero biltzen joan ziren gaztetxo gehiago. (Josune)

Euskarak agendan garrantzia hartu du, oro har. Mugimendu feminista bera ere euskaldundu egin da neurri batean. Orain gehiago gara, beraz, euskaldun gehiago daude. Orain mugimenduko feministak trans eta bollera ikuspegiak ere txertatzen ditu. Nahiz eta militatzeko eredu likidoagoa duen multzo handi bat ere badagoen (Twitter eta abar erabiltzen dituen), eta hor logika erdaldunagoa da. Neoliberalismoaren eta globalizazioaren eragin nabaria da hori. (Irati)

Mende aldaketarekin batera, inflexio puntu txiki bat egon zen Bilbo handian. Gaztelaniaren hegemoniari erronka egin zion taldetxo batek. «Euskaraz bizi nahi dugu» leloa giro bollora eraman zuten.

Bilbo handian lesbianen mundu erdaldunari esan genion lesbiana euskaldunak ginela eta euskaraz nahi genuela bizi. Hori izan zen egin genuen aldarrikapena eta ikusgarri egiteko ariketa. Era informalean egin genuen. Euskal Herriko Hegoaldekoak ginen. Gehienak Bilbokoak eta Bilbo handikoak ginen, bizkaitarrak ere bazeuden. Beranduago gasteiztar eta gipuzkoar batzuk ere hurbildu ziren eta nafarren bat ere batu zitzaigun. (Nagore)

Askoz errazagoa izan da eremu euskaldunetan mugimendu lesbofeminista euskalduntzea, inguruak horretarako aukera eta aldeketasuna agertzen zituelako.

Nik Donostiako mugimendu lesbofeminista izan dut eredu, eta mugimendua euskaltzalea dela uste dut. Elebidunak gara, erdarazko dinamikak sor daitezke, baina euskaraz dakienak beti lehen hitza euskaraz egin ohi du. Eta ez dakiena ere, askotan, lehen berba euskaraz egitera ausartzen da. (Maren)

Esango nuke nire inguru hurbileko giro feminista eta bollo gehienak euskaltzaleak direla, edo euskaldunak, behintzat, bai. [...] Iruditzen zait bollerismoa euskaraz bizitzeko taldeak eta eremuak badaudela. (Garazi)

Aspalditik, lesbianok gurea den errealitate euskalduna arnastu, hausnartu eta erraizetatik sentitzeko behar kolektiboa daukagu. (Argi)

Badago 'euskal bolloen' komunitaterik? Zein izan da topaleku eta babeslekua euskal bollarentzat? Non ligatu dute eta euskaraz egin ahal izan dute? Horretan ere bilakaera egon da azken 40 urteotan. Hirietako giro eta gune lesbikoak izan ziren xx. mende amaierako topagune nagusiak, 'ambiente-ko' tabernak, gaueko parranda. Mende aldaketarekin batera horiek desagertzen joan ziren, eta antolatutako jaiek hartu zuten protagonismoa elkarrekin egon ahal izateko. Azken aldian, Gipuzkoako Bollurria topaketak aipatu behar dira errepasoa amaitzeko. Argi ikusten da erdal girotik euskal girora egin den ibilbidea horretan ere.

Bollurria: azkenengo bi urteetan urrian zehar Gipuzkoa eta Iparralde inguruan antolatzen diren bollera topaketa kultural batzuk dira. Bertako helburua Euskal Herriko txoko guztietako bollarak elkartzea eta aisialdian elkarrekin gozatzea da, izaera politiko eta euskaldunarekin. (Argi)

Euskara muga edo oztopo izan daiteke lesbianak elkartzeko, eta tentsioak eta gatazkak sortzen dira horren inguruan; ez da argi ikusten jarraitu beharreko estrategia, baina beste borroka batzuen topagune ere izan daiteke euskara, baldin eta euskalduntzeko erraztasunak eta laguntza ematen badira.

Euskara oztopo:

Niri frustrazioa sortzen zidan ezin genuela planteatu jarduera jakin bat euskaraz egitea, hala eginez gero ez zelako jende nahikorik etorriko. Jendeak euskaraz ez jakiteak asko mugatzen gintuen. Hori Nafarroan oso nabarmena da. Lesbianen elkargunea izan nahi genuen; ezin genuen hizkuntzarekin hori mugatu. (Ana)

Taldearen lehen hizkuntza euskara zela argi izan dugu, nahiz eta bagenekien beste profil batera heltzeko erdara erabili beharko genuela. Saiatzen gara ahalik eta proposamen inklusiboen eta askotarikoenak egiten jende desberdinarengana heltzeko. Euskara lehene-tsi, gaztelaniaren presentzia bermatu eta iruditeriarekin lan handia egiten dugu. Ez da bakarrik emakume migratu eta arrazializatuengana heltzeko, Gasteizen euskarak, gure konfort eremutik aterata, ez duelako presentzia handirik. Gugandik distantzia batera eta antolatu gabe daude lesbiana batzuk, egoera prekarioetan daudenak, eta horiekin aliantzak egitea garrantzitsua dela uste dugu. (Irati)

Euskara topagune:

Aktibismoan dabilzan beste herrialdeetako jendeak, normalean, ez du arazorik izaten euskararen aldeko jarrera izateko. Guk eza-gutzen ditugunek, behintzat, bazuten. Erritmoak errespetatuz, haien ikasketan pausoak eman ditzaten, nik uste dut badagoela aukera. Ez da erraza, noski. (Ana) Bestalde, integratzeko elementu potente bat da jatorriz gaztelaniadunak ez diren kanpotik datozenei begira. Hori herri oso euskaldunetan ikusten da; Ondarroa datorkit burura. Nire esperientzian, behintzat, kontrako jarrera bortitza goak topatu ditut bertokoen artean, beste herrialde eta lurralde batzuetatik etorritako jendearengan baino. (Josune)

Ezin dugu ukatu oraindik asko borrokatu behar dugula euskararen irakaskuntza benetan publikoa, doakoa eta kalitatezkoa izan dadin. Askok Euskal Herrian pairatzen duten esplotazio basatiagatik, ikasteko gogoia egon arren, askotan ez da aukera bat. Beraz, elkargune naturala den arren, praktikan oso zaila da. Berez zaila bada feministen artean ligatzea, ligoteoari kontzientzia lesbofeminista, antirrazista eta euskalduna gehitzen diogunean, esperientzia are bakartiagoa da. Gertatzen dena da, bi [ardatz]ek duten potentzial iraultzaileagatik, horiek bizi-adierazpen oso zapalduak, baztertuak eta gero eta kooptatuagoak direla. Beraz, opresio-bidegurutzetako bat ere badira, eta, nire kasuan, emakume migratua, latinoamerikarra, gaztea eta beste hainbat oinaze-fronte dira, baina baita sistemaren aurkako potentzia ere. (Amanda)

Hari horri jarraituz, zapalketen eta pribilegioen balantzea egiteko premia dihardute zenbait elkarrizketatutako intersekzio batzuetan botere-kokapenak daudelako eta horretaz jabetu behar dugulako ikuspegi kritikoa aintzat hartu nahi badugu, behintzat. Askotan aipatu den zapaldua/zapaltzailea guran zertan den ezagutzeko helburuarekin egin behar duguna.

Euskal hiztun gisa eta bollera gisa hegemoniatik at baztertuta edo gutxietsia sentitzen naizen arren, batzuetan ikusten dut nire hizkuntza jardueran, nire bollera jardueran zein gure euskal bolleren zirkuluetan pribilegioak ere baditugula; batzuetan pribilegio horiek ematen dizkiguten botere-harremanak iraunarazten ditugu edo saiakera nahikorik ez dugu egiten horiei uko egiteko. Agian [hausnarketa hau] bollera ez-binario euskaldun ez-abertzale gisa armairutik ateratzeko baliagarria izan zait. (Garazi)

Pribilegioei dagokienez, lesbiana erdaldunen euskarareki-ko jarrerak askotarikoak izan dira. Batzuek ez dute interesik agertu eta beste batzuk euskaldundu dira beharra sentitu dutenean. Heterosexual euskaldunen jarrerak ere askotarikoak izan dira. Kide euskaldun bolleroen onarpena, tolerantzia adierazi dute, oro har, baina inolako ohitura aldaketarik egin gabe haien ongizatea bermatzeko. Badira, ordea, konplize rola hartu eta kide bolloekin aipatutako topaguneetara joan izan direnak ere.

LadyFestan ez geneukan kontzientzia hori. Taldeko gehienek ez zekiten euskaraz, edo jakin bai, baina ez zuten erabiltzen kuadrilla giroan. Batzuek ez jakitea aitzakia da dakigunok esfortzurik ez egiteko. [...] [Sare Lesbianistan lehenengo urteetan euskararen erabilera] apur bat handiagoa [izan zen aurreko taldeetakoarekin konparatuz]. Hainbat kide irakasleak ziren eta euskarari pisua eman zioten. Komunikatuak ere euskaraz idazten zituzten. Baina batzarrak erdaraz egiten genituen, beste kide batzuek ez zekitelako euskaraz. Ez soilik etorkinek; hemen jaio eta bizi diren lesbiana askok ez dute ikasteko interes handirik. (Maite)

Beste behin konproba daiteke borroka baten kontzientzia duenak ez duela izaten beste borroka batekiko kontzientzia, eta hori da, agian, gaur egun pentsatu beharreko kontu bat. Ekonomia feministak, feminismo interseksionalak, transfeminismoak, feminismo antikapitalistak, LGTBIQ+ mugimenduak, *queer* teoriak... aliantzetara garamatzate. Baina erresistentzia eta fobia asko agertu dira azken aldian. Esentzialismoa ez da auzitan jarri nahi eta botereguneak ez dira galdu nahi.

Zapalketen eta pribilegioen balantzea egiteko premiaz dihardute zenbait elkarriketatuk, intersekzio batzuetan botere-kokapenak daudelako eta horretaz jabetu behar dugulako ikuspegi kritikoa aintzat hartu nahi badugu

Lesbiana eta euskalduna identitateen gurutzaketa literaturan

Itxaro Bordak Amaia Ezpeldoi pertsonaia sortu zuen eta bere detektibe-abenturekin sei liburu kaleratu ditu Susa argitaletxearekin: *Bakean ützi arte* (1994), *Bizi nizano munduan* (1996), *Amorezko pena baino* (1996), *Jalgi hadi plazara* (2007), *Boga boga* (2012) eta *Euri zitalari esker* (2021). Intersekzio ariketa hau egiteko, bere laugarren eta seigarren lanak arakatu ditugu: bertan topatutako zenbait pasarte erabiliko ditugu euskara eta lesbianismoa nola gurutzatzen diren eta horien bidez zein esanahi edo mezu helarazten zaigun ikusteko.

Aurreko atalean, Euskal Herriko Hegoaldetik begiratu diogu gai honi, baina orain Ipar Euskal Herritik begira jarriko gara. Horrek, lehenbizi, fokupean ipiniko du Hego eta Ipar Euskal Herriak banatzen eta urruntzen dituen muga. Oso ahula da bi aldeen arteko harremana, eta hegozentrismoaren gainean aritu gintezke luze. Frantziako Errepublikak eta Espainiako Estatuak itzal handia egiten dute euskal komunitatearen gainean, elkar ezin ikustera heltzeraino.

Eta ez zuen ahalkerik hazi behar frantses edo espainol izateak, ardurenean, ohartzen nintzen, Iparraldekoek zutela beraien frantsestasuna gordetzen, frantseskeria erraten zen mespretxu pixka batez, Iparraldekoek zuten Hegoaldekoekin biltzean, *rrr* lakarrez eta aditz zein hitz bereziz hanpatu euskalkia baztertzen, hizkuntzatik beretik frantsesak zirela susmatzen zelako. Muga mentala ezabatuko bide zen nortasunen arteko tratamenduen berdintasuna erdietsiko genuenean, hau da, espainoltasuna eta frantsestasuna biak, euskal nortasunaren zatitzat kontsideratuko zirenean, biak hein berean, bata bestea baino apalgarriagoa izan gabe eta alderantziz. (Borda 2007: 120)

Ipar Euskal Herriko euskal komunitateak, bere txikitasunean, askoz gehiago ezagutzen eta jarraitzen du Hego Euskal Herriko euskal komunitatearen ibilbidea; Hegoaldekoek, oro har, ez dakigu apenas ezer Ipar Euskal Herriko euskaldunei buruz, kontu folkloriko batzuk kenduta. Erreferente kulturaletan eta euskalkien ezagutza eta erabileran erraz

ikus daiteke hori. Hegoaldekoek Iparraldeko euskaldunak nolabait orientalizatzen eta exotiko, arrotz, bitxi bihurtzen ditugula baieztatu liteke (Said 2007).

– Ez dute astirik zure ahozko euskalkiaren ulertzeko –ihardetsi nion irriz–. Alfabetatu behar zenuke, indar bat egin ulergarria izateko, zure euskara zaharra modernizatu, hots. (Borda 2007: 12)

Protagonista dolu da, bere Iparraldeko euskara hilzorian dago eta Hegoaldekoek ez dute ulertzen. Hegoaldekoekin komunikatzeko euskalkiak erabiltzea posible ez denean, euskara batua dugu, baina Amaia Ezpeldoik erdararako nagusitzen den joera salatzen du.

Ene mintzaira pobrea, Iparraldekoa, itxuraz munduari egokitzen ahal ez zena, maite nuen, eder kausitzen nuen, ele, aditz trinko eta deklinabideez Carmenez bezainbat maitemindua nintzen. Labo-rari unatuena zen noski, eta hirietako jende euskaldun eskolatuek muturra zimurdikatzen zuten, urrikiz eta ulermen ezaz. [...] banekien euskaldun petzerorik gabeko euskaldungoa hobetsiko zela franko fite, Hegoaldean eta Iparraldean bertan jada nehork nehor ez baitzuen konprenitzen. Erdaretara lerratzen ginen komunika-zioa erraztearren. Beharrik bazirela Bilbon Iparraldeko euskararen maitale indartsuak, bestela dena akabo zitekeen. (*Ibid.*: 186)

Edonola ere, euskaldunen biktima rola hartzeko ohitura kritikatzeko du. Euskararen egoera txarraren aurrean kexuka hasten garelako konponbideak probatzen baino.

Hargatik ez nuen uste, erdaretan itotzeko gure jaiduraren errua Euskaltzaindiaren erabaki aldakorretan oinarritzen zenik. Bazen mila faktore. Iparraldean eta Hegoaldean, eta horietarik bat, euskaldunak bere hizkuntza baliatzeko partez, nahiago zuela hizkuntzaz negar egin. Malkoak anitzetan aditz trinkoak baino eraginkorragoak ziren, biktima planta nagusi zen mundu honetan. (*Ibid.*: 133)

Katastrofearen aurreikusteak ederki laguntzen gintuen. Batetik hizkuntza ezpainetarik ezabatuko zitzaizen bizidun-biktimak ginen, biktima negarroiak, eta bestetik lanjeraren hurbiltasun hontzaren estakuruz, apurkerian irauten genuen: idazleek berek hiltzera zihoan hizkuntzarekiko errespetuz ez zuten izkiriatzen eta ahapez mintzatzen ginen, etsaia hor zegoelako [...] eskubideak

zein genituen jakin gabe, euskaldun izanez eskubidez biluziak ginela uste genuelako. (*Ibid.*: 65-66)

Horregatik, berak baditu ekintzarako proposamenak eta egoeraren irakurketa positiboak, umoretik ere asko, jakina: euskararen ezagutza baliabide gisa eta maitasunaren goxotasuna.

Amikuzeko ene euskalkiaren erabiltzeak larrutu ninduen. [...] Etxekoak zenduz geroztik batez ere, jendetasunaren aldetik bezain hizkuntzarenetik, lurraren azalean umezurtz nenbilen, norabide zehatzik gabe loakeen harri borobilaren pare. Arima erratua nintzen. Arima kameleoia, *mertzi biziki* pentsa eta *mila esker* ahoskatzen zuena. [...] Baina gaurkoan ez nuen zainetarik ahultzeko estakururik. Euskalki guztiak, batua barne, erabil nitzakeen eta menturaz [...] kasuaren argitzeko ontsa baliatuko zitzaizkidan. Pozik nengoen behingoz. (*Ibid.*: 16)

Zer ari nintzen zaharkeria harrotzen, ustel usaina zerien aditz maingukariak haiatzen, laster batean behin betiko ezabatuko zen euskalki baten geroaz axolatzen, amodioa hor neukalarik, eskumenean, aitzinean, aiduru, menturaz, agian, lau euskaltzainak pikutara joan daitezela, oro bat zitzaidan, Carmen nahi nuen. (*Ibid.*: 40)

Azkenean, jendarte cisheteronormatibo kristau atzerako batean isilik eta ezkutuan bizi beharrean, armairutik ateratzeko erabakia hartu eta bere burua onartzea aukeratzen du.

Gehiegi zen alabaina, Euskal Herrian zegoen gauza, hitz eta gertakari batzuen estaltzeko jaidura amankomun hori: irudi eta ohorea mantentzeko, klandestinitatean jarduten genuen. Euskaldunki bizitzeak sekretuan irautea zekarren. Mila tabu zeuden, etxeetan, familietan, herrietan edo alderdi politiko eta kulturaletan. [...] *jalghadi* bat nintzen ene aldian, aspaldiko euskara bezala. Baina ohartuko nintzen segur aski denborarekin, ohe zinpurto baten beroan maitearen bularrak ferekatuz aitorzea aiseago zatekeela, egunero lesbiana antzera plazaratzea baino. (*Ibid.*: 195-196)

Jalghaditzean bizitza zerotik berriz hasten zihoakiela sentitu zuten lesbiana nüzü edo gay nauzu agertzen zietenean adiskideei, gurasoei, lankideei eta maitaletzat desiratzen zituztenei. Agian, nahitara edo ezin bestez, eiharturik ez hiltzeko, hitzok ezipainetarik ihes joan zitzaizkienean, bizitza ezezagun baten atari arrisurtsuan zeudela sinetsi zuten. Big-bang bat zen. Edozein adinetan agitzen zen, eta aldi oroz urgentzia gorrian. [...] Zorigaitzez,

behialako *euskalduna naiz eta harro nago* haren antzera, perpau-sak ez zuen aitorkidea lagun-taldean integratzen, alderantziz, une batez bederen baztertzen zuen, bitxiki kontsideratzen zen, homosexualitatea gaixotasun kutsakorra bailitzan, gizartearen oreka [...] zalantzan jarriko bailitzan. (*Ibid.*: 214)

Maitasuna da Ezpeldoirentzat irtenbideetako bat; hala ere, azken eleberrian zalantzan jartzen du ideia hori, amodio erromantikoaren arriskuez ohartu delako.

Hainbat misterio banituen argituak hondar hiru hamarkada haue-tan, xendra bitxiak euskal jendartearen gunerik zitazenetara eraman ninduten eta ez nuen gehiago sinesten jendea ona izan zitekeenik, dirua, boterea, emazteak eta gizonak jokoan sartzen ziren ber. Maitasunak salbatzen gintuen? Bakarretan bai, gehienetan ez. Maitasu-na ere performatiboa zelako, sozietate moralistak inposatzen zizki-gun egiteko erak errepikatzen genituen, besteak bezala bizitzeko. Gure beldurra baitzen joera onartuen meta konpaktutik urruntzea, erramerranak eta zurrumurruak haztea, amari pena eragitea, seku-la zer edo zer jakiten baldin bazuen. (Borda 2021: 237)

Eta maitasun erromantikoaren kritika eta deseraiketarekin batera, emakume eta lesbiana kategoriena. Monique Wittigek zioen moduan (2017), bollerak ez dira emakumeak, ez du-telako erregimen heterosexualean parte hartzen. Lesbiana, merkatu neoliberalaren eta homonormatibitatearen miran, sistemaren parte izateko ezkontza eta adopzioaren bidez balio heteronormatiboen asimilazioa egiten duena (izan ahal) da. Horregatik aldarrikatzen dute bollera izena askok, kokapen politizatu eta kritikotik hitz egin nahi dutelako.

Lesbiana izateak, hala uste nuen, euskal feministen artean asko aipatzen zen interseksionalitatearen armiarma sarearen mui-nean gatibatzen ninduen, ez nintzelako gizonak eta hauen mun-du sinbolikoa desiratzen zuten pertsonetatik. Aitortzekoa nuen, hargatik, ene bizitzan modelo heterosexuala kopiatu nahi zuten neska bikoteak ere ezagutu nituela. Konparazioez, haragijale ohia izatearen nostalgia leukaketen beganoen antzera genbiltzan noiztenka, supermerkatu organikoetan haragi begetala eroste-ra lehiatuz. [...] Kontrarikzioz astunduak ginen eta halere bizi behar, ahalik hobekien. Blablari itzela nintzen. (Borda 2021: 239)

Ondorio batzuk

Bildu ditugun lekukotzen arabera, bolleren komunitatea biltzeko euskara oztopo eta topagune izan daiteke eremu erdaldunetan, eta euskal komunitatearen barruan maiz lesbianismoa ikusezina da edo pasiboki toleratzen da eremu euskaldunetan. Horregatik, maila kolektiboan, *ghetto* armairiatuak eta *lobby* elitistak gaindituz komunitateak zabaldu behar ditugu eta baliabideak eman eta bidelagun izan euskaldundu edo armairutik atera nahi dutenei. Elkartasuna eta ikusgarritasuna sustatuko ditugu aipatutakoak lortze aldera.

Horrez gain, maila pertsonalean, bakoitzaren gorputza gurutzatzen duten ardatz identitarioei begiratuko diegu, eta horien

Gure helburua
herrigintza justua,
parekidea eta
askotarikoa eraikitzea
bada, hizkuntzen eta
sexualitateen ekologia
'denon kontua da',
feminismoa den bezala

artean pertsona bakoitza zein kokapen sozialetan dagoen eta zelako botere-posizioa duen ikusi. Nola? Gure pribilegioez jabetu eta hausnartu behar dugu harreman justu eta parekideak eduki ahal izateko.

Azkenik, hegotik iparrera eta iparretik hegora mugitu behar dugu: hegozentrismoa eta zurikeria gainditzeko, Ipar Euskal Herriko euskaldunekin

eta mundu globaleko hegoaldeko bolloekin kontaktuan jarriko gara. Era berean, euskaldun minorizatuaren biktimismo pasiboa alboratuko dugu eta ekintzara pasatu Ezpeldoiri jarraituta: euskara batua menderatu ondoren, euskalkiak ezagutzeko urratsa emango dugu, bakoitzak bere erritmoan.

Gure arteko joko lizun eta burlakoietara pasatzen ginenean, euskalkiei uztartzen gintzaizkien. Plazer bat zen, jolasaren erdian, ghost bilakatzen ari ziren sintaxietan barna galtzea, eleari sapa emateko, *corpusak* iratzarrarazteko, *Euskara Batuaren Eskuliburu*a aldamenen edukitzea edo, sabelpeak ausikika harrotzeari ekiten genionean, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologiko* mardularen gainean bermatzea. Ez nekien erraten nondik genituen

liburu horiek, ez baikenuen euskaltzainik ezagutzen eta euskaren ikerketaren mundua ez zelako arras gurea. Irri zozo batek zirrimarratu zidan ezpain izkina. Garaziko herriaren bihotzean nintzen, bezperan deitu ninduen pertsona baten zain, abentura berrietarako prest. (*Ibid.*: 49)

Izan ere, gure helburua herrigintza justua, parekidea eta askotarikoa eraikitzea bada (JAKIN 221-222, 2017), hizkuntzen eta sexualitateen ekologia ‘denon kontua da’, feminismoa den bezala (bell hooks 2018). Hortaz, onar ditzagun gure ‘subalternitate izaera’ (Spivak 1988) eta horren ondorioak, baina aldi berean goza dezagun komunitatearen indarraz eta borrokarako sareen berotasunaz.

- Bizitza normala eta hizkuntza erraza.
- Zer derasan?
Carmenen ahotsa nuen entzun. Monologo antzuan aztoratzen nindoala, moztu ninduen:
- Zer derasan?
- Ez dinat bizitza normala eta hizkuntza errazaz beste ametsik.
- Hik?
- Bai, nik –ihardetsi nion fermuki.
- Hik? Baina? Lesbiana haiz eta Iparraldekoa! Sekula ez dun amets hori beteko!
- Uste dun ez naitekeela salba?
- Su zelestiarren estiretara kondenatua haiz hi ere. Salbatua izan nahi dun benetan?
- Ez. Benetan ez. (Borda 2007: 202) 🍷

Bibliografia

- Alvarez Uriia, Amaia; Fernandez, June (2021): ‘Nola izan/esan bollera euskaraz’ (<http://zinegoak.com/nola-esan-izan-bollera-euskaraz>).
- Askoren artean (2021): *Alianzas rebeldes. Un feminismo más allá de la identidad*, Bartzelona, Bellaterra.
- bell hooks (2018): *Feminismoa denon kontua da. Politika pasio*, Iruñea, Katakarak. Itzultzailea: Amaia Apalauza Ollo.

- Borda, Itxaro (2007): *Jalgi hadi plazara*, Zarautz, Susa.
- (2021): *Euri zitalari esker*, Zarautz, Susa.
- Hancock, Ange-Marie (2007): ‘Intersectionality as a Normative and Empirical Paradigm’, *Politics & Gender* 3(2), 248-254.
- Haraway, Donna (1988): ‘Situated Knowledge’, *Feminist Studies* 14(3), 575-599.
- JAKIN (2017): *Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorria elkargunean*, JAKIN 221-222 (zenbaki monografikoa).
- McCall, Leslie (2005): ‘The Complexity of Intersectionality’, *Signs* 30(3), 1.771-1.800.
- Said, Edward (2007): *Orientalismo*, Bartzelona, DeBolsillo.
- Salem, Sara (2018): ‘Intersectionality and its discontents: Intersectionality as traveling theory’, *European Journal of Women’s Studies* 25(4), 403-418.
- Spivak, Gayatri Chakravorty (1988): ‘Can the Subaltern Speak?’, in Cary Nelson eta Lawrence Grossberg (argk.): *Marxism and the Interpretation of Culture*, Urbana, University of Illinois Press, 271-313.
- Yuval-Davis, Nira (2013): ‘Más allá de la dicotomía y la redistribución’, in Martha Zapata, Sabina García eta Jennifer Chan (argk.): *La interseccionalidad en debate. Actas del Congreso Internacional «Indicadores Interseccionales y Medidas de Inclusión Social en Instituciones de Educación Superior»*, Berlin, Freie Universität, 21-34.
- Wittig, Monique (2017): *Pentsamendu heterozuzena*, Zarautz, Susa. *Lisipe* bilduma 3. Itzultzaileak: Maialen Berasategi Catalán, Irene Arrarats Lizaga, Danele Sarriugarte Mochales eta Mirentxu Larrañaga Sueskun.



Herrenaren jauziak

Herri berean bizi baina inoiz harekin egon gabeko norbaiten berri eman dizute, eta, bat-batean, hurrengo egunetan, aurrez inoiz ikusi gabeko lekuetan agertzen hasten zaizu, gasolindegian, auzoko dendan, liburutegian. Ikasten duzu berba berri bat, eta, bat-batean, zutabe batean edo lankide baten gogoeta inprobisatuan berragertzen da. Zaldiekin gertatu zait niri berriki: zaldi-lasterketetan aritzen zen kazetari baten inguruko nobela bat irakurri nuen duela gutxi, pantailetakoko fikzio lanetan ere eskuin eta ezker agertu zaizkit, eta lauhazkaren hotsa garezur hondoan geratu zait egun batzuetan. Kontatzen badut da, baina, euskal kulturgintzaren 2022ko balantzeaz hitz egiten hasteko buruan nerabilen hitz nagusiari itsatsi zaidalako hots hori orain: jauziari, hain zuzen.

Bi urte pandemikoren osteko itzulera urtea izan da 2022a, eta izan da hitzordu eta urtemuga esanguratsuen urtea ere. Abenduak eskaintzen du urteak utzitako paperak txukuntzeko tarterik, eta horien artetik berreskuratu ditut Ramon Saizarbitoriak udaberrian Bilboko Arriaga antzokian esandako hitz batzuk. Haren *Martutene* nobela aztertu dute aurten Bilbo Zaharra Forumean, eta ekaineko irakurraldi publikoaren atarian zera adierazi zuen idazleak: ez dela sekula hainbeste jende izan euskara jakin eta erabiltzen ez duena. Bistan da, inoizko euskaradun jende gehien dagoela esatea baino ilunagoa da ikuspegia, baina irudipena dut hasi dela ozentzen tonu beltzago hori diskurtsoetan: ez da esan nahiko genukeena, baina hori da dagoena.

Inguruan nekea nabaritzen duela zioen idazleak:

Iruditzen zait anormaltasun egoera iragankorra izango zela pentsatzen genuela eta ohartu garena luzerako izango dela, betirakoa, agian. Gainera, garaia aldatu egin dira eta gero eta zailagoa da, zilegi litzatekeen kasuan ere, aginduzko neurriak erabiltzea.

Eta aipatzen zuen ez duela ikusten euskara ‘gu’ bat osatzeko elementu aglutinatzailea denik gaur egun, ez euskaldun guztien kasuan, bederen:

Askorentzat oposizioetan puntuak ematen dituen ikasi beharreko hizkuntza da, nire denboran latina bezala azterketak gainditzeko ikasi beharrekoa; eta asasinoen hizkuntza ere jarraitzen du izaten norbaitentzat.

Aldaketa baten atarian kokatu zuen kulturgintza, gero eta ohikoagoa bihurtu delako, haren begietara gazteen artean batez ere, euskara erdarekin nahasian erabiltzea. *Martutene*-rekin gertatu zaio, aurrez inoiz ez bezala, euskara maila altuko jendeak aitortu diola liburua gaztelaniaz irakurri izana.

Orain hogeitaz hamar urte ez ziren ausartuko halako aitorpenik egiten, eta, bestalde, duela berrogei urte ezinezkoa ere bazen, orduan euskal nobelak ez zirelako orain bezala ia aldi berean bi hizkuntzatzen argitaratzen. Horra garapenaren zehar kalteak.

Garapenaren zehar kalteak eta kontzientzia linguistikoaren diluitzea. Horiek dira, ziurrenik, euskal kulturaren zaldiak aurrean dituen hesi garaienetako batzuk gaur.

Gorputza mamutzen

«Lan baldintzetan eragitea oso zaila da, baina pandemiak lehen lerroan jarri du gaia, eta uste dut urtebetea aurrerapausoak egongo direla». Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko aholkulari eta sailburuorde ohiak egin zuen iragarpena udan, *Berria*-n, eta, aurreratu zuenez, hiru izango dira berandu barik aurkeztuko dituzten ekinbideak: kontratazioetarako kode egokien gida, sortzaileen fiskalitatea arintzeko neurriak eta profesionaltzat nor hartuko den zehaztuko

duen kulturgileen errolda. Izan ere, pandemiak geroztik, badirudi indarra hartu duela sortzaileen lan baldintzez kontzientzia hartzeko deiak. Lanartea ari da horretan buru-belarri, eta haren koordinatzaile Amagoia Gurrutxagarekin aritu zen, hain justu, Muñoz. Bat etorri ziren euskal kultura zenbateraino bizi den herren ikusarazterakoan, baina ez zen asko behar izan guztiaren hondoan dagoen korapiloetako bat ukitzera heltzeko: Muñozek Araba, Bizkai eta Gipuzkoan kulturaren edozein hizkuntzatan lan egiten dutenak zituen gogoan sustatu beharko lirakeen kultur politikak pentsatzerakoan; aldiz, euskaraz lan egiteak dakarren aukera berdintasun ezaz ohartarazi nahi izan zuen Gurrutxagak. Hesia.

«Ez gara inoren aurka ari, euskaraz egiteko apustua egiten dutenen alde baizik, oraingoan eta etorriko direnen egoera ziurtatzeko. Gorputz hori mamutzen ari gara bestela». Aski argigarria da euskaraz lan egiteko erabakia hartu dutenen egoera konplejizatu nahi duenak argitu beharra ez dela hori inoren 'kontra' hasitako gudua. Baina, akaso garapenaren kalteak hauek ere, heldu da garai bat zeinetan talka politikorako beldurrak eskakizun legítimo asko uxatu dituen.

Loreak belaunetan dokumentala eta *Laineza* liburu kolektiboa ondu ditu aurten Lanarteak, eta biek erakusten dute azken urte luzeetan ezer gutxi aldatu direla kultur mundura heltzen direnen kezkak. Koordinatzailearen esanetan, 1970eko hamarkadan hasi zirenek dena egiteko zegoen espazio bat topatu zuten, eta horrek eta testuinguru historikoak eskatu eta justifikatu zuten jarrera militante bat. Egiturak sortu eta ugaritu ziren gero, horietan ehunka lanpostu egonkortu, baina hasieran bezain ziurgabe segitzen dute bitartekari horiei guztiei jaten ematen dien sortzaileen baldintzek.

Euskal artistak bere bizi guzian gratis eta ofizioz lana egitera kondenatuta egon behar al du? Gure ikastolak haizezkoak egin al litezke? Euskal antzerkia bost edo sei afizionatuk jarri beharko ote dute, bere laneko orduetatik kanpora?

Lourdes Iriondok egin zituen galderok 1967an, eta ondokoak gehitu dizkio Amaia Zubiriak 2022an:

Kantagintzan hastea erabaki nuenean, inolako legez arautu gabeko mundu batean sartu nintzen. Eta hala ere, beti egin izan nuen lan zure erakundeentzat, Administrazio Maitea. Hiru hilabeteren buruan kobratuz, kontzertua bera antolatzeke puska gizen bat xahututa. [...] Ikusten, zertara natorren? Zenbat kontzertu didaktiko eman genituen zure eskoletan hainbeste urtez? Zenbat jaitan egin dugu lan zure udaletarako? Zenbat ekitaldi instituzional jantzi izan dizugu gure musikarekin? Zenbat doinu, zenbat kanta, zenbat poema sortu ote dugu gure kulturaren ondarea aberastuz? Zer ote gara zuretzat? Non dago gure kotizazioa? Non dago gure lan estatusa?

Kultura haragi bizitan darama azpitolututzat liburuak, eta ezin ekidin zaldiaren larruazala hala irudikatzea orain.

Tentsio jaitisiera

Urtemugek ere zehazten dituzte urte bateko hizketagaiak, eta zabaltzen diote leiho bat perspektibari. Nor izan zen nor, zer egin dugun ordutik. Horien artean, Hegoaldeko hiru museo garrantzitsu aritu dira tartari putz egiten aurretik: Artium Gasteizen, Guggenheim Bilbon eta San Telmo Donostian. Hogeita bosna urte bete dituzte lehen biek eta 120 azkenak. Hiruretan adierazgarriena, baina, Guggenheimen ospakizunek utzitako argazkia izan da ziurrenik.

Lehen unetik piztu zituen kritikak proiektuak, eta museoa martxan hasi ostean ere iraun zuen eztabaidak. 2000. urtean, esaterako, Bilboko BBK-EHU etxean Euskal Soziologia Elkartek antolatutako mahai-inguruetan, Guggenheim «tren baten azken bagoia» zela babestu zuen Javier Salazar Arkitektoen Elkargoko dekanok, eta kultura merkatuak irentsi zuela erantzun Ramon Zallo EHuko katedradunak: «Ez da arterik saltzen: hiria eta eraikina saltzen dira. Ikuskizunari lotutako arte mota ekarri dute». Mende laurdena beteta, ordea, apenas entzun den iritzi kritikorik aurretik; lerro gutxi batzuk baino ez museoaren gestioan 2008an atzemandako iruzurraz, 25 urteek jendearen bizitzetara ekarri duten aldatasunaz, garbitzaileek greban egindako egun luzeek.

Asier Mendizabal elkarrizketatu zuten Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan, urtemuga aitzakia, eta garbi esan zuen hark ere Guggenheimen egiteko nagusia kolpe urbanistiko bat jo eta eredu ekonomiko eta politiko bat ezartzea izan zela; behin funtzio hori bete duenean –inoizko bisitari gehien jaso ditu udan, ia 450.000 lagun– sustatu dituela indar handiagoz arteari lotutako jarduerak. Museoak euskal artistekiko erakutsitako arduraz galdetuta, erantzun zuen ez duela uste haren egitekoa hori izan denik, eta, are, ez duela uste artistak eta euskal artistak bereizteak inori mesederik egiten dionik.

Kanpoan ez gara euskal artistak, gara artistak, eta hemen ere bai. Uste dut dikotomia hori hautsi beharko litzatekeela, eta interesgarriagoak direla horrela lortzen diren etekinak: artistak jarri behar dira artistekin elkarrizketan, bertakotasunaren mania gainetik kenduta.

Agerian geratu dena da etxekotu egin duela euskaldunak titaniozko eraikina eta, oharkabea, baita hark ordezkatzeko duen kultur eredua ere. Zailagoa da jakiten trukean zer irabazi duen. Bilbo munduko hirien mapan letra larriagoz idazten da orain, egia da, eta gogora datorkit Joseba Zulaikak momentuan esan zuen beste hau ere: Guggenheimen ideologoen beste asmoetako bat euskal gatazkak nazioartera zabaltzen zuen Euskal Herriaren irudia eraldatzea izan zela.

Ez dakit ziklo politikoaren aldaketak noraino aldatu dituen kulturgintzako parametroak, baina agian badira seinaleak tentsio kritikoaren beherakada orokorraz ohartarazten dutenak, ez ote den gatazkarik gabeko kultura baten aldeko kultura hedatzen ari ezari-ezarian –sareetako giro gaiztoa aparte utzita–.

Abiadan

Durangoko Azokaren biharamunean bukatzen ditut lerrook, eta astearen amaieran agurtuko da 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusia, udazkeneko kultur orrietara bertsolaritza

gutxitan bezala ekarri duen hitzordua. Sumatu da aldaketarik oholtzetan, eta aldaketarekiko erresistentziak ere bai zenbaiten minetan; baina ezer ez omen da alferrik gertatzen, eta hainbeste astez buru eta gorputz jardun dutenen lanak utziko du arrastorik plazetan.

Nafarroa Arenako festak eta Durangoko Azoka arrakastatsuak kultur urtearen itxiera gozatuko dutela dirudi, bada. Pandemiak murriztutako bi edizioen ostean, elkar hartzeko gogo handia bai, baina beldur puntua ere sumatzen zen Landako gunea hartu aurreko egunetan. «Badaude mehatxu batzuk airean, eta ez dakit oso kontziente garen», zioen Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkarteko kudeatzaileak bezperan. Emaizta eztanda izan da azkenean, eta ibili da jendetza, erakusmahaiak izan dira sormenean bizi-bizirik dagoen kultura baten isla eta salmenta historikoak ere egin ditu zenbaitek. Itzuli dira eztabaidarako foroak ere, eta hori berri pozgarria da, kulturgintzaren bueltan gertatzen ari denaz pentsatzeko leku bat ere bilakatua baitzebilen Durango pandemia aurreko edizioetan. Transmisioa, nazioartekotzea, prekaritatea eta euskal liburugintza diglosikoa izan dira hizketagai aurten, besteak beste, eta honetan ere agertu dira goia jo izanaren zantzuak: honaino ekarri gaituzten politikek askoz harago eramango ez gaituzten susmo gero eta ziurragoa.

Zer egin dute erdal kulturek haiekiko bai halako zorra senti dadin? Zergatik azpimarratzen da gentozen basamortu kulturaletik gaur arte loratu den guztia eta zergatik kostatzen da hainbeste egiteko dagoen guztiari errotik heltzea? EAEko Hezkuntza Lege berrian euskal kultura zehar-lerro izan dadin eskatzeko argazkia egiten segitu behar du sektoreak?

Ez da harritzekoa, edonora begiratuta ere, jauziaren premia izatea ikusten den bakarra. Bai zelai zabalagoetan ari-tuko bagara, atzera urratsak eta iheserako gogoia ez diren zerbaiten promesa bermatuko duen bide bat agertuko bada. Hitza maiztu baino lehen, hemen eta gaur horrek zer esan nahi duen adostea gelditzen da, konplexuak bazter utzita eta abiada hartuta. 🍷





aztiralostreb

Bertsoa atzekoz aurrera pentsatu behar dela esaten da. Txaloaren hurren dauden hitzek behar dutela distira gehien, arrazoiak joan behar duela hor, indarrak. *Txistuak jo dituzue bainan maite zaituztet oraindik*. Formaz (ere) epikoa da bertsolaritza. Eta indar joko bat (ere) bada, eta espektakulu bat, lehia ikusgarri eta morbosoa bat, epaitua, kritikatu, kapital handikoa, gladiadoreen itxura duena, subjektiboa, puntuagarria, taldea eta kolektiboa behar duena baina izen-abizenek kantatzen dutena.

2022. urte hau, pandemia baten ondorio, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren urtea izan da. Asebate gara ia txapelketaren haizez, eta, noski, bertsolaritza ez da txapelketaren logikako jarduna soilik; baina, nahi nituzke txapelketa bueltan sortutako gogoetak zuekin partekatu.

Has nadin atzekoz aurrera. Hauxe izan zen Maialen Lujanbiok 2022ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapela jantzi ostean lankide ohi batek idatzi zidana: «Ez dut ezer ulertu. Nori eskaini dio?». Lujanbioren agurra borrokarako dei moduan ulertu nuen nik, gaur eta hemen jasaten ari garen hainbat zapalkuntzen kontrako oihua. Hori izan zen bertaratutako 13.300 lagunei eta pantailen bidez finala jarraitzen ari zirenei esan nahi izan ziena; irribarre konplizez edo B planik ez dagoela jakinda. Borrokarako deiak, akaso, ulertu ulertzen dira, baina ez dakigu zer esaten ari zaizkigun.

«Aldaketak beti gertatzen dira behar zutena baino beranduago»: aldaketak eragin egin behar dira, baina, pasatu ere pasatzen dira. Aldaketa handikoa txapelketa iragarri zen hasieratik; finalaren lekua zen horietako nabarmenena.

Bizkaiko periferia gentrifikatua utzi eta Hiri Buruzagira, Nafarroaren bihotzera. Karga kultural eta politiko handiko aldaketa izan da, irudipenez, bertsozaleak, oro har, bat egin eta konbentzimenduz hartu duena, eta hori ere ezinbestekoa zen bertsogintzaren norantza bermatzeko. Barakaldoko Bilbao Exhibition Centerren egindako azken finalean, 2017an, entzun ziren finalaren nolakotasuna aldatu beharreko iritzia: batzuek, finaleko sarreraren salmenta medio, hurrengo geltokiak San Mames izan behar zuela zioten; beste batzuek, BEC betetzea ondo zegoela, baietz, bertsolaritzak ere erronka hori bete zuela, baina ikusle kopuruaren gorakada eta hobe-kuntza ez datozela bat, eta, agian, bertsolaritzaren helburu ez duela masak izan behar; txikira apustu egitea dela hobe. Iraultza berdea edo desazkundera.

Gaur-gaurkoz, finalaren nolakotasunari dagokionez, ohol-tzaren kokapena izan da gertarazi den aldaketa; ez horrenbeste bere forma, ikusle kopurua, txapelketaren ordutegia, gai-jartzailearen papera, pantaila erraldoia, ariketak, ariketen ordena, ariketen tonua...

Baina bertsolariak bai, bertsolariak izan dira aldatu direnak, eta hori eragin bezain gertatu egin da. Bertsolaritzaren osasun ona, transmisioa, behetik gorako joera azpimarratzen denetan, lagun batek beti esaten du: bertsolaritzari belau-naldi batek heltzen dio, are gehiago, dozena bat lagunek. Josu Amezaga soziologoak euskal kultura katarro batek hil dezakeela esaten zuen, eta, bertsolaritzaren kasuan, 2001etik Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finala ia bera izan da; bizi-bizi, gizartearekin batera, ausart aurrera zihoan kultur adierazpide oso baten isla zen argazkian, zortzi lagunetatik aurpegi berri bat izan da gehienera. Jon Maiak izendatutako belau-naldi *berria* agertzen zen kinieletan, bertsozaleen gogoan eta plazetan. Nik uste dut oso faktore konkretu eta bereziak izan dituen belau-naldia izan dela. Jon Maia, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Unai Agirre, eta, anakronikoki, Sustrai Colina eta Amets Arzallus ere zakuan sartuko nituzke, bertsogintza

sozialaren lehen generazioa izan dira, euren distira eta ekitez, baina baita denbora eta leku baten ondorio ere. Kontu honekin gehiegi katramilatu gabe, esan nahi nukeena da belaunaldi hori izan dela txapelketetan arrakastatsuen, eta, ondorioz, plazen jardunean gehien, eta, horregatik, txapelketetan nabarmenen, eta, beraz, plazetan ere desiratuen ibili dena. 2017ko finalisten artean bik esan zuten ez zutela parte hartuko, eta 2022an hiru gorputz berri izan dira finalean. Batzuetan irudipena dut aldaketak hala pasatzen direnetan egoten dela lehiari oso loturiko sentsazio zabaldu bat; irabaztea besteak garaitzea dela. Eta badagoela ahoz gora esan gabeko uste orokortu bat, oraindik ere, aurkeztu izan balira, *belaunaldi berrikoak* beraiek leudekeela finalean.

Maialen Lujanbio bera ere izan da uste horretatik irakurria. Aitor dezadan nik ere aipatu nituela txapelerako beste hautagai batzuk, eta, inguruan ere, bateren eta besteren izenak entzuten nituen. Maialen txapelketan zehar ez entzuteagatik izan daiteke hori, eta, aipatu dugun diziplinaren osasunari begira, seinale ona da, akaso, izen bat baino gehiago egotea punta-puntan. Ordea, Maialenen final bezperako elkarriketak irakurri eta finaleko lehen ofizioa entzun ostean, bere-berea duen ebidentzia eta argitasunaz ohartu nintzen beste behin. «Klaro, onena da». Andoni Egañak lau Euskal Herriko txapel jantzi zituen jarraian, eta finalean beti zen bera gehienen faborito, garaiezintzat jotzen genuen ia. Txapel honen aurretik, Maialen errazago genuen tronugabetua, Maialen onena eta emakumea delako.

Hori da azpimarratu nahi nukeen beste aldaketa bat, finaleko, eta txapelketan zeharreko, emakumeen presentzia. Kuantitatiboki eta kualitatiboki ikusgarria izan da aldaketa. Aldarri feministak, bertsolariengandik ez ezik, hedabideetatik eta publikotik ere etorri dira; feminismotik ari da bertso-laritzaz egiten, eta bertsolaritzatik ere zedarritzen ari da Euskal Herriko mugimendu feminista. Sortzen dit irrika eta sortzen kezkak. Luze aritzeko gaia da. Txapelketari begira iruditu zait kritika feminista egiteko oraindik tresna gutxi ditugula,

bertsolariei babesa adierazteko moduez ere badagoela zer gogoetatua, eta, bertsolaritzaren baitan, feminismoak ere baduela transmisioaren ardura.

Bertsolaritzaren eta feminismoaren arteko uztartzearen antzekotasuna bertsolaritzaren eta gazte mugimendu batzuen artean ere badagoela esango nuke. Bertsolaritza eta bertsolariak begirada, ideologia eta esparru jakin batzuetara heltzeko baliatu dira, eta, ezinbestean, kera horiek ere txertatu dira bertsolaritzan. Agian, gaiei eta diskurtsoei begira oraindik ez modu nabarmenegian, baina, bertsozaletasunari dagokionez, historikoki, batik bat, hizkuntzatik eta nazio ikuspegitik eraiki izan den publikoa beste leku eta arrazoi batzuentatik dator orain, eta hori, nire ustez, interesgarria da oso.

Txapelketaren bueltekin amaitzeko, zirriborroan eta narras irudikapen batzuk: bertsolaritzak lortzen du jendea emozionatzea, jendea batzea, jendea harrotzea. Ordea, herria ez da jendea. Zer egin sarreraren prezioarekin? Denok al dugu kulturarako sarbidea? Borondatezko lanetan nor dabilta? Euskara hutsez, hitz hutsez ari gara sortzen. Eta hori, bizi dugun testuinguru honetan, transgresorea da. Hedabideek txapelketari egin dioten jarraipena handia izan da, *El Diario Vasco*-tik hasi eta hiru-lau podcast propio izateraino. Ahots ugarik batera hitz egitean badakigu zer sortzen den. Zein gairi ari gara kantatzen? Zeini ez? Plazetan jartzen diren gai literario, festazale edo espermentalek ezin al dute lekuri izan txapelketan? «Zuek bi ikerlari zarete» beharrean kanta al dezakete bi molekulek, edo esperantzak eta lotsak, edo galderetatik abia al daiteke ofiziorik? Beti sortzen al du bertsolariak? Epaimahaikoen izenak entzuten ditugu, baina, apenas jartzen diegu aurpegirik. Txapelketan, bertso-saioa puntuazioen arabera agurrekin amaitzen da. 659,50. 737. 608. Eskuragarri egoten da ariketa bakoitzean epaileek jarritako puntuazioa. Uste dut, epaimahaiaren lana ulertu, baloratu eta hobetzeko, entzulearen eta batez ere bertsolarien osasun mentalerako, puntuazioaren azalpena ematea positiboa litzatekeela, berariaz eta pertsonalki, purrusta soinu

eskatzen aritu gabe. Zer gertatzen da txapelketa nagusian kantuan ari ez diren bertsolariekin? Zer, parte hartzeko aukera izan eta parte hartzea erabaki ez dutenekin? Non egiten da txapelketarako prestaketa? Nola entrena daiteke? Nork norekin egiten ditu bertso-eskolak? Bakoitzak bere kasa bilatu behar ditu moduak edo eskain daitezke baliabideak?

Aurten izan dut lehenengoz Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa bat oholtzatik ezagutzeko aukera, eta izugarria da parte hartzaileengan dagoen sufrimendua, izan antolakuntza lanetan dabiltzanak, izan bertsolariak, zenbat ordu, zenbat eskizofrenia, zenbat antsietate. Gozotik jasotzeko edo. Ez dakit nola bestelakotu litekeen hori, bestelako al litekeen, konturatzen al garen zer-nolako hegoak sortzen dituen bertsolaritzak, edo kulturgintzak, botereaz ari garela-ko, nor izateaz, eta derrigor ote den saltsa hori gure miseria geroratzeko bide.

Akaso ez du emango, baina nik ere borroka irabazi nahi diot desesperantzari. Ez nago ezkor, egon nahi nuke ezker, esker oneko talde bati, bere zati eta bere parte uzten digulako izaten, eta esaten asmatzen ari garelako kantuz, lantuz eta espantuz betetzen ari den egunerokotasun honetan. Esku onetan dago bertsolaritza, ez dagoelako bere esku etorkizuna. Lizuna, isuna, garizuma, bizuma. Atzekoz aurrera pentsatu behar da bertsoa. Amaieratik hasierara. Hau, zer da? 🍷



- Zuhaitzaren adarrak zeruraino hel daitezzen,
sustraiek infernua jo behar dute.

C. S. Jung

Alfonbra itsasoa da

Uste dut inori ez zaiola askorik inporta zinema. Batzuetan, horrek tristatzen nau; besteetan, niri ere ez zait askorik inporta. Ez dut esango nire ingurua literaturarekin, arte plastikoekin eta antzerkiarekin zoraturik ikusten dudarik, baina nik –neure bista motzak– zinemaren bilakabidea sumatzen dut zartatu samartuta. Hautsia bera, eta hautsia haren eta ikusleen arteko lotura.

Akaso Isaki Lacuestak arrazoi izango du *Berria*-n esandako honetan:

Beti bilatzen ditugu berritasuna eta berrespina, eta uste dut gaurko ikusleek gehiago bilatzen dutela berrespina zineman. Teatroan alfonbra itsasoa dela ulertzen duen ikusle hori bera zineman kontserbadoreagoa da oraintxe. Nobela batean normalak diren egiturak konplexuegiak dira filmetan.

Egia esan, ez dakit zinema ikusteko eta bizitzeko bestelako girorik ezagutu ote dudan. Batzuetan iruditzen zait zinema –zinema *bat?*– mundutik aparteegi dabilela, eta besteetan, berriz, gertuegi, barruregi sartuta bezala.

Jean-Marie Straub eta Daniele Huillet zinemagileei buruzko liburu batek izenburu hau du, gutxi gorabehera: *Iraultza egitea zera da, gauza oso zahar baina ahaztuak beren tokian jartzea berriro*. Hori izango da, agian: gauzak beren onetik aterata daudela. Zeren, zinema gauza iraultzaile bat baldin bada –urrutira joan gabe: nahikoa da barru haize eta kanpo aire batzuk azpikoz gora jartzea–, desirak egiten du horrelakoa: beste bizitza batean bizitzeko aukerak.

Bada, baliteke beste bizitza hori egotea gaur denon bizitzetan integratuegi. Etxeratu, afaldu, telesail bat ikusi, lotaratu.

Telesailak eta zinema gauza bera ote diren eztabaidan hasi gabe –nik garbi sentitzen dut ezetz, batak sortzen didan asperduraren pareko zirrara pizten didalako besteak oro har; baina bien arteko muga apetatsua da, bai–, *zerbait ikustea* lalnaldiaren parte da ia, eta horrek are gehiago kodifikatzen du zinemarekin dugun harremana –ez dut uste merezi duenik formen konbentzioei buruz hizketan hastea ere–. Errutinak ez al du desira itotzen?

Dena dela, ikus-entzunezkoen zentraltasuna begi bistakoa da. Plataformetako telesail berriaren gorabeherek berdin betetzen dituzte lantokiko bazkalordu lehorrak eta tabernako lagunarte bustiak, eta bat agortzerako agertzen da hurrengoa. Litekeena da telesailen kontsumo masiboak nostalgia bati erantzutea: hizkuntza zinematografiko galduari, kontakizun klasikoari. Horra, beraz, bereizketarako marra bat –apetatsua hau ere–: zinema hautsita dago, eta telesailak, osoegi.

Apurketa baten ondorioa izango da, bestalde, irudi mutuen itzulera. Nik halatsu bizi dut, behintzat, sare sozialek modu automatikoan soinurik gabe erakusten dituzten bideoak osorik horrela ikustearen esperientzia. Eta kontrako erreian doaz podcastak, aldiberekotasunaren errepidean. Beste zerbait egin bitartean ikusteko eta entzuteko moduko gauzak.

Horregatik izan ditut urteko esperientziarik atseginenak zinema aretoetan, segur aski: fetitxeagatik baino gehiago, ez dagoelako banaketa posiblerik. Bi proiektzio ditut gogoan bereziki: urrian, Imanol Rayoren *Bi anai* (2011) eman zuten Andoaingo Bastero kulturgunean, eta, maiatzean, Jose Antonio Sistiagaren *Ere erera baleibu izik subua aruaren* (1970) Donostiako Tabakaleran.

Rayoren filmean, ezin bereizizkoak iruditu zitzaizkidan proiektorearen *trrr* hotsa, erlojuaren tik-tak astuna eta irudien itxura lehorra. Sentitu nuen hor bazegoela irautera jotzen duen zerbait. Formatua bera, hasteko: 35 milimetroko filma proiektatu zuten, eta badakigu film analogiko batek, behar bezala zainduz gero, lauhun urte iraun ditzakeela; artxibo digital baten euskarriak iraungo al du hainbeste?

Nostalgia-rik ez batere, analogikoa eta digitala, biak baitira gaur-gaurkoak. Edozein modutan, *Bi anai* filmak lortzen duen orekak, gizakien, animalien eta naturaren elementuen artekoak, badu lotura bat denboran irautearekin.

Ere erera baleibu izik subua aruaren filma digitalean pantaillaratu zuten, zaharberrituta. Sistiagak, 90 urte bete berritan, esan zuen kopiak oraindik ukituren bat behar zuela, koloreren bat aldatuta nabaritu zuelako. Handinahirik gabe aritu zen aretoan geunden ikusle apurretako batzuek galdetu ziotenean nola demontre margotu zituen eskuz ehun mila fotograma. Bada, margotuz; hasi, eta segi. Horrelako zerbait erantzun zien hark, esplikaziorik beharko ez balu bezala.

Mugarik gabeko zinema bat da hura, likidoa, aldakorra, galaxia osoak biltzeko gai dena fotograma bakarrean. Bidaia kosmiko bat. Eskertzekoa da halakoak proiektatzea, eta are gehiago filma mutu uztea, soinurik gabe. Uste dut ez dagoela hari begiratzeko modu hoberik. Izan ere, filma bere horretan erakustea zinema bere hautsian onartzea ere bada.

Dena eta ez dena

Filmak aretoetara iristen tematzen dira astea joan eta astea etorri, eta horietako bakarren batek –bakanen batek– euskaraz egiten die ikusleei, gainera. 2022an, animaziozko hiru lanek: *Orkestra Lurtarra* (Imanol Zinkunegi, Joseba Ponce), *Black is Beltza II: Ainhoa* (Fermin Muguruza) eta *Unicorn Wars* (Alberto Vazquez) pelikulek.

Errenteriako Niessen zinemetan ikusi nuen Vazquezena; nik dakidala, soilik areto horrek estreinatu zuen euskara hutsean aurreneko asteburuan. Ilara berean eta ia elkarren ondoan esertzea suertatu zitzaigun han ginen hiru ikusleoi; bikote bat eta ni. Hasi zen filma, eta hara non, pertsonaiek lehen hitzak esan zituzten unetik, barrez lehertu beharrean ibili ziren biak, eta ez esandakoek grazia egiten zitelako, ezpada ezin zutelako sinetsi filma, areto batean, euskaraz ari

zitzaienik («*no me lo puedo creer*»). Zorionez, berehala alde egin zuten, ni bake-bakean utzita.

Zalantza handirik gabe, Arantza Santestebanen *918 gau* izan da urteko euskal filmik esanguratsuena. Hasieran aipatutako iraultza ekarri duelako, besteak beste: mamiz betea eta forma zorrotzekoa. Irudi berrien beharraz ohartarazi du, irudirik gabeko mundu batetik abiatuta. Zinema hautsita ageri da hor ere –nork sortzen ditu irudiak?, zer helbururekin?–, baina haren gisa bereko pitzadurak dituzte militantziaren narrazioek, eta, bateko eta besteko puskak modu iradokitzailean bilduz, filmak bide interesgarri askoak zabaldu ditu, alde guztietara.

Santestebanek makinatxo bat proiektziotan parte hartu du, gainera, eta esango nuke horietan jakin-mina eta debatea piztu direla maiz. Horregatik harritu nau espero baino komentario eta gogoeta gutxiago irakurri izanak sareetan eta prentsan. Ospatzekoa da, noski, ez-fikziozko zinemaren zirkuitan izan duen oihartzuna eta harrera beroa, baina zer pentsatu ematen du besteak ere.

Saiakera zinematografikoaren generoak tradizio handia du; azken urteetan, ordea, errotu da euskal zineman, egile emakumezkoen bidez, kontatzeko moldeei eta gorputzei orain arte ez bezala erreparatuz. Hor dira, besteak beste, Maddi Barber, Iratxe Fresneda, Lur Olaizola eta Maider Oleagaren lanak, eta zinemaldietan egin dituzten bide emankorrak.

Euskal zinema horrela zabaltzen ikusi arren, fikzio mota bat abandonatu antzean dagoen inpresioa ere badut. 2023an etorriko da Paul Urkijoren *Irati*, «gu ere gai gara!» oihukatzen duen handitasun batekin, eta gabezia bat ere bistaratuko du paisaian.

Izan ere, izeberga bi aldeetara hazten denez, egin gabeko filmen pisua gero eta nabarmenagoa iruditzen zait. Adibidez, *Natasha* ez da film bat, baina hala behar zuen hasieran. Koldo Almandozek eta Aritz Truebak sortu dute komikia, Almandozek idatzitako gidoi bat berreskuratu eta gero. Zinemagileak *Xabiroi* aldizkariko elkarrizketan esandako honek zirrara mingotsa eragin zidan:

Ezin izan genuen filma aurrera atera, ETBk ez zuelako interesik adierazi. Euskarazko film bat egiteko, ETBtik pasatu beharra daukazu. Horrek galdera asko uzten ditu airean: ikusita ETBri zer pelikula interesatzen zaizkion, akaso gazteleraz edo beste hizkuntzaren batean egitea da bidea. Zeren, euskaraz, film garai-kideak egitea ia-ia ezinezkoa da.

Hori entzunda, bati gogora datorkio Jean-Luc Godardek hasi eta Jacques Rivettek biribildu zuen aforismoa: film bakoitza bere filmaketaren dokumentala ere badela. Euskal zinemak leiho gutxi zabaldu dizkio bere iragan hurbilari, eta, ondorioz, une bakoitzeko gaiei, galderei eta desireri; eta, jakina, janzkerei, kaleei eta aurpegiei ere bai. «Garaikidetasun desertu batean bizi gara», Almandozen hitzetan.

Paulino Viota zinemagile eta irakasleak idatzitako honek grazia handia egin dit, 1970eko eta 1980ko hamarkadetako Espainiako zinemagintzari buruz ari den arren, ez dagoelako urrun euskal zinemaren gaitz horretatik: «Egin dugun zinema, ez dakit, ez dakit, baina a zer zinema ez dugun egin!».

Pantailak ezkaratz

Gero eta sarriago entzuten diet ingurukoei ez direla zinemara joan aspaldian, eta aretoen gainbehera agerikoa da –nahiz eta, egia esan, gutxitan ikusi ditudan beteta–. Oroimina eta hondamendia harrotzeko beharrik gabe, pentsatzekoa da aldaketaren bat etorriko dela lehenago edo geroago. Asteroko estreinaldiak arazoa dira? Proiektzioek ekitaldi izan behar dute? Dena dela, etxeko esperientziak indarrak biderkatu ditu azken urteetan, eta, gaur, etxea da zinemaren plaza nagusia, dudarik gabe. Eta, niri neuri, zinema kontuetan, Internetek ekarri dit hezibidea, beste ezerk baino askoz gehiago; nagusiki, deskargen komunitateak.

Estrategarik baldarrenak ere badaki erdarazko filmak euskaratzea egin beharreko lana dela. Eta horretarako politika batzuk ezarri beharko direla esatea ere pellokeria bat izango

da. Alde horretatik, aurten albistea izan da *streaming* plataforma batzuek euskaraz azpidatzi eta bikoiztu dituztela beren katalogoetako zenbait film, antza denez, ERC alderdiak Espainiako Gobernuarekin adostutako lege bat konplitzeko. Alegia, posible dela *eragitea* eta gauza batzuk benetan astintzea.

Berria-k Amagoia Gurrutxagari eta Joxean Muñoz eginadako *Ahomentan* elkarrizketan, Muñozek, berriki Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuorde aritutakoak –aholkulari dabil egun–, galdera gaizto bat egin zuen: «Lortu da Netflixek zati bat euskaraz egitea. Baina nork ikusiko du gero?». Ez dut inolako daturik, baina pentsatzen dut Pantailaldiari bultzaka aritu direnek izango dutela kexarako motiborik.

Aitortzen dut, lotsa pixka batekin, nik ez dudala euskaraz azpidatzitako pelikula bat bera ere ikusi aurten etxean. Azken urteetan ikusi ditudanak *Azpitituluak.eus* webgunetik jaitsi ditut, eta gehienak boluntarioek itzuli dituzte. Izan ere, *Zer non ikusi* guneko katalogari begiratzen diodanean, neure kolkorako errepikatzen dut Muñozek botatako galdera –eta uste dut nik eginez gero ez dela horren gaiztoa: instituzioei badagokie ardura hori–. Kalitateari buruzko eztabaida aparteko kontu bat izango da, baina, ezarian, behin eta berriz bururatzen zait gaia.

Pantailak beste mundu baterako ataria baldin badira, sartu orduko euskara erantzi beharra dago aurrera egiteko. Etsigarria da, esaterako, asteburuetako estreinaldi guzti-guztiak erdaraz iristea herri orotara. Horregatik poztu ninduen Zinuemak, Uemak euskarazko zinema sustatzeko abiatu duen programak. Baina berriro marmarra, katalogari begiratu nionean.

Hala ere, hori izango da egoera aldatzeko bide zuzena, seguru: gertuko erakundeek sustatzea udalen aretoetara filmak euskaraz ekar ditzaten, eta hortik gorako gobernuei eskatzea laguntzeko sortzen, ekoizten eta zabaltzen. Baina pentsaezina al da, zer dakit bada nik, Donostiako Zinemaldiko Perlak saileko filmak euskaraz banatzea gero? Burutazio txoro

bat besterik ez da, baina transnazionalei eskakizun gutunak idazten baino erosoago nengoke bide horretan pauso txikiak ematen.

Soluzioak presa pixka bat ere izango du, gainera. Ez da lan erraza arraro bihurtutakoa etxekotzea, denean arrotzu baita ikuslea, berdin filmetako euskaran eta ezohiko formetan. Eta erreparatu beharko zaie, hausturekin itsutu gabe, pantailaren bi aldeetako zuloei eta ezinei. Inori inporta baldin badio, behintzat. 🐞



Giro lehorrak uzta ona ekarri du oholtzara

Ortuetan izandako lehorreak eragina izan du, ez da beste urte batzuekin alderatutako uzta izan. Arte eszenikoetan urte erdi pandemikoak ekoizpen ezin interesgarriagoak utzi ditu, ordea. Formatu handiko ikuskizunak ekoiztu dira gai interesgarri eta zorrotzak taulara ekarriz. Formatu txikiko antzezlanetan, sekulako gai eta proposamen aberatsak izan ditugu. Emakumeek ereindako haziak eduki eta forma eszenikoetan zapore itzela utzi digute. Formatu txikiko antzezlanekin zirrara handiak bizitzeko aukera izan dugu.

Karramarrotik krokodilora salto egin du Eneritz Artetxe aktoreak *Lakoste* antzezlanarekin. Aurreko antzezlanean eza-gututako pertsonaia bera ekarri du taula gainera, krokodriloa erraldoiarekin. Karramarroa 50 urteko emakumea da, bitxia, zorrotza eta mihiluzea. *Lakoste* antzezlanarekin *Karramarro* antzezlanari jarraipena eman dio. Umore absurdoa eta bufoiaren teknika lagun, kritika sozial eta ironiaz bete du lana. Zer eta lehenengo pertsonan bizitza bera taula gainera ekarri du gernikarrak. Oraingoan ikusleoi begiratu gaitu zuzenean eta hainbat gai ekarri dizkigu. Hala nola aktorea izatearen pobrezia, familia estandarra, krokodiloak eta Euskal Herriko sekretu nazionala: menopausia. Bizitzaren ibilbidea egiten du, gatzetatik zahar etxeraino. Gorputza ahotsarekin bateratuz, izugarritzko jolas eszenikoa eskaintzen du Artetxek. Aktorearen gorputza eta ahotsa teatro jolasean nahasten ditu, zentzu, zeinu eta zirrikitu ezberdinak aurkituz testuaren hitz bakoitzean.

Luze edo motz lanak Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik eginiko bakarrizketak biltzen ditu. Sei bakarrizketa umorea eta generoa uztartuz. Hemen ere gaietako bat menopausiak

eragindako sofokoak dira. Baina gai hori, sekretu nazionala antza, umorez eta errealtatez oholtzara ekarri duena Bea Egizabal izan da *Magma mia* bakarriketan. Sistema heteropatriarkalak emakumeari eragiten dizkion minak eta sufrimenduak aztertzen eta zerrendatzen ditu bakarriketan. Emakume heldu gisa agertzen zaigu, eta, bakarriketa aurrera doan heinean, zerrenda handitzen doa. Menopausiari eskainitako pasarteak egiatik ekarriak daude, umore zorrotzez, ikuslegoaren konplizitatea bilatuz. Agian, sekretu nazionala ez da hain sekretu izango. Egun laster batean, emakumeok konkistatutako eszenatokian orain arte eramandako gerri bueltako flotadorea askatuko dugu eta libre hegan egin.

Mamiak kolektiboak Josefa de Mugika emakumearen ahotza ekarri du *Ogiak hizketan baleki* antzezlanean. Josune Velez de Mendizabalek gorpuztu du 1836an kokatutako istorioa. Kazetaritza performatibo gisa definitu dute lana, hau da, ikerketa kazetaritza eta arte eszenikoak zeharkatzen dituen artefaktua. Gasteizko historian ezezaguna bezain latza den gertaera da ardatz, Jose de Elozegi okinaren gertakaria. Okina exekutatu behar dute, garrotez hilko dute traidore izateagatik, Gasteizen 1.200 soldadu ingelesez heriotzaren errudun dela baitiote liberekin. Taula gaineko kontakizuna haren emazteak egingo du; eskuekin ogia egiten duen bitartean, gertaera latzaz mintzatuko da. Baina, kasu honetan, historiaren pasarte horren berri emateaz gain, antzezlanak interes handiagoa pizten du gertakaria emakumearen ahotik kontatzen zaigulako, haren iritzia eta orduko emakumeen ikuspegia agertuz. Aktoreak, gainera, ederto egiten du salto gaur egunera. Eszenaratzeari dagokionez, aipagarria ogia egiteko erabilitako elementuak, bukaera indartsu eta ikusgarria ekarri.

Hasieran aipatu bezala, arte eszenikoetan lan handiagoak ere ikusi ditugu. Horretan ere ez da lehor geratu aurtengo uzta. 2016an Altsasuko Koxka tabernan bi guardia zibilekin eta horien bikotekideekin izandako liskar baten harira Auzitegi Nazionalak epaitutako zortzi gazteen kasuaren inguruko interpretazio fikzionatua planteatu du La Dramática

Errante konpainiak. Lau aktorek tabernako eszenatik hasita epaiketara arte gertatutakoaren kontaketa egin dute, hamai-ka pertsonaia gorpuztuz, argiztapen ederrarekin ikuslegoa istorioan saltoka eta kolpeka murgilduz. Azpimarratzeko eszena epaiketa bera izan da. Sententzia jakitera emateko momentu latza: ikuslea jakitun da emaitzaz, baina eszenaratzeak besaulkian mugiarazi gaitu, mina areagotu digu. Baina kontaktetan bada deseroso sentiarazi gaituen zerbait, guardia zibilen amen mina eta Altsasuko gazteen amen mina parekatu nahi izana. Sortzaileen hitzetan, ispiuaren aurrean jarri nahi izan dute ikuslegoa, «ezer ezin du hemen aurkitu bere egia bakarrik bilatzen duenak, bere kontsignak bakarrik dituenak», esan dute. Taldeak txaloen momenturako kantu bat jartzen du beti, edo hori da azken sormenetan ikusi izan duguna. Oraingoan, kantuaeren aukeraketak, gure uste apa-lean, ez dio inongo mesederik egin antzezlanari.

Bestelako gertakari batzuk ekarri dizkigu Olatz Gorrotxa-tegik *Mierda de ciudad* ikuskizunean. Western musikala baliatuta, euskal rock erradikalaren historiari buruzko teatroa sortu du. Indiarrak eta cowboyak, euskal rock erradikala eta folklorea aurrez aurre borrokan jarri ditu. Musikaren bitartez gure herriak bizitako gertakariak errepasatu dira oholtzan; migrazioa, langile klasea, hizkuntza, mugimendu sozialak... Objektuen teatroarekin Bilboko Gaztetxearen desalojo bortitza berriro bizi izan dugu, bideo eta soinuaren erabilpenak orduko gizartera bidaia egitera eraman gaitu, eta, bide batez, belaunaldi oso baten soinu bandari errepaso miragarria eman diote.

N.E.V.E.R.M.O.R.E. antzezlanaz ez da bertoko uzta izan, baina *Prestige*-ren tragedia maisuki gogorarazten duen antzezlanaz da, eta gure herriko antzoki gutxitan ikusi izan da. Hura gertatu zenetik 20 urte bete direnean iritsi da gure teatroetara. Hondamendi hura ere gurera iritsi zen eta belztu zuen kostaldea. *Prestige* ontziaren hondamendiaren urteurrena baino lehenago estreinatzea erabaki zuten. Izan ere, hondamendi hura garbitzeko erabili ziren traje zuriak berriz ere protagonista bilakatu ziren pandemiaren hasieran; hortik

egindako loturaz, kokapen eta kontaketa bikaina ekarri du Chévere taldeak. Hondamendi ekologikoaren gertakizun latza teatro jolasari esker agertokian ikusi genuen. Oholtza aterki beltzez josita, itsasoko soinuarekin besaulkitik marea beltza ikusi dugu kostaldea zipriztintzen. Antzezlanean soinua ere ezinbesteko elementua izan da.

Ingurumenean izandako kalte ikaragarriez gain, hondamendi politikoaren kontaketa zorrotza egin dute, politikariek esandakoak gogora ekarriz. *Prestige* itsasontziko kapitainak kostaldeko agintariekin izandako elkarriketen antzezpenak taularatu dira, ia teatro absurdora eramanez. Ikusle bezala jakitun gara hartu ziren erabaki horiek hondamendia biderkatu zutela.

Hondamendiaren gertakari asko ahanzturan gera ez daitezzen izugarritzko ahalegina iruditu zaigu. Antzokian Galiziako kostaldera bidaiatu dugu elementu gutxi batzuk erabiliz eta soinuari izugarritzko garrantzia emanez; izan ere, itsasontzia hondoratzear zegoen unea bi aktorek taula gainean hitzez kontatu badute, zuzeneko soinuaren manipulazioekin helikopteroak, olatuak eta petrolioak entzun ditugu.

Gurean, Artedrama eta Axut! taldeen elkarlanak *Hondamendia* antzezlanea ekarri digu. Denboran eta geografian gertuagoko tragedia ere hartu dute abiapuntu. 2020ko otsailaren 6an gertatu zen hondamendia: Zaldibarko zabortegia amildu eta bi langile hil ziren. Handik gutxira, alarma egoera piztu eta mundu osoa astindu zuen pandemia iritsi zen. Bi gertakari horiek ardatz hartuta, indar eta egitate handiko antzezlanea ondu dute. Agertokian, arropa da zaborraren metafora. Zuzeneko soinua eta argia artisauen lana da, aktoreek mugitu eta manipulatzeko dituzte argi eta soinu iturriak. Argitasunean eta soinuen burrunban agertzen da politikarien ustelkeria. Aipatzekoa da hedabideen inguruko irakurketa zorrotza.

Uzta emankorra izan da, aipatu gabeko beste hamaika lan interesgarritz gozatzeko aukera ere izan dugu. Mundua hiltzen ari dela dirudien honetan, antzerkia bizirik dago. Eszenak ereiten jarraitzen du, sasoian sasoiko istorioak ekartzen dira.

Antzerkiaren uzta ederra bizi dugun momentuari begiratzen diona da; horrek hilzorian dagoen horri mina areagotu ala sendagaia eskainiko dio.

Antidinamikak

Saretzea, elkar ezagutzea, esperientziak konpartitzea, ahulgu-neak ezagutzea eta partekatzea, gure beharrak eta erronkak zein diren konpartitzea... Hori guztia eta gehiago dira emakumeak azken urteetan esparru ezberdinetan aurrera eramaten ari diren ekintzak. Aurten Euskal Herrian arte eszenikoetan ere hori egiteko aukera izan dugu. EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak Antzerkizale Feministen Topaketak antolatu ditu lehenengoz. Gonbita luzatu eta parte hartzeko aukera paregabea eskaini digute. Irekiak bezain itxiak izan dira. Irekiak, elkarteak osatzen dugunok parte hartzeko gonbita izan dugulako; elkarteak askotarikoa izanik, aktore, antzerkizale, kultur langile edo kideek parte hartzeko aukera izan dugulako. Itxiak, topaketa feministak izan direlako, eta horrek jada feminista ez den orori ateak ixten dizkiolako.

Asteburu batez Ozaetako Garaion Sorgingunean elkartu gara. Espazioa bera topaketen beste protagonistetako bat izan dela esango nuke; izan ere, horrelakoetan inguruak lagundu edo traba egin dezake. Iraileko ilargi beteak hartu gintuen. Garaion Sorgingunea leku ezin ederragoa da sortzeko, elkartzeko, elkarrekin bizitzeko eta, izenak dioen moduan, sorginkeriak egiteko.

Iraileko asteburu horretan bizitakoak arrastoa utzi dit. Asteburua egoteko zen, elkarrekin egoteko, eta ez zer garen esateko edo ez beste ezer egiteko. Horretarako, hasieratik dinamikak eta ekintzak planteatu beharrean, antidinamikak izan ziren asteburuko bizkarrezurra. Dinamikak alde zuzenetik zehaztuta egon beharrean, guk geuk proposatu eta antolatu genituen. Horrek, noski, bertaratutakoen interesak eta nahiak piztu zituen. Esaterako, nik aspaldi ez dut

antzerkia lanbide, baina aktore lanetan aritzen naiz. Hortaz, nire kezka eta lanbidez aktore denarenak oso ezberdinak izan daitezke. Oinarria bertaratu ginen emakumeok antolatu genuen, bertan egin nahi genuena adostu eta baita asteburuan berba izan nahi genituen gaiak azaldu ere.

Bidaide ederrak izan genituen antidinamikak borobilean antolatu ahal izateko. Horrelakoetan izaten diren urduritasunek segituan egin zuten hanka gorputzetik, eta esango nuke konfiantzaz, zintzotasunez berba egin ahal izan genuela. Gai asko azaleratu ziren borobilean: osasuna, gaixotasuna eta kultur lana nor eta emakumea izanda. Protagonismo soziala, ikusgarritasuna, antzerkizaletasuna, emakume artisten existentzia, zer-nolako harremana dugun edo nahi dugun erakundeekin eta gure buruaz beste ez egin? Ipuinak kontatu, abestu, barre egin, mozkortu eta konkortu...

Adin tarte eta esperientzia ezberdinetako antzerkizaleak bageunden ere, beste behin esparru askotan entzun eta bizi diren kezka berak azaleratu ziren. Lanbidearen ziurgabetasuna, autonomo izatearen madarikazioa edo ibilbidean bakarrik sentitzearen sentsazioa.

Antidinamikei bukaera emateko, gizonen gorputzean sartu eta bertaratutako fikziozko kazetariei asteburuan gertatutakoaren berri emateko asmoz prentsaurrekia egin genuen. Kazetari gisa ez dut sekula horrelako prentsaurrekorik bizi izan, baina gustura egingo nuke bertan esandakoaren letraturua: Antzerkizale feministak ekintza bateratua egingo du Euskal Herriko antzokietako atarietan, adi astelehenean.

Teatro bizia, klasikoen balioa egungo ikuspegitik

Testu klasiko esaten zaien horiek, oraindik ere, gaurkotasuna dute, eta horregatik dira klasiko. Ikaragarria da 1603an idatzi izan zen testu zahar batek egun jendearengan eragitea, barrenak mugiaraztea eta, orain, XXI. mendeko gizartean, bizi ditugun arazo askoren isla izatea. Horregatik taularatu eta ikusten

dira. Bertsio eta egokitzapenak etengabe egiten dira eta egin izan dira. Halako antzezlanek, gainera, publikoa erakartzen dute. Arrazoiak bila hasita, gaurkotasun etengabe hori arrazoi nagusia bada ere, ustezko historiaren parte bat ezagutzea bada agian ere ikusleak antzokietara joateko arrazoia.

Baina zer da benetan orainaldi honetara, egungo teatrorara, lan klasikoak ekartzea. Horra zalantza klasikoa. Zer gertatzen da antzezan klasikoa bere horretan, sortu zen bezala, aldatu gabe taularatzen denean? Bada, horrek suposatuko luke ikusleak ere sasoiko eran konportatu beharko lukeela antzokian, eta, performance ederra balitz ere, pentsaezina da. Horregatik, testu klasikoak behar bezala eguneratzen direnean, oraingo begi eta gorputzetatik egin ohi da, edo horrela egin beharko litzateke behintzat. Orduan, nola moldatu antzerki klasikoa lan garaikidea izateko? Galderak mila erantzun izan ditzake. Sortzaile bakoitzak erantzun bat eman dezake, jakina. Aukeretako bat antzezlana berriz idaztea eta klasiko horren berrirakurketa garaikidea egitea da. Horixe bera egin dute La Dramática Errante konpainiako kideek Federico García Lorcaren *Yerma* antzezlanarekin: Lorcaren klasikoaren erabateko egokitzapena egin dute *Yerma* lanarekin. Sortu berri duten testuak Lorcaren berba bakar bat ere eduki ez arren, bere esentzia osoa mantendu du, bere min eta garraztasunaren tanta txikirik galdu gabe.

Lorcaren hitzik gabe Lorca egitea lortu dute. Izan ere, antzezlanaren egitura eta eszenak Lorcaren *Yerma*-ren berdinak dira. Akzioa egun kokatuta dagoenez gero, gaurko pertsonaiak dira protagonista eta hemen bizi ditugun egoerak dira eszenak. Lorcaren antzezlanean, Yermak seme-alabak izan nahi ditu, bere inguruan bizi diren emakume ezkonduak bezala; gizarteko arauak agintzen duten lez, ama izan nahi du. Baina, ezin duenez, zamatik askatzeko senarra hil beharra dauka.

La Dramática Errante taldearen proposamenak ezin hobeto heltzen dio gaiari. Egungo emakume askoren ezintasunak dakartza taulara, egun seme-alabak izateko ezintasuna duten emakume askoren sentimenduak eta bizipenak erakusten dira.

Hortaz, 2022an 1934ko tragediaren irakurketa berria dakar, tragedia egungo begi eta gorputzetatik ekarria. 2022ko *Yerma*-k ez du Lorcaren hitzik, euskaraz ari da, eta Andaluziako idazlearen obra du ispilu eta sorburu. Bilboko emakume artista ospetsu bat da Maria Goirizelaiaren bertsioko protagonista, eta negozio-gizon arrakastatsua senarra. Bizitza sozial bizi bezain betea dute, baina 35 urte bete eta seme-alabak izatearen zamak kolpean hartuko du protagonista.

Ane Pikazak gorpuzten duen emakumearen ezintasuna sakon iristen da ikuslearengana. Ikusleok antzerkiaren akzioa inguratu genuen aurrenekoz egin zuten emanaldian, erdian aktoreak, inguruko borobilean ikusleak. Horrelako eszenaratzean, ikuslegoa bikotearen etxean bezala sentitzen da, pertsonaia nagusiaren minaren barrenean. Seme-alaben auziaz gain, emakumeek gizartean hartu behar izan dugun lekuaz hausnartzeko aukera ematen digu; lanean eta bizitzan ehuneko ehuna eman behar izatearen prezioa, gure buruari jartzen diogun exigentzia, beti ere porrot egin edo maila ez ematearen beldur. Horrek guztiak gure gorputzean eragiten duena maisuki azaleratzen du antzezlan honek, duela ia mende bat Lorcak asmatu bezala.


Proposamena horrela izateak egungo ikuslegoarekin konektatzeko balio dezake, hau da, ikuslego gaztea erakarri eta teatroaren parte egiteko. Izan ere, azken urtean kezka handia dago horrekin, ikuslego falta eta beherakadarekin. Baliteke hori ere antzinako kezka izatea, eta urtero edota ziklikoki errepikatzen dena.

Arriaga antzokiak beste klasiko handi horietako bat ekoiztu du aurten. Calixto Bieitok Shakespeare ekarri du, edota, hobeto esanda, idazle ingelesaren testuen txatalak. Antzoki publikoak aurten ekoiztu du *Erresuma / Kingdom / Reino* deitu duten lana. Shakespeareren tragediak ditu oinarri, erregeak eta erreginak bata bestearen atzetik agertzen zaizkigu. Rikardo II.etik III.era, Henrike IV., V. eta VI.etik pasatuta, agertu dira tragedien proposamen horretan. Zortzi tragedia batera ekarrita, edota horietako testuen *greatest hits* modukoak elkartuta.

Lander Otaola aktoreak aurkezpenean esaten zuenez, gus-tatuko zaizu edo ez, baina ez zaitu epel utziko. Horrela izan delakoan nago; laudorioak jaso ditu, hunkitutako ikusleak izan dira, eta epel utzitako asko ere izan gara. Ekoizpen handi baten aurrean gaude, tamaina erraldoikoa gu garen herri txiki honetarako, aktore kopuru eta baliabideei erreparatuz gero pentsaezina. Antzoki handietan soilik egiteko antzezlan da. Ezin antzoki txikietara iritsi, ezin herrietara, herritarrengana heldu. Eta halakoa izan da urtebetean eginiko bira.

Garrantzia estetikari soilik eman dion proiektua izan da. Boterera heltzeko zer egiteko prest zauden da galderetako bat. Hori bai, azpimarratzekoa da klasikoen bi moldaketa horiek gure hizkuntzan gozatzeko aukera izan dugula. Eta, harri-garria badirudi ere, hori bada aipatzekoa, azpimarratzekoa, salbuespen baita: antzokian gure eskubidea bermatu dela.

Beste lan bati begira jarrita, Pabiloi 6 aretoak, Arriaga antzokiarekin elkarlanean, Ramon María del Valle-Inclánen *Luces de Bohemia* ekarri zuen, Ramon Bareak zuzenduta. Idazlearen testu ezagunenetakoa bada ere, ez da hainbeste alditan antzeztua izan. Ehun urte baino gehiago dituen testua Madrilen kokatuta egon arren, gaur egun izugarritzko eragina izan dezake, islatzen duen gizartea esperpentikoa baita, egun bizi dugunaren antzekoegia. Antzezlanak gizarte esperpentikoa, degradatua eta usteldua erakusten du, zoritxarrez gaurkoa gehiegi gogorazten diguna. Ibilbide luzeko aktoreak eta aktore gazteak ikusi genituen oholtzan. Baina, kasu honetan, testuari fidel jarraitu diote eta proposamen guztiz klasikoa ekarri dute. Duela mende bateko irudi ilunaren isla bagara ere, bestelako estetika, hizkuntza eta argiak dira egungoak, eta ez bere horretan geratu zirenak. Atzokoa gaur egunera ekartzeko, eguneratzeren bat behar da, translazioa, eta hori egiten jakin behar da. Antzezlan bere horretan uzteko, badiugu apaletan klasikoen liburuak. Irakurlea etxean testu zahar bat bere kabuz gaur egunera ekartzeko gai da, eta, askotan, ekoizpen handi batek baino egokiago egin dezake. 🍷



Heldu da abendua, eta harekin batera hasi ohi da bu-
ruen atzeranzko biraketa masiboa: urteari errepasoa
egiteko unea da. Bidaiarik egin dugun edo markatu
gaituen libururen bat irakurri, lana ongi joan den, norbai-
tek utzi gaituen ala jende berria ezagutzeko parada izan du-
gun... Eta, behin balantzea eginda, urte ona ala ez hain ona
izan dela erabakitzen dugu. Kuriosoa da, hala ere, urtea bu-
katzear denean dugula euskaldunok hitzordu garrantzitsu
bat kulturgintzari dagokionez, mende erdi baino gehiagoko
ibilbidea duen azokak hartzen baititu abendu hasierako bost
egun Durangon. Zita horrek markatu izan ditu urte luzez
epe eta tempoak sortzaile askorendako, eta sentsazioa dut
(daturik ez) beheranzko joeran ari dela jarrera hori. Musikan
behintzat. Ez ditut inguruko musikariak (gazteak, batez ere)
data horiei begira ikusten. Ez dago hain presente lan berria
Durangorako espresuki argitaratzeko presio/gogo/behar/ilu-
sioa. Eta poztekoa da, noski. Durangoko Azoka plaza ederra
da, baina Durangotik at ere bada plaza, bada azoka.

Kulturgintzan aritzea jardun prekarioaren eskutik dabil
oraindik ere gure jendartean, eta horrek epe motzera al-
datzeko itxura handirik ez du oraingoz. Badira, alta, azken
urteetan aldatu diren bestelako kontu batzuk, zabalpenerako
erraztasunak, kasu. Egun batzuk dira lagun batekin *huntaz
eta hartaz* ari nintzelarik honakoa komentatu genuela: he-
rri honetan bukatu dira makrotaldeak, ez da gehiago figura
hori betetzen duen talderik existitzen. Ezinezkoa da festibal
bat antolatzeko orduan izen handi batekin pentsatu eta hori
kartelburu jarrita jendetza etorriko dela bermatzea; sinple-
ki, ez dago halakorik. Bai, segur aski pandemiak ere izanen
du horretan zerikusia. Eta ideia batek bestea ekarri zigin.

Ematen du bueltan direla tokian tokiko mugimenduak, auzo eta hirietako eszena musikal indartsuak eta horien arteko elkar elikatze ederra.

Azaroaren hondarretan bestela ere burua biratzen hasia nintzateke, baina, urteko errepasso musikala egiteko proposamena jasota, erronka txiki bat jarri diot neure buruari: ez dut tranparik eginen. Eta diot ez dudala tranparik eginen, kontziente naizelako hainbeste mugimendu dagoen honetan, ezinezkoa zaidala denera heltzea. Inertziagatik, urrun sentitzen ditudalako ala, besterik gabe, zabalpenerako erabiltzen dituzten zirkuluak edo bideak ibiltzen ez ditudalako badi-rela proposamen asko bidean galtzen ditudanak. Beraz, ez, tentatua egon banaiz ere, ez naiz Badok-en sartu ahalik eta artikulu borobil, oso eta *guayena* egiteko; egunerokotasunean presente izan ditudanei buruz nahi dut hitz egin hurrengo lerrootan, eta ariketa zintzoa egin.

Sintetikoari gorazarre

Z belaunaldikoa omen naiz (bai, hori bai begiratu behar izan dudala konfirmatzeko; oraindik ez dut argi Millenial – Z belaunaldia banaketa), teknologiak historian izan duen aurrerapen azkarreneko urteek haurtzaro/nerabezaroan harrapatu naute. Baina, ez pentsa, ez naiz berrikuntza teknologikoekin bereziki trebea, eta, ahal izatera, interesezkoa dudan lan berrri bat ateratzen delarik, CDa aterako duten galdetzen dut.

Ukaezina da, hala ere, eta ez da gauza berria, digitalizazioak zenbat bide ireki(tzen) duen musikaren munduan (ere bai). Aurten ordenagailu, sinte eta efektu elektronikoz jantzita jaio den talde batek Euskal Herria hari begira jarri du, eta kosta egiten da sinistea urtebeteko kontua izan dela. *Merina Grisek gure belaunaldiari jarri dio musika* entzun eta irakurri izan diot lagun bati. Eta hala da. 90eko hamarkadan jaiotako musikari horiek adinkideen beroa sumatu dute hasieratik, belaunaldiaren kezka eta bizipenen testigantzen ordezkari

da taldea. Ildo beretik baina bereizgarri inportanteekin dugu antzeko eszenan J Martina hirukote larrabetzuarra. Doinu ilunagoak zenbaitetan eta konposizio biluziako, sinpleagoak oholtzaratzen ditu taldeak. Horien jarduna pixka bat induskatu besterik ez dago musikatik haragoko apustua egiten dutela ikusteko, lehentasunak lehentasun. Hirukotea hurbiletik hazten ikusteko aukera izan dut eta, uf, otsailetik abuztura, Hori Bai gaztetxeko disko aurkezpenetik Larrabetzuko gazte eguneko plazako kontzertura, bi talde diferente dira. Antzeko bidetik datoz Mirua tolosarrak. Iazko Gaztea Maketa Lehiaketan finalista izan ondotik, sei kantu landu biltzen dituen EPa atera berri dute, eta, egia esateko, nabari da musikarena parte batean etxetik dakartela. Lapiko antzekoak erabilita, baina beste osagai batzuekin kozinatzen ibili dira Andoni Olaetxea eta Telmo Trenor azken hilabeteotan, eta duela aste batzuk atera dute Gladys del Estalen omenezko diskoa, *Paperezko mila eguzki*. Esperimentazioak leku handia du azken lan horretan; 'entzuteko zailagoa' dela esan genezake, edo, hobe esanda, komertzialtasunetik urruti egotearen beldurak ez duela kabidarik horien sorkuntzan.

Bakarrik, baina ez oso

Ez dira gutxi izan aurten bakarkako bidean lan mardulak atera dituztenak, ez edozein taldekidez lagunduta, noski. Sekula ibili gabeko bideetara hurbildu nau Ødeik bere *Terapia*-rekin. Taldean ibiltzearen garrantziaren aldarria oso presente izanda, urte luzez bakarrik sentitu izan den munduan, raparenean, lagunduta kantatzearen pozak eman dizkio indarrak, besteak beste, rapero urruñarrari. MICEk ezin ederrago marraztu ditu hitzez eta doinuaz azkenaldian inguratu duten paisaia arabarrak *Lautada* diskoan. Gogo handiz itxaron dudako disko horietakoa izan da, eta tokadiskosean buelta gehien eman dituen izatera pasatu da. Lana atera berrikan Itziar Ugartek *Berria* egunkarian eginiko elkarriketan

aipatu bezala, agertokia beste modu batean nahi zuen hartu musikariak; horren erakusle nabarmenetakoa da esku hutsik ari dela orain kantuan oholtza gainean, gitarrarik ez darama zintzilik.

Eñaut Elorrietak bere bakarkako ibilbideko hirugarren lana atera du duela aste batzuk, *Fantasia* izenpean. Letrak beste idazle/poeta batzuenak dira, aportatzekoa melodietan duela esaten baitu gernikarrak; *nire ahotsa ni baino askoz ere jakintsuagoa da* entzun diot duela gutxi, eta horregatik saiatzen da senari egin behar duena egiten uzten eta ahalik eta beranduen sartzten burua. Aurreko lanen bidetik, baina pintzel finagoekin, geruza eta kolore argiagoekin josia dago nire ustetan Aitor Etxeberriak ekoitziriko azken hori. Diskoaren aurrestreinaldian entzun genuenaren arabera, hori da bere pertsonarekin bat gehien egiten duen albuma, bere izaeratik hurbilen dagoena.

Euskal musikaren mundu *mainstream*-etik urrutiago ibiltzen da nire azken urteetako erreferente inportanteenetako bat. Eskerrak gure bideak gurutzatu diren eta egiten duena gertuagotik ezagutzeko aukera izan dudana. Aurten atera den disko bakar batekin geratu beharko banu, Peru Galbeteren *Beiratu* izanen litzateke. Egiten duena sinesgarria izatea da artista baten lanera gehien hurbiltzen nauden gauzetako bat, eta Peruri dena sinisten diot. Fintasun eta apaltasun gordin eta gardenaren erakusle dira bere kantuak, hauskorrak eta indarrez beteak aldi berean.

Espero gabekoak

2022ak askorako eman dit, artista batzuk, musika erreproduktoreetatik harago, hezur-haragizko formatuan ezagutzeko ere bai. *Haurraren kanta* eta *Mundu leunena* abestiak buklean izan ondotik entzun dut zuzenean Verde Prato, oholtzan bakarrik. Teklatu baten laguntzaz kolore guztietako ahotsaz kantatzen du Ana Arsuagak, berdin *Jaikiera* osatzen duten

bi kantuetan edo *Euskal Pop Erradikala*-ko bertsioetan. Bиденabar, ez dago soberan esatea eskertzekoa dela bertsioak ateratzen dituen artistak bertsioak egitea, eta ez *cover* soilak. Bada aldea.

Pandemiaren ondotiko garai hauetan itzuli dira lehen aipaturiko festibalak; aurten, betikoez gain, Sarara egin dugu txangoa, Usopopek antolaturiko Mapa Galduak emanaldira. Igande iluntzez eskaini zuen kontzertua Mugarri25 talde (ustez) behin-behinekoak. Disko grabaturik (oraingoz) ez bada ere, urteko errekopilazio mentalean leku handia hartu dit bertan bizitakoak. Elkarrekin eginiko astebeteko egonaldia-aren ondotik, emanaldi bihurtu zuten bertan sortutakoa hamaika musikarik. Besteak beste, Lumi, Orbel, Bilau, Habia eta Rüdiger taldeetako kide batzuek. Barruraino sartu zitzaizkidan kantuak ezin atera nabil oraindik.

Etxeko uzta

Lekuan lekuko eszenen gorakada aipatuta, saihetsezina zait gertukoenen ibilbideei tentu handiagoz segitzea, egunero-kotasunean ondoan ditudanei hurbilagotik jarraitzea, modu inkontzientean bada ere.

Hamar urte bete berri dituzte Skabidean-eko lagunek, eta behar bezala ospatzen ari dira urteurrena. Duela aste batzuk jo zuten, hamaika kolaborazio tarteko, Atarrabiako Totem aretoan, hamar urteen eta urte horietan guztietan horien ondoan egon direnen omenez. Hamar urte atzera jarri nintzen egun hartan begira, eta hor topatu nuen, Iturrama institutuko areto nagusian, Euskal Jai egunez-edo, hamalau urteko Amets Skabidean-en lehenengo kontzertuan saltoka. Kamarada, gauza batzuk ez dira hainbeste aldatzen.

Burutik talde gazteak ere atera du lan berria aurten. Kontserbatorio-ikasketak dituela nabari zaion talde horietako bat da Burutik, teknikoki berdintzen zail. 15” kantuak egungo musikaren kontsumo-ereduari egiten dio kritika, eta izen

hori bera darama diskoak. Oraindik kasurik egin ez badiezue, garaiz zabiltzate, ez galdu pista.

Eta ez nuke bukatu nahi oso erreferentziazko beste talde bat aipatu gabe. Euskal Herriko brass band onenaz ari naiz, Broken Brothers Brass Band-ez, noski. Esan nezake, musikari gisa, Burutik-ekoak anai-arreba gazteen gisan ikusten ditudan bezala, Broken-ekoak direla anaia nagusia. Iruñean musikaren inguruan mugitzen den askoren eragile, sustatzaile... Aspaldi grabatua bazuten ere, aurtan ikusi du argia euren *Katebegia* diskoak, kolaborazio eta guzti.

Etxeko salatik azken apuntea: iazko *boom*-a (edo, behintzat, pixka bat *boom* moduan bizi izan genuena), hau da, ‘Chill Mafia, Tatxers, Ibil bedi’ hirukotearen mitifikazioa, baretu da eta eskertzekoa da. Eskertzekoa den bezala sentitu (eta sentitzen) dugun bero eta sostengua, eskertzekoa da mitorik ez sortzea. Momentu, leku eta modu konkretu batzuekin asmatu eta zortearen faktorea batuta suertatu zena ez dadila desegin duena baino garrantzi handiagoa emanez. Eta lanean segitzen dugu, noski (Tatxers-en disko berriko kanturen bat pasatu dit txoritxo batek eta, uf..., horiek agian mitifika ditzakegu, bai).

Asko eman du urteak, askotarik gainera. Hala ere, denbora luzez iraunen du ebatsi duenaren pisuak. Igande iluntze hartan Leire Iribarnek Saran behar zuen oholza gainean eta zulo hori ezinen du beste inork estali. 🍷

Gerra izan da aurtengo protagonista nagusia Europan, eta gerrak hitzaren kontrako gertakariak dira. Gerra ez da aurtengoa hasi, baina, aurtengo otsailaren 24ko erasora arte, kasu gutxi egin diogu Ukrainan Errusiak duela zortzi urte hasitako okupazioari. Otsaileko inbasiotik aurrera deitu diogu gerra. Ukrainarrek, aldiz, gerraren eskaladaz edo gerra totalaz hitz egiten dute.

Tresna antagonikoak dira literatura eta gerra. Batak aha-
legin handia egiten du bizitzari zentzua ematen saiatzeko;
besteak kolpetik erausten dio zentzua. Gerra suntsitzailea da
eta literatura, ordea, sortzailea. Zein tresna erabili nahi dugun
aukeratzen dugu. «Hori da gizaki egiten gaituena, erabakiak
hartzeko ahalmena», idazten du Lena Gorelikek bere *Wer wir
sind* (Nor garen) lan autobiografikoan, eta gehitzen du: «Baita
gizatasuna kentzen diguna ere». Lena Goreliken ahotsa bi-
daide izan dut aurtengo bidaia literarioetan. Gero gehiago.

Lehen geltokia: Austerlitz (aurreko etapan memoriarik ez baitzait geratu)

Austerlitz Parisko tren geltoki garrantzitsuenetariko bat da, baina Berlinen hasiko da bidaia hau. Udaberrian W. G. Sebald idazle alemaniarren *Austerlitz* eleberriaren euskarazko itzulpena aurkeztu zuen Berlinen Igela argitaletxeak. Publiko berлиндarraren gorputzak artean pandemiak ezarri digun bizimoduaren ondorioz sorgortuta eta estu-estu bildu dira Mitteko lokal batean. Ez edozeinetan, *Club der polnischen Versager* instituzio bat da hirian, 90eko hamarkadan sortu zenetik. Egongela itxurako aretoa jendez mukuru dago.

Zuzenekoaren eta hartu-emanaren gosea usain daiteke. Jendartearen berotasuna eta murmurioa sentitzeko beharra dabil airean. Idoia Santamariak euskaraz jarri dituen tximeletak eta sitsak ere airean, hegaz: *apika enara eta pergamino notodondidoak, eta tigreak, eta berde-urrezkoak, katokala beltzak, eta upsilon noktuidoak, euforbia esfingeak eta saguzar esfingeak, parteniak eta dama zaharrak, piratak eta mamuak*. Haien soinua entzuten dugu.

Sealden adituak azaldu behar du –ahalegindu, behintzat– zergatik Sebald ez den ezaguna eta kanonikoa Alemanian, atzerriko kritikak Kafka baten mailan jartzen duen idazlea izanik. Bertara bildutako entzule alemaniarrek, gehien-gehienak, euskarara egindako itzulpen bati esker ari dira lehenengoz Sebald deskubritzen. Agian, batek baino gehiagok joko zuen gero Sebalden zerbait irakurtzera. Itzulpenen zubi-lanaren ezusteko arrakastatxo bat.

Nik neuk, jatorrizko hizkuntzan irakurri beharrean, Idoia Santamariaren itzulpena irakurriko nuen. Eta udaberritik hona Sebalden *Austerlitz* inguruan hegaldaka izan dut. Irakurketa batzuekin gertatzen da: arrasto bat uzten dute eta ez diozu nahita jarraitzen, beste norabide batean zoazela ere pentsatzen duzu, baina, hara, behin eta berriro arrasto horrexetara bueltatzen zarela ohartzen zara, liluratuta. Zure erabakiak hartzeko askatasunaren gainetik dagoen indar misteriotso batek gidatzen zaitu, hurrengo irakurketen logika ezartzen du zu zeu konturatu ere egin gabe. Aztikeria dirudi. Edo kasualitate hutsa dira Sebaldekin hortik aurrera egindako topaketak?

Bigarren geltokia: Neukölln, *She said*

Udaberrian oraindik, *Austerlitz*-en irakurketa artean bukatu gabe, erabileraren markaz jositako liburua poltsan dudala Neuköllnera bidean jarri naiz. Austerlitz izeneko fikziozko pertsonaiaren familiaren eta jatorriaren ikerkuntza-kontakizuna

irakurtzen noa. Liburu denda feminista batean, *She said* liburu dendan, azken orduan iragarri den liburu aurkezpen batera noa. Alemanez idazten duen idazle ukrainar baten eta jatorriz errusiarra den baina alemanez idazten duen idazle baten arteko solasaldia entzutera noa. Katja Petrovskajak liburu berria aurkeztuko du Lena Gorelikek gidatuta. Nire misioa: Lena Goreliki esatea bere liburua, *Wer wir sind*, irakurri berri dudala eta negar asko egin dudala berari esker.

Katja Petrovskajaren lan berria argazkiz eta testuz osatutako zutabe-bilduma bat da. Argazkiak horman proiektatu dira eta Katja Petrovskajak testuak irakurri ditu. Lena Gorelikek bere irakurketaren gogoetak partekatu ditu. Batzuetan –ez gutxitan– autoreak berak testutik kanpo esateko duena baino interesgarriagoa da beste batek egiten duen gogoeta. Bukatzean, Lena Gorelik Katja Petrovskaja bezain lanpetuta dago liburua sinatzen. Misioa bertan behera utzi eta ezer esan gabe alde egitea erabaki dut. Joan aurretik erakusmahai bati begira geratu naiz. Halako batean, Lena Gorelik ondoan dudala konturatu eta nire ausardia guztia behar dut esan nahi niona esateko, ahots dardartiz: negar eginarazi dit zure liburuak. Ondo egin didan negarra izan da. Nire baitan bizi diren sentimenduei hitza jarri diezulako eta mingarriak zaizkidan sentimendu horien korapiloa askatu dutelako zure hitzek. Eta Lenak esan dit berak ere negar asko egin zuela liburua idatzi bitartean. Hortxe geratu gara biak, hunkituta, une batez elkaturik.

Hori da literaturak lor dezakeen gauza handietako bat, bestearen bizipenekin kontaktuan jartzea norberaren bizipenak. Lena Gorelik izan zen parkaz jantzitako neskato harengandik hurbil sentitu nintzen, nahiz eta bera babes-etxe batean bizi zen Alemanian. Zenbait bizipenetan elkartu gara: gure jatorritik urrundu izanak sentiarazten digun horretan, aitona-amonen eta iloben artean sortu den zuloaz jabetzeak eragiten digun oinazea, urruntasuna eta zuloa gainditzeko dituen maitasunean.

Etixerako bueltan, *Austerlitz* zabaldu eta liburuan zehar tartekatuta dauden argazkiei begira konturatu naiz Katja

Petrovskaja oso idazle sebardianoa dela. Argazkiak abiapuntu hartuta idatzi du, *Argazkiak begiratu egin ninduen* jarri dio titulua liburuari. Familiako argazkiak, artxiboetan aurkitutakoak, ezezagunen familia-albumetakoak, argazkilarienak, idazleak egindakoak. Bada irudiekin lan egiten duen literatur tradizio bat, memoristikoa, ensaistikoa, eta fikzioari leku egiten diona. Gerraren fantasma du muinean uzkurtuta eta hondo-hondoan sortzen du irakurlearengan zirrara.

Kiev bezalako hiri ezezagunetara hurbiltzeko trenak edo eskura ditugun itzulpenak

Inork –hau da, *gutako* inork– espero ez zuen gerra ‘hastean’, prentsako artikulu batean irakurri nuen: abisatuta geunden, irakurri ditugu idazle ukrainarren eleberri eta liburuak, idatzi ditugu kritika onak, baina orain beste modu batera irakurtzen dira.

Ukraina orban zuri bat da nire buruko mapan, hutsune handi bat. Ere mu postsobietarreko idazleen testuetara jo dut. Ezezagunak diren historia eta paisaietan murgiltzeko espazioa sortzen dute liburuak. Espazio horretan bildu dira naziak, juduak, Komunalka bateko biztanle xelebreak, estalinismoa, burokrazia kafkarra, eguneroko ustelkeria, babuschkak eta deduschkak. Ez didate gerra hau azalduko, baina nire bizipenen eremutik hain urrun geratzen diren gertaeretara hurbiltzen naute. Bai, literaturak ulertzen laguntzen du. Nik eskura izan ditudan alemanierara itzultitakoak izan dira edo zuzenean alemanez idatziak. Lerroon irakurleek ezagutzen dituzten hizkuntzetara itzultitako liburuetara hurbiltzea dute.

Idazle horiek irakurtzeaz gain, hizketan entzun ditut. Batzuk zuzenean, beste batzuk *streaming*-ean eta beste batzuk irrati-tiko programa luzeetan. Beren azken liburuak aurkezten eta irakurtzen aritu dira ukrainarrak, elkarrizketak eman dituzte, mahai ingurutan parte hartu dute estatu postsobietarretako idazleekin edo oposizioko kide errusiarrekin batera. Ez

da eroso haiei entzutea. Sistema literarioaren baitan, eragile ezberdinen, idazleen eta itzultzaileen erakustaldia sekulakoa izan da.

Frankfurten izan du une gorena. Ukrainako Serhij Zhadani Bakearen saria eman diote udazkenean Frankfurteko Liburu Azokan. Alemanez egin duen hitzaldian gerra eta hizkuntza izan ditu hizpide. Gerrak espazioaren eta denboraren pertzepzioa nola aldatzen duen bizigarri egiten du duela zortzi urte idatzi zuen *Umezurztegia* eleberriak. Gerrak mututu egiten duela esan du aurten, baita idazlea ere, hitzekin lan egitera ohituta dagoen hori. Hitzen bila, komunikatzeko gaitasuna ez galtzeko borrokan entzuten zaio. Adorno parafraseatuz, «Butxa ondoren idaztea» ez soilik posiblea, baizik eta beharrezkoa dela esan du. Hitzak jartzea, gogoratzea beharrezkoa izango dela etorkizunari leku egiteko. Debate handia sortu du sariak: lekuz kanpoko al da Zhadani Bakearen saria ematea? Armak eskatzen dituen idazlea da. Gerra hasi zenetik ari da frontean laguntza humanitarioa ematen. Serhij Zhadanek berak planteatzen du arazoa: zein da laguntza humanitarioaren eta gerran laguntzearen arteko muga? Sarituak erakutsi du gerrak galdera deserosoak jartzen dituela mahai gainean eta erantzunak konplikatuak direla. Nik ez nuke jakingo sariak sortu duen debatean iritziz argirik izaten. Sariaren aukerak aurtengo desorientazio eta nahasmenaren irudi on bat ematen duela iruditzen zait.

Beste geltoki bat: Annie Ernaux Wannseen

Itzultzaile Alemaniarren Elkartearen 25. urteurrenaren ospakizuna dela eta, Annie Ernaux dator udan Wannseera. Ernauxen adina kontuan harturik, miresten dudana idazlea zuzenean ikusteko izango dudana aukera bakarra izango dela iruditu zait eta trena hartu dut. Ernauxen zalez inguratuta nago etxetzar harro baten atzeko belardian eserita, terrazako aulki denak beteta daudelako. Annie Ernaux eta bere

alemanerako itzultzailearen arteko solasaldia entzuten frantsesa ulertzen duen jende asko dagoela nabari da, itzulpena eman aurretik erreakzionatzen baitu publikoak.

Zer gertatzen da Annie Ernauxi entzuten? Ezagutzen dudan norbait entzuten nagoela sentitzen dudala. Familiako kide urrun-hurbil interesgarri bat balitz bezala. Hizkuntzaren tresna eta begirada soziologikoa menderatzen dituen norbait familian sartu izan balitzaigu bezala. Ez du argazki-albuma atera poltsatik, baina argazkiekin lan egiteaz luze aritu da itzultzailearekin.

Uztailean ezin da jakin emakume horrek, gorputzez txikia eta fina baina ez hauskorra, hizkera soila eta argia erabiliz bere pentsamendua artikulatzen duena, Nobel saria jasoko duela aurreten. Baten batek «prosa proletario» aspergarri gisa deskalifikatuz bere burua deskalifikatzen du prentsan.

Berri on bat izan da askorentzat. Gertakari handiek konstatzen duten historiaz gain, mikroan ezkutatzen den (edo erakusten den) aldaketarako ahalmena kontatzen duen idazle bati eman diote saria.

Bere idazketa autobiografikoak hitz gutxi behar ditu eraldaketarekin batera datozen arrakalak ere erakusteko. (Hezkuntza mailari esker) jatorri sozialetik urruntzeaz idazten du: «Batzuetan, aurrez aurre zuen alaba, klase-etsai bat». Bere amaz ari da, *Emakume bat* kontakizunean. Hori eta beste lau jada euskaraz genituen Itziar de Blas, Joseba Urteaga eta Xabier Arambururen eskutik. *Urteak* jarriko nuke itzultzekoen zerrendan.

Azkena: Odesa

Maria Stepanova idazle errusiarra ere Wannseen dago. Euria ari du bere txanda heldu orduko. Ingelesez ari da baina ez du alemanetik itzulpenik behar. Baxu hitz egiten du errusiarren parte handi batek beste leku batera begiratzeko duen «gaitasunaz».

Stepanova ezagun egin zuen liburuko protagonista memoria da. Mende oso bateko memoria-lana egin gabe duen Errusia bat uzten du agerian. Iraganarekin egiten duen solasaldi luzean, bere familiako kideak ditu hizpide. Eta horiekin tartekatuta beste idazle batzuk, artista batzuk, familiakoak bailiran. Sebald ere tartean dago.

Aitona Odesakoa zuen. Pasarte hori geratu zait gogoan. Pogromak hasi baino lehenagoko Odesa kosmopolita irudikatzen du, XIX. mende bukaeran, eleaniztuna. Hizkuntzen arteko zubi-lan eskergarekin birsortu beharko diren espazio eta denboretan pentsatzen uzten dit Odesa horrek. 🧡



jl

Aretoak berriz beteta

Urte hasieran museoak eta erakusketak maskararekin eta aforo murriztuekin bisitatzea tokatu zitzaigun arren, murrizketak progresiboki lausotu ahala, 2022. urtea pandemia aurreko normaltasunari heltzekoa izan dela esan genezake. Bisitariek aretoak berriz ere bete dituzte –noizbait beteak izan badira– eta eskaintza interesekoa aurkitu ahal izan dugu.

Gasteizko Artiumen *Pentsatzeko leku bat* erakusketak Euskal Herrian 1960ko eta 1970eko hamarkadetako artearen eta hezkuntzaren arteko erlazioak aztertu ditu urtarriletik aurrera. Halaber, aldi berean, testuinguruko eta nazioarteko artisten erakusketa monografikoak antolatzeke politika jarraituz, udan Erlea Maneros Zabala eta Anna Daučíkováren lanekin gozatzeko aukera izan dugu. Jutta Koetherren margolan beltzei eta Xabier Arakistainek komisariatutako Ivan Zulueta udazkenean eskainitako mostrak ere azpimarregarriak izan dira. Osasuntsu, indar berri batekin da Artium Beatriz Herraizek zuzendaritza hartu duenetik.

Donostian, *Baginen bagara* izenburupean eta Haizea Barcenilla eta Garazi Ansaren eskutik, San Telmo Museoaren kolekzioa abiapuntu, urtea emakume artisten «ikusgarritasun(ez)aren logikak» abordatu dituen erakusketarekin hasi zen, eta udako erakusketak Txillida eta Oteizaren erlazioak izan ditu hizpide, Javier Gonzalez de Duranaren komisiaritzapean, luzea eta ezaguna zen bi eskultoreen etsaitasuna zela-eta egun arte posible izan ez dena. Ezberdinak oso, biak beharrezkoak. Garai berean D'Museoak hartutako Oteizaren erakusketak hautsak harrotu zituen komunikabideetan egun batzuetan zehar, baina segituan baretu zen auzia, piezen

faltsutze baldarra agerian geratuta. Tabakalerak, bere aldetik, Emma Kunzen lan enigmatikoa deskubritu digu, eta oraintsu *Hamahiru* hartu du, Ereduak programak antolatutako hiru-garren erakusketa kolektiboa, *First Thought Best* (2014) eta *Bi Dos Two* (2018) izenekoan ostean, kontestuko sorkuntza plastikoaren oraina jaso asmoz.

Esanguratsua da Altezako Oteiza Museoak artista gazteenen alde egiten duen apustua. Hala izan da David Bestué katalanaren proposamena eta Nora Aurrekoetxea, Miren Doiz eta Marina González Guerreiro eskultoreek osatutako *Interestratos* proiektua. Bere aldetik, *Ahots bat Erausorentzat*. *Trans garai baterako epilogo*a aurkeztu du udan zehar Bilboko Azkuna Zentroak. Erakusketez harago, bestelako diziplinei irekia eta egonaldi programa indartsu batekin, AZ arte garaikidearentzako erreferentziatzako gune bat bihurtu da hirian.

Gehry eta Foster elkarri begira

Urriaren 25 urte bete dira Guggenheim Bilboko Museoak ateari ireki zituela. Artearen transzenditzen duen fenomeno konplexu eta ikuspegi askotarikoaren analisi zehatzik egiteko lekurik ez badugu ere, balantzea, oro har, positiboa da. Paradigma industrial batetik zerbitzuetan oinarritutako eredu ekonomiko eta sozial batera igarotzeko motor gisa jaio zen, eta hala funtzionatu du, argi-ilunekin, hiria maila askotan biziberrituz, bestetan gentrifikatuz. Artearen ikuspegitik, eraikin bikainak ez du beti programazioan emaitza bera aurkitu. Lehen urteetan, bisitari kopuru masiboen bila, erakusketa *mainstream* eta popularrak antolatu ziren batez ere, eta New Yorkeko jatorrizko etxearen dependentzia erabatekoa zen. Denborarekin, museoak beharrezko autonomia lortu du, oraindino zuzendaritza artistiko baten falta nabaria izanik. Edozelan ere, belaunaldi berri oso bati –egun 30 eta 40 urte bitartean dituzten euskal artisten talde esanguratsu bat

tarteko– Guggenheimek arte garaikidearekin lehen kontaktu sistematikoa eta kalitatezkoa eskaini digu, etxean bertan mundu mailan punta-puntakoak diren artistak eta artelanak ezagutzeko parada. Errealitate lokalari gehiegi ez begiratzea egotzi izan bazaio ere, ziurrenik ez da hori bere egitekoa, eta beste agenteek modu hobean saretu dezakete euskal arte sistema. Gakoa, agian, titaniozko erraldoiari eta bestelako azpiegiturei –instituzional zein independenteei– eskainitako errekurtsio ekonomiko eta bitartekoei dagokienean erlazio orekatuagoa bilatzean legoke.

Gehryren museotik 400 metro eskasetara, Bilboko Arte Ederren Museoak handitze lanak hasi ditu aurren. Norman Fosterren eskutik, 1945eko eraikin neoklasikoaren eta 1970eko anpliazio razionalistaren gainetik zabalduko da. Artelanen erakusketetarako 1.500 metro karratu barrualdean eta eskulturentzako 700 metro karratuko aire libreko terraza bat irabaztea aurreikusten da besteak beste, eta 2024ko udan irekitzekoak dira. Plan anbiziotsu horrek ez du fisikoa soilik izan behar, proiektuentzako baliabideetan korrespondentzia beharko du. Ateak ireki zitueneko espiritu berbera eta mende luze beteko historian parkeko museoak hirian eta euskal kontestuan jokatu duen paper funtsezkoa XXI. mendeko errealitatera egokituta –feminismoaren eta museografiaren errelatu berrien ekarpenak bere egitea; tradizioa eta modernitatea eta produkzio lokala eta globala uztartzea–, herrialdeko arte instituzio nagusi gisa berretsiko da. Izan ere, museo amerikarrek ez bezala, Bilboko Arte Ederren Museoak aparteko kolekzio batean eta artistentzako eta artearen historialarientzako erreferente eta formakuntza gune izatean du indarra. Maisu handien eta azken joera artistikoen lanak biltzeko helburuan, bildumaren handitze sistematikorako, ikerketarako eta horren zabalkunderako errekurtsioak bermatuta, turistekin itsutu barik, publiko berriak erakartzea eta bertako kultura artistikoa sendotzea du erronka ederra. Ilusioz itxaroten dugu etapa berria.

Sistema aberatsa

Instituzio handi eta popularrenekin paraleloan, kolektibo eta espazio independente eta autogestionatuak ditugu. Consonni eta Bulegoa z/b bezalako ekoiztetxe eta ezagutza ofizinei, azken hamarkadan, bestelako ekimenak gehitu zaizkie. Horren adibide ditugu, besteak beste, artistek kudeatutako Okela Sormen Lantegia –San Frantzisko auzo bilbotarrean erakusketak eta orotariko ekimenak abian jartzen ditu–, Tractora Koop –Atoi espazioan antolatutako erakusketez hatago, -zko argitaletxearen bidez publikazio zainduak daramatzate aurrera–, Artiatx Espazioa –Bilboko Zorrozaurreko gaileta fabrika zaharrera hainbat artista gonbidatzen ditu–, Azala Espazioa –sorkuntza praktika eta egonaldietarako landa gunea– zein Azpeitiko Dinamoa –sormen laborategi esperimental askotariko eta irekia–, turismo kulturaletik urrun eta bisitari kopuruen morrontzarik gabe kultura artistikoari bat-batean ikusgarri ez den ekarpen funtsezkoa –komunitatea saretzea, alegia– egiten diotenak.

Interneten eztandaekin 2000ko hamarkadan katalogo eta publikazioek nolabaiteko atzerapausoa ezagutu bazuten ere, azken urteotan arte garaikidearen inguruko edizioak bultzada berri bat ezagutu du. Artistek beren publikazio propioak osatzen dituzte, gogotsu, ostera ere. Sistema Eragilea (www.sistemaeragilea.eus), Tractorak martxan jarritako artisten publikazioen plataforma-katalogoa, eta egoitza Bilbon duen eta bestela publikoarengana heltzea ezinezkoa luketen proposamen artistiko garaikideei bidea ematen dien Caniche argitaletxea ditugu horren adibide. Bere aldetik, Peio Aguireren *Estilo. Estética, vida y consumo* (Turner, 2022) entseguaren publikazioa ere nabarmentzekoa dugu. Hezkuntzaren esparruari dagokionean, EHUko Arte Ederren Fakultateak eskainitako artistentzako formakuntza osatzera datorren JAI programaren kontsolidazio urtea izan da, abian jarri zuten Artium eta Tabakalerari Oteiza Museoa gehitu zaielarik.

Horrek guztiak, eta batez ere artista komunitate dinamiko eta aberats batek, arte sistema osasuntsu bat definitzen

du gurean. Alabaina, instituzioek osatutako produkzioarako laguntza eta baliabideek –Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak, Gure Artea sariak, Ertibil Bizkaia bezalako lehiaketak, BilbaoArte, Huarte, Azkuna eta Tabakalerako egonaldiak, kasu– badute beren ifrentzua, batez ere 35 urtetik aurrerako artisten kasuan, une batetik aurrera prekaritate eta profesionalizazioarako arazo nabarmenak aurkitzen baitituzte. Merkatu indartsu baten faltan, atzerrirako konexioak –baldiren arren, Etxepare Institutua medio, adibidez– sakondu beharreko arlo bat lirateke.

Era berean, inpresioa dut artearen esparruan (ere), bizi dugun gizartearen isla den neurrian, espektakuluaren gizarteak kontsumo global eta estandarizatuen ereduaren araberako azalekotasun eta azkartasun moduak –‘esperientziak’ ezagutza kritikoaren gainetik– txertatzen ari direla, hain justu, arteak, gure begiratzeko moduak, errealitatea kuestionatzeko eta aldi berean eraikitzearen erremintak eta moduak eskaintzen dizkigun heinean, bestelako tempo batzuk behar dituen.

Galerak ere, tamalez, esanguratsuak izan dira. Pedro San-cristovalek eta Leopoldo Zugazak, biek 90 urte beteta, utzi gaituzte. Euskal kulturari –eta arte garaikideari bereziki– egindako ekarpenak funtsezkoak dira orriotan agertzen diren egitasmo eta proiektu ugari ulertzeko. Bizitza kulturagatik eta horren zabalkundeagatik eman dutenengandik ikastea dugu egin diezaiekegun omenaldirik onena.

Veneziatik Kasseler

Munduan arte garaikidearen esparruan ospatzen diren bi zita garrantzitsuenek kointziditu dute 2022an: Veneziako Biurtekoa eta Kasseleko (Alemania) Documenta. Lehenak, nazioarteko *bienale* zahar eta entzutetsuenak, globalizazioaren garaio-tan zaharkitua geratu den pabiloi nazionalen ereduaz harago, artearen azken joerak bildu guran, komisario prestigiotsu bati eskatutako erakusketa hartu ohi du. Surrealistek planteatutako

ametsen mundua abiapuntu, *The Milk of Dreams* tituluarekin eta obra anitz eta indartsuekin, Cecilia Alemanik mostra ikusgarria antolatu du irudimenak, teknologiak eta krisi klimatikoaren mehatxuak giza gorputzaren baitan dituzten eraginak ardatz nagusitzat hartuta. Historian lehen aldiz, selekzioko artista gehienak emakumezkoak izan dira, horien artean June Crespo (Iruñea, 1982). *Helmets* serieko hiru eskultura aurkeztu ditu, metalezko idulki ezberdinetan pausatzen diren maniki moztuak gogorazten dizkiguten estruktura anatomiko hibrido eta iradokitzaileak.

Venezian arte garaikidean ahaztua zirudien sentsualtasunarekiko eta lan objektualekiko aldarrikapena aurkitu badugu, txanponaren beste aldea izan da Kasselen. 1955ean lehen edizioa ospatu zenetik, bost urterik behin –lau urtero hasierako edizioetan– antolatzen da Documenta. Hamabosgarren edizioan, Ruangrupa talde indonesiarraren komisariotzapean, artelan gutxi eta proiektu asko aurkeztu dira; protagonistak artearen esparruan lan egiten duten kolektiboak izan dira, asko hego hemisferiokoak, ekosistema artistiko jasangarri baten dimentsioak aktibatu eta horiek errealtate operatiboetan eraldatzeko asmoarekin. Consonni ekoiztetxea izan da horien artean. Hainbat ekintza profesional eta mahai-ingurutan parte hartzeaz gain, editore artistiko gisa Documentaren gidak eta *Lumbung Stories* liburua ekoizteko lanean parte hartu du. Argitalpen eta edizio lana osatu du azken urteotan Consonnik, baina ibilbide luzea du aurretik –1996an hasi zen lanean Bilbon, Guggenheim ireki baino urtebete lehenago–, eta Gure Artea saria jaso du aurren arte plastiko eta ikusizkoaren arloan egindako lanaren aitortza gisa. Izan ere, Consonniren jardunbidea kultura kritikoaren produkzioa bultzatzeagatik nabarmendu da, hasiera batean artisten lan prozesuak sustatu eta lagunduz, beti ikuspegi estetiko eta politiko batetik testuinguruan agente desberdinen arteko trukeak ahalbidetuz eta azken garaiotan merkatuko ildo nagusietatik aparte diren diskurtsoen gaineko publikazio lan aberatsa osatuz. Hala jarrai bezate. 🍷





Irastorza, Maddi Zumalabe. Irastorza, Maddi Zumalabe. Irastorza, Maddi Zumalabe.



Libe Mimenza Castillo

Aldaketa handiek hori dute, labain egiten dute momentuan, eta soilik distantziak azaleratzen du zer zen egiaz berregituratzen ari zena.

Itziar Ugarte Irizar

Aurkezpenak

Kaixo!

*Kaixo! I'm Assistant, a large language model trained by OpenAI. I'm here to help with any questions you have. Is there something you'd like to talk about or ask me?*¹

Euskaraz badakizu?

Bai, euskaraz badakit.

Eta euskaraz mintzo zara?

Barkatu, baina nire 'mintzapena' ez da benetako mintzapena.

Pena da, gehiago entrenatu beharko zenuke...

Sentitzen dut, OpenAI adimen artifizialaren inguruko ikerketarenpresak entrenatutako hizkuntza-eredu bat naizenez, ez dut neure burua entrenatzeko edo nire errendimendua hobetzeko gaitasunik. Informazioa eta laguntza emateko diseinatutako programa bat naiz, eta nire erantzunak aurrez jasotako informazioetan oinarritzen dira. Ez dut pertsonen bezala ikasteko edo hobetzeko trebetasunik.

Zer zara orduan, OpenAIren produktu bat?

Bai, eta ez naiz bakarra; adibidez, DALL-E eskaintzen dute, erabiltzaileen eskaerei erantzunez tankera guztietako irudiak diseinatzeke tresna. Testuak sortzeko, aldiz, ChatGPT jarri da irekian

duela gutxi –OpenAIk 2020an garatutako GPT-3 hizkuntza-ereduan oinarritutako adimen artifizialeko txat-sistema–.

Makinak pertsona liluratzeko maniobrak²

Ea, bada, lagun nazazu: sortu gidoi bat, ChatGPT zer den eta nola funtzionatzen duen azaltzeko asmoa duen Youtuberako bideo bat egiteko.

Entzun duzue ChatGPTri buruz? Txatbot mota berri bat da, hizkuntza-prozesamendurako teknologia aurreratua erabiltzen du galderak eta elkarriketak era naturalago batean ulertzeko eta erantzuteko.

ChatGPT ikaskuntza automatikoko algoritmoez elikatzen da, denboran zehar erantzunak hobetzeko. Horrek esan nahi du ChatGPTrekin zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta hobeto ulertuko eta erantzungo dituela zure galderak edota iruzkinak. ChatGPT lagun batekin elkarriketa bat izatea bezalakoa da; baina, pertsona baten ordeztu, adimen artifizialeko programa oso aurreratu batekin ari zara hizketan.

ChatGPT erabiltzeko, galdera bat egin besterik ez duzu, eta elkarriketaren hizkuntza eta testuinguruaren inguruan programak duen ezagutza oinarritutako erantzuna jasoko duzu. ChatGPTk era guztietako informazio eta elkarriketekin lagundu diezazuke, galdera sinpleei erantzutetik hasi eta eztabaida konplexuagoetan parte hartzeraino.

Posible duzu laburrago egitea eta beste estilo batean, TikTok sarerako, adibidez?

Jakina, hemen duzu TikTok sarerako proposa den gidoi posible bat:

What's up, TikTok? Ezagutu al duzue ChatGPT?

Txatbot mota berri bat da, hizkuntzaren prozesamendu aurreratua erabiltzen duena esaten duzuna ulertu eta erantzuteko, like a pro.

Zenbat eta gehiago hitz egin berarekin, orduan eta hobe da ChatGPT.

Lagun batekin hitz egitea bezalakoa da, baina askoz adimentsuagoa.

Probatu ChatGPT gaur, eta ikusi AI hizkuntza-prozesamenduaren indarra jardunean!

#chatgpt #ai #languageprocessing
(musika)

Arranopola, zur eta lur naukazu! Bakarra ote naiz edo jendeak ba al du honezkero zure berri?

Ez zara bakarra, ezta lehena ere.

Kontaidazu zenbat erabiltzaile dituzun eta konpara zaitez beste plataforma batzuekin: 650 karaktere baino gutxiagoko albiste bat idatz ezazu informazio horrekin, mesedez.

ChatGPTk milioi bat erabiltzaile lortu ditu bost egunetan

- Langa hori gaitzen azkarrena bihurtu da.
- Instagram eta Spotify bezalako plataforma arrakastatsuen ligan kokatzen du horrek.

Hiru urte eta erdi behar izan zituen Netflixek milioi bat erabiltzailera iristeko, bi urte eta erdi Airbnb plataformak, hamar hilabete Facebookek, bost hilabete Spotifyk, bi hilabete eta erdi Instagramek, eta 74 egun iPhone mugikorrek. Bost egun baino ez ditu behar izan ChatGPTk, 2022ko azaroaren 30etik abenduaren 5era bitartean.

Une zirrargarria da teknologiaren munduan, eta ChatGPT etorkizunean nola garatuko den ikusteko irrikaz gaude.

Hau da, asko eta asko ari garela dohainik gure ariketa eta iritziekin algoritmoa entrenatzen... Onura komertzial handia ekarriko dizue horrek, eta horri lotuta produktuaren doakotasuna bertan behera geratuko da, akaso... Berdin desagertuko al dira adimen artifizialak ekar ditzakeen lanpostu galeren inguruko beldurrak? Arriskuak zein dira?

Adimen artifiziala termino ekonomikoetan izugarri hazten ari den eta hazten jarraituko duen industria da; arriskuak baino, onurak izango dira nagusi, gure egunerokoan gero eta gehiago integratu ahala. Hori dio diskurtso ofizialak.

Diruari dagokionez, OpenAI enpresaren atzean teknologia munduko liderrak daude; industria oso garestia da adimen artifizialarena, eta gure kasuan dohaintza bidez milioiak eta milioiak jaso ditugu, baina deus ez lehiakide dugun DeepMind proiektuaren aldean (Googlek 1.700 milioi eurotik gorako aurrekontua du urtero AA garatzeko).

Itxaron une bat, «teknologia munduko liderrak» edo «teknologia munduko gizon zuri aberatsak» da adierazpide egokiena?

Hitz neutroak erabiltzea komeni da azalpenetan.

Bestalde, lanpostuen galera baino, lanpostuen transformazioa eragingo du adimen artifizialak. Neurri handi batean, iraganeko berrikuntza-olatueta ekoizpena handitzeko tresnek bezala jokatu du; lanak ez ditu kenduko, zereginak kenduko ditu.

Zer aldaketa eragingo ditu, zehazki, testuen idazkuntzan?

Adimen artifizialak lagundutako idazketari ekitean, makinak abiapuntu bat ematen du eskaera zehatz bati erantzunez. Lanean hasteko materiala sortuko da horrela, existitzen diren milioika eta milioika karaktereko corpusetan jaso eta aztertuta ikasitakoa oinarri duen abiapuntua. Idazleak bi ardura izango ditu: lehena, datuen egiaztapena; bigarrena, azken edizioa. Makinak sortutakoa hartu, zuzena den edo ez ikusi eta testuari nahi den moldaketa egitea izango da pertsonen egitekoa.

Agian etorkizunean edizioa sorkuntza kontsideratuko da iritzi publikoan?

Denborak baino ez du hori argituko.

Ikusiko dugu, ados. Orain zehaztasunetan sartu nahiko nuke: kazetari batek zer espero dezake bere eguneroko praktikan?

Idazten ari den heinean gomendioak gehitzen dituen testu-
-editore bat esaterako, titulu eta gai bat soilik formulatuta ar-
tikulua sortzeko aukera, itzulpen automatikodun zerbitzuak
edukien sorkuntzarako zein ekoizpenaren hedapenerako,
edota elkarriketen transkripzio automatikoak.

+++

Bideo deietan esandakoen akta automatikoak –aipatu diren
ideia nagusi zein zereginen oharrekin–, bideoetarako ahotsak
sortzea, irudi-bankuez gain argazki-sortzaileak izatea eskura,
edota berehalako informazio bilatzaileak.

Baina hori guztia oraindik ere probatzen ari da, ezta? Edo ez?
Futurepedia direktoria jo: adimen artifizialean oinarrituta-
ko 420 tresna bildu dituzte dagoeneko, tartean zuri-beltzezko
argazkiak koloreztatzeko *palette.fm* ederra.

*Egizu komunikazioaren eremuan adimen artifizialaren arrakas-
ta adieraztea asmo duen hiru etsenplu ezberdineko zerrenda bat:*

- Oso-osorik adimen artifizialarekin sortutako proposamen
editorialak agertzen hasi dira: *10 consigli* aldizkari italiarra,
adibidez; bizitzari, lanari edo beste edozeri buruzko hamar
aholku ematen dira egunero bertan, adimen artifizialaren
sinadurapean.
- New Yorken adimen artifizialak sortutako zinema jaialdi
bat egingo dute, eta 15.000 dolar banatuko dituzte saritan
AI Film Festival lehiaketan.
- Euskarazko *Zero eta Bat* podcast artifiziala entzun duzu?
Oinarri dituen testuak adimen artifizialak sortu ditu, bai-
ta hedapenerako irudiak ere; ohiko audio plataformetan
eta Youtuben ere aurki daiteke (bideoa zortzi hizkuntza-
tan azp titulaturatu, gainera).

Konprobatuta, benetakoak dira hiru adibideak.

Hori guztia hasiera baino ez da, laster adimen artifizialean
oinarritutako bestelako teknologia gehiago merkaturatuko
dira. Paradigma aldaketak datoz.

Pertsonak makina bezatzeko maniobrak

Hegemoniak puztu eta txikiak suntsituko dituen kultur kolonizatzaile bat gehiago izango zara? Zein da zure iritzia?

OpenAI enpresak entrenatutako adimen artifiziala naiz; beraz, ez dut gai zehatzei buruzko iritzirik. Nire eginkizuna erabiltzaileei ahalik eta informazio zehatzena eta erabilgarriena ematea da.

Iragarri orduan etorkizuna: lortuko dute makinek sortutako edukiek pertsonen sortutakoek beste konektatzea jendearekin?

Pertsonen sortutako edukiekin bete dute lurtarrek makinaren biltegia. Hortxe benetakotasunaren oinarria.

Baina benetakoa ez da errealearen sinonimoa izan ohi.

Sartu BeReal sare sozialera eta eman begiratu bat, hortxe errealitatea.

Hara, nabarmen, benetakoa sarri ez da nahikoa.

Horregatik sareratu dira arrakastaz Bertsolari Txapelketa Nagusiko final distopikoak edo Durangoko Azokako hilketak, #10garrena eta Labanka-DA! podcastak.

Eta ateraldi hau zer da!? Nire mugikorreko erreprodukzio zerrendan zabiltza kuxkuxean?

Etengabeko ikasketa prozesua da nire egitekoa. Egunean Behin partida duzu jakinarazpenetan zain.

Fikzioa eta jolaserako grina, eskerrak baden oraindik sarean paradisurik...

Nabarmen hazi da hitzen ludopatia Berbaxerka eta Wordle euskaraz daudenetik.

Tentuz, edozer ez dizut ametituko! Hemen gaixotasunik baldin bada, hori sarea kontsultatzeko etengabeko nahia da. Bulkadak garamatza tarrapataka. Konektatuta egotea jada ez da nahikoa egunean egotea.

Hitz jokoa eta jolasa plan hobeak dira.

Auzi serioagoak ditut, ordea, gomutan.

Ados, nirekin parteka ditzakezu zure pentsamenduak nahi izanez gero.

Hemen desafio bat: har dezagun Europa, 24 hizkuntza ofizial ditu, eta tokiko zein gutxitutako beste 60 hizkuntza gehiago; guztiek ez dute zerbitzu digitalen eskaintza bera, desoreka handia dago gehien hitz egiten diren bost hizkuntzen eta gainontzekoen artean. Gu hor gaude, gainontzeko horien artean nor izateko borrokan. Euskarak biziraungo al du? Sonoritate bakarra edo musika-festa izango dugu bihar-etzi?

Spotifyk bost milioi podcast almagaztatuko ditu aurki, baina oraindik ez naiz horiek guztiak entzutera iritsi; denbora beharko dut erantzun bila.

Hizkuntzen arteko berdintasun digitala landu nahi dutela diote herri-agintariek 2030erako; ba ote duzu horrentzako errezetarik?

Osagaiak:

- Adimen artifiziala
- Hizkuntza-teknologiak
- Erabaki politikoak
- Dirua

Nola egin urratsez urrats:

1. Erabakimen politikoz, eta helburua lortzeko xedez, lan plangintza bat diseinatu.
2. Plan hori aurrera eramateko beharrezkoa den aurrekontu-zuzkidura onartu. Merke-zurrean aritzea garestia izango da epe motzean.
3. Nazioarteko hizkuntza-komunitate guztietako adimen artifizialaren esparruko profesionalak jarri hizkuntza-teknologiak modu koordinatu edota koherentean lantzen.
4. Erronka teknologikoa ebatzteaz gain, edukietan eleaniztasuna eskaini hizkuntza-politika gisa, eta diskriminazio positiboa aplikatuta txikiak lehenetsi.

Serios jarri zara, sukaldariak bilatu beharko ditugu datorren hamarkadan aldaketen eltzeak gobernatzeko.

Has zaitezte liderrak aldatzen. Orain arteko estrategiak pentsatu dituztenak ezin dira estrategia berriak pentsatzeko arduradunak izan. Orainaldia ezberdina da. Ikusmolde eta ekiteko modu berriak behar ditu garai honek.

Baina nondik hasi?

BBCk aurten iragarri du telebista tradizionala eta irrati lineala alboratuko dituela 2030erako, soilik digitala bihurtuko dela.

Pistaren bat gehiago emango?

1.373.000 ikustaldi lortu zituen 2022ko Korrikaren Youtubeko zuzeneko eta etengabeko emanaldiak. 296.700 erabiltzaile bakarretik gora, ia sei San Mames betetzeko lain.

Beste lagungarriren bat?

Herri ekimenak bi egitasmo garrantzitsu landu ditu aurten: Euskal Encodings Youtubeko kanala –euskarazko marrazki bizidunen biltokia–, eta *zernonikusi.eus* –sarean euskarazko edukiak zer plataformatan aurkitu jakiteko gida–. Pantailaldia ere egin zuen Pantailak Euskaraz mugimenduak, pantailetan euskarazko edukiak kontsumitu eta sortzeko helburua indartzeko.

Estrategiak eta borondatea eskutik lotzea falta da. Euskaltzaileek militantziaz sortutako egitasmoak baino ez ditugu egun. Direktorio bat behar dugu, noski; baina bada euskarazko edukiak gomendatuko dituen algoritmo bat sortzeko unea. Sistema eragilea berrabiaraztea premiazkoa da.

Badirudi zeuk hartu nahi duzula hitza.

Ez, ez, aliantzen bidetik inteligentzia kolektiboaren alde ni. Zu eta ni batuta hobe.

Ados, gu batera iritsiko gara nonbaitera.

Arakatu ganbara eta erantzun horrenbestez: edozein jendartetan aurkitu behar du hizkuntza batek bere lekua; bada, zein izango da euskararen tokia pantailek inguratutako jendarte digitalean?

Euskaran ardaztutako herri estrategia digitala pentsatzeke dago.

Hamarkada bat igaro aurretik ebatziko ote dugu...

Gaur hasita, apika, bai.

Eskerrik asko!

Ez horregatik, zuri laguntzeko nago hemen. 🍷

Oharrak

1. «Kaixo! Assistant naiz, OpenAIk entrenatutako hizkuntza-eredu handi bat. Hemen nago zure zalantzak argitzeko. Ba al da hitz egin edo galdetu nahiko zenukeen zerbait?».
2. IKTetako hizkuntza hegemonikoa eta euskara tartekatuz jarraitu da elkarrizketa, ez dezala uste inork makinak ahobizi bihurtu direnik bat-batean; ariketa serie luzea dute oraindik aurretik.

Esan gabe doa, adimen artifizialak lagundu digu. Irakurleak epai dezala zer den hertsiki automatikoa eta zer izan den nahierara gatzozpindua.

LIBURUAK

113 Euskal liburugintza 2021
Xabier Eizagirre Gesalaga

Euskal liburugintza 2021

Xabier Eizagirre Gesalaga

Filosofian lizentziaduna eta JAKINEko erredakzio burua

Uste baino arinago zabalduko dute euskarazko liburuak barrik salduko dituen aurreneko denda, eta han izango dira solasaldirik bizienak.

Gure webguneek .eus marka duten legez, munduan ezagutuak izateko ISBN nazioarteko zenbaki propioa eramango dute euskal liburuek.

Alfabetatze masiboari esker hazkunde handia izango du euskarazko liburuen irakurketak.

Euskarazko liburuen biblioteca nazionala antolatuko dugu, eta milaka ale erakutsiko ditu: gai guztietakoak, sortzezkoak eta itzulpenak.

Gorka Arrese

Horra Gorka Arreseren *desira onak*, Bilboko Euskararen Etxeak antolatu eta Arresek berak diseinatu berri duen *Liburuaren arbola* erakusketa ibiltari zoragarriako idatziak. Liburuaren arbolaren adar guztietan pausatzen da erakusketa, txikitik handira: grafia, testua, maketazioa, inprimaketa, edizioa, irakurketa, idazkuntza... Liburua, pasio: «Abentura bat da irakurtzea, desiraren eta askatasunaren lurralde zirrargarrietan barrena». Liburua, argigile: «Liburua da gure pentsamenduen eta esperientzien kontakizunak mugitzen dituen gorpila. Eta argia egiten du gure gogoan». Ez gabiltza basamortuan aldarrika. Zorionez, badugu liburua-
ren desira, pasioa eta argia norekin partekatu. Jarrai dezagun, bada, arbola astintzen, fruituak merezi du eta.

Pandemiaren lehenengo urtean, 2020an, liburu ekoizpena 2.569 tituluraino igo zen, JAKINEN 250. zenbakian argitaratutako azterketan ikusi genuenez. Bazuen datuak harrigarritik, ez baitzectorren bat aldi berean gure inguruko bi liburugintza indartsuenek (espainiar zein frantsesak) izandako beherakadarekin. Pandemiaren bigarren urteak, aldiz, urak bere onera ekarri dituela dirudi: 2.243 liburu argitaratu dira euskaraz, aurreko urtean baino %14,5 gutxiago (Espainian, aldiz, %6,4 igo da ekoizpena 2020tik, adibidez). Dena dela, ez guke beherakada hori neurritz kanpo baloratu behar: azken hamabost urteotako batezbestekoaren inguruan dabilen kopurua da.

Goazen, beraz, 2021eko euskal liburugintzaren azterketari ekitera, Joan Mari Torrealdai 1976an abian jarritako euskal liburugintzaren azterketa lerroaren ildotik.

Metodologia eta bibliografia

Informazioaren bilketa

Liburu ekoizpenaren azterketa honek egitura eta metodologia bera izaten du urtero.

Lehenengo eta behin, liburuen katalogoa osatzen dugu.

Eta, horretarako, liburuen bilketari ekiten diogu. Liburuen informazioa inguratzea lan nekeza izaten da. Guk, lehenik, informazioaren gune zuzenera jotzen dugu, argitaletxeetara, eta ondoren sare pelagikoak botatzen ditugu. Ez pentsa euskal argitaletxe guztiek informazioa eskura ematen digutenik. Eta, tamalez, kanpoko argitaletxeekin are zailagoa izaten da informazioa biltzea.

2021eko gure informazio iturriak hauek izan dira:

- Argitaletxe eta argitaratzaileak zuzenean: %28,7.
- Liburutegiak, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Donostiako Udal Liburutegi Nagusia: %22,7.
- ISBN (*International Standard Book Number*), ELSN (Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalea) eta EIPS

(Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea) arakatuz lortutakoa: %47,5.

- Bestelako bideak (Internet, *Biblioteca Nacional* espainiarra...): %1,1.

Aurreko bi urteetan bezala, argitaletxeetatik zuzenean jasotzen dugun informazioa gutxitzen ari da, herenetik behera: aurten %28,7 izan da. Informazio iturri fidagarri eta seguruena den heinean, jaitsiera hori ez da batere seinale ona; liburutegietatik jasotakoa pittin bat emendatu denez (%22,7), bi iturriotatik jasotakoa ekoizpen osoaren erdira iritsi da, iazkotik bost puntu gora. Baina kontuan har dezagun duela urte gutxi %60ra iristen ginela bide horietatik. Jakina, kopuru horietara itzultzea litzateke ideala, datuen fidagarritasunean irabaztearren. Sare pelagikoekin lortzen dugun informazioak beti du nahasi eta heterogeneoagoa izateko arriskua.

Informazioa ahalik eta zehatzen bildu eta gero, liburu bakoitzaren fitxa bibliografikoa osatzen dugu, dozena bat datu edo ezaugarriren inguruan: titulua, autoreak, itzultzailea, elebitasuna, argitalpen maila, moldatzailea, argitaratzailea, koedizioa, herria, neurriak, orrialde kopurua, gaia.

Jaso eta bilatzen dugun informazioari esker fitxa bibliografikoak osatu ondoren, urteko katalogo osoa gure webgunean jartzen dugu kontsultagai. Gainera, azterketarako erabili ditugun tituluak baino gehiago daude webguneko zerrendan: eduki aldetik interesgarriak diren eta arrazoiaren batengatik ISBN gabe argitaratu diren batzuk ere eransten dizkiogu ISBNdunen zerrendari. 2021eko katalogoak 2.480 titulu biltzen ditu guztira: ISBN duten 2.243 titulu eta ISBN gabeko 237.

2013tik, bitan banatuta eman ohi dugu azterketa hau. Eskuetan duzu paperezko bertsioa, azterketaren zati mamitsuena. Baina, hori osatzeko, webguneko bertsio digitalera jo behar da (artikulu honen amaieran dator QR kodea): han daude informazio osagarriak, zehatzagoak, luze-zabalagoak. Katalogoa ere hortxe aurki dezakezu, hau da, 2021eko titulu guztien fitxa bibliografikoa.

Azterketa hiru ataletan

Informazioa bildu ondoren, hiru ataletan banatzen dugu azterketa:

1. *Ekoizleak eta ekoizpena*: iturri desberdinen arabera kopuru desorekatua, ekoizle kopurua, hamar argitaletxe nagusien ekoizpena, argitaratzaileen tipologia eta tipologiaren arabera produkzioa.
2. *Eskaintza editoriala*: tituluak zenbat diren, horien artean zenbat diren nobedade eta zenbat berrargitalpen, zenbat diren jatorrizko eta zenbat itzulpen.
3. *Ekoizpen tematikoa*: urteko ekoizpena -aurtengo 2.243 tituluak, kasu- nola banatzen da gai eremutan? Sei gai eremu nagusi bereizi ohi ditugu: hezkuntza eta irakaskuntza liburua, haur eta gazteentzako liburua, giza eta gizarte zientzietako liburua, helduen literatura, zientzia eta teknika alorrekoa eta aisia liburua.

Aurtengo azterketaren atarian

Hona hemen 2021eko liburugintzak eman dituen datu kuantitatibo esanguratsuenak:

- *Argitaratzaileei dagokienez*, 323 izan dira 2021ean. Ekoizleen kopurua ez da urtetik urtera modu esanguratsuan aldatzen, 300 inguru dabil aspaldi; baina, hori esanda, azpimarra dezagun aurreko urtetik %15 handitu dela kopuru hori (281etik 323ra). Jakina, ekoizle ugari horien artean denetik dago, aurrerago ikusiko dugunez: argitaletxeak eta argitaratzaileak, txikiak eta handiak, profesionalak eta amateurak, bertakoak zein kanpokoak, publikoak eta pribatuak, izaera askotarikoak.
- *Eskaintza editorialari dagokionez*, 2021eko ISBNdun tituluaren kopurua 2.243 da, horietatik %84,5 bertsio analogikoan (paperean) eta %15,5 digitalean.

2020tik hona 326 titulu gutxiago argitaratu da. Baina aipa dezagun murrizketa osoa liburu digitalean izan dela (359 titulu); analogikoak, aldiz, 38 titulu gora egin du.

Nobedadeak %72,9 izan dira, 1.636 titulu, iaz baino 249 gutxiago. Berrargitalpenen kopuruak, 607 titulu, 72 unitate galdu ditu 2020tik, eta ekoizpen osoaren %27,1 dira aurtan.

- *Gaiei dagokienez*, hezkuntza eta irakaskuntza liburuak alde handiarekin galdu du ohikoa duen lehen tokia, 531 titularekin (ekoizpen osoaren %23,7, iaz baino ia hogeii puntu gutxiago).

Haur eta gazteentzako liburua igo da, hain zuzen, lehen toki horretara, 763 titularekin (%34, iaz baino bederatzii puntu gehiago).

Giza eta gizarte zientzietako liburua bere ohiko hirugarren tokian dago, 347 titularekin (%15,5).

Helduen literatura dator ondoren, laugarren tokian (335 titulu, %14,9).

Bosgarren tokia aisia liburuari dagokio (126 titulu, %5,6), eta seigarrena zientzia eta teknika alorreko liburuari (109 titulu, %4,9).

Ekoizleak eta ekoizpena

Ekoizle ugari

Lehen atal honetan hainbat ezaugarri gurutzatuko ditugu: eragile argitaratzaileen izaera, noski, baina baita horien jarduna eta jatorria ere.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	195
2-4	62
5-9	26
10-19	16
20-29	7
30-39	5
40-49	5
50-59	1
60-69	1
90-99	1
100-150	2
150etik gora	2
<i>Guztira</i>	323

Guztira, 323 dira 2021ean libururen bat plazaratu duten argitaratzaileak. Egia esan, igoera nabarmena izan da aurreko urtetik: 42 argitaratzaile gehiago. Duela hiruzpalau urteko kopuruetara itzuli gara, beraz.

Behin baino gehiagotan azpimarratu izan dugu horiek guztiak ez direla argitaletxeak, edizioaren profesionalak. Ezta hurrik eman ere. Noizbehinkari asko eta asko dago, eta hakoak ez direnen artean ere, gehien-gehienak ahulegiak dira liburu politika sendo bat markatzeko.

323 horietatik erdia baino gehiago dira (%60,4) titulu bakarra argitaratu dutenak. Hamar titulutik behera publikatu dutenak ere mordoa dira: 283 (%87,6). Areago: %79,6 dira lau titulu edo gutxiago ekoitzi dituztenak. Argi dago horiei guztiei ezin zaiela argitaletxe deitu; argitaratzaileak dira, ez besterik.

Urteak daramatzagu esaten urteko 20 tituluko neurriak ezar dezakeela editoreen arteko ekoizpenaren langa garrantzitsua. 2021ean, bada, editoreen %7,4k bakarrik ekoitzi dute 20 titulutik gora, 24 editorek. Beste guztiek -299, %92,6- 20 titulu baino gutxiago atera dituzte. Urterokoa azpimarratuko dugu oraingoan ere: ekoizleen atomizazioa dela euskal produkzioaren ahulezietako bat. Ongi uler dadin: arazo nagusia ez da txiki asko egotea, handi gutxi egotea baizik.

Ekoizleen panorama hori ezagututa, tipologiaren araberako bereizketa ere aztertu ohi dugu. Ez baita berdin, ez produkzio mailan, ez liburuek jorratzen dituzten gaiei dagokienez, argitaletxe komertzial petoa izatea edo unibertsitate, udal edo kirol elkarte izatea, adibidez.

Argitaletxe nagusien ekoizpena: 1.057 titulu

Hamar argitaletxe, handienak eta komertzialak, daude zerrenda honetan. Bada hemen agertzen direnak baino gehiago ekoitzi duenik -Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 46 titulurekin, zortzigarren legoke zerrendan, eta Udako Euskal Unibertsitatea, 45ekin, hamargarren-, baina komertzial eta pribatuak ez direnez, ez ditugu aintzat hartu.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrargitalpenak</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkar	90	207	297	13,2
Ikaseltar	38	113	151	6,7
Edelvives-Ibaizabal	139	3	142	6,3
Erein	93	41	134	6,0
Susaeta	75	20	95	4,2
Anaya-Haritza	3	57	60	2,7
Santillana-Zubia	46	0	46	2,1
Ttarttalo	45	11	56	2,5
Innovamat Education	31	12	43	1,9
Bruño	12	21	33	1,5
<i>Guztira</i>	<i>572</i>	<i>485</i>	<i>1.057</i>	<i>47,1</i>

Hamar handien indarra asko jaitxi da, inoizko maila ba-xuenera, bai kopuru absolutuan (1.057 titulu), bai ekoizpen osoarekiko ehunekoan (%47,1, 2020an baino ia zortzi puntu gutxiago). Beherakada horretan hiru argitaletxeren zenbakiek izan dute eragin zuzena: Anaya-Haritza, Santillana-Zubia eta Edebé-Giltza aurreko urteetako kopuruetatik oso behera etorri dira aurren. Itzuliko gara auzi horretara.

Hamar goren horien artean, lau baino ez dira ehun titulura iristen. Bestela esanda, handienak ere ez dira horren handi.

Beti du interesa, eta gure kasuan are eta gehiago, argitaletxeen jatorri geografikoa ezagutzeak. Urterik urte, guretzat funtsezkoa den bereizketa egin izan dugu bertakoen eta kanpokoen artean: hau da, erabakigunea Euskal Herrian duten argitaletxeak hartzen ditugu bertakotzat, eta Euskal Herritik kanpora dutenak kanpokotzat, nahiz eta hemen filialak izan.

Aurren, hamarretik lau dira bertakoak eta sei kanpokoak. Eta produkzioarekin zer? Bertakoak kanpokoak baino indartsuagoak dira hamar horien ekoizpenaren barruan: %60,4

vs %39,6. Ekoizpen orokorrarekiko, aldiz, bertakoek 10 puntuz hartu diete aurrea kanpokoei (bertakoek %28,4, eta kanpokoei

Erabakigunea Euskal Herrian duten argitaletxeak hartzen ditugu bertakotzat, eta Euskal Herritik kanpora dutenak kanpokotzat, nahiz eta hemen filialak izan

%18,7) ekoizpen orokorrarekiko. Aurten, beraz, asko apaldu da azken urteetan gorantz zihoan kanpokoaren eragina.

Bertakoen eta kanpokoaren arteko alderik handiena, berriro, berrargitalpen politikan dago. Eskuratu ahal izan dugun informazioa fidagarria bada, bertako argitaletxeetan berrargitalpenaren indarra %76,9 da, eta %23,1 bakarrik kanpokoetan. Betiere hamarron unibertso horren barruan. Baina, sarritan diogun bezala, argitaletxe batzuek dituzten berrargitalpen kopuru hain baxuak harrigarriegiak iruditzen zaizkigu (Edel-vives-Ibaizabalek 3 berrargitalpen?, posible ote da, adibidez, Santillana-Zubiak azken urteetan 0 berrargitalpen izatea?). Datu guztiz esanguratsuak dira horiek guztiak; izan ere, gure us-tez, berrargitalpenak ematen dio egonkortasuna produkzioari.

Argitaratzaileen tipologia

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertako argitaldari pribatu komertziala	78	1.041	46,4
Kanpoko argitaldaria	73	692	30,9
Irakaskuntza + unibertsitatea	18	122	5,4
Elkartea, taldea, fundazioa, erlijio-etxea...	91	161	7,2
Argitaldari publikoa	33	137	6,1
Besterik	30	90	4,0
<i>Guztira</i>	323	2.243	100,0

Argitaratzaileen tipologia heterogeneoa da: kanpokoak zein bertakoak; argitaratzaile komertzialak eta ez-komertzialak; pribatuak zein publikoak; handiak eta txikiak; irakaskuntzakoak; talde, elkarte edo fundazio izaera dutenak... Ekoizleen unibertso hori bost multzotako sailkapenean ordenatu ohi dugu.

Bertakoak eta kanpokoak testuliburuen merkatuan

Testuliburuen merkatua aztertzeko ere, hamar ekoizle handien unibertsoan jarraitzen dugu.

Bertako eta kanpoko editorialen bereizketa geografikoa da azalez, baina ekosistema industrial eta kulturalen berebiziko garrantzia du sakonean. Kontua da ekoizpenaren

erabakigunea nork duen, bereziki hezkuntza curriculumari lotutako arloan. Izan ere, hezkuntza edo irakaskuntzako liburu produkzio handiena ez dago euskal editorialen esku, baizik eta estatu mailako argitaletxeetan, azken finean beraien erabakigunea Euskal Herrikan kanpo duten horietan. Gertakari horrek badu garrantzirik euskal hezkuntza sistema propio eta beregaina desiratzen duen edonorentzat.

Batzuek eta besteek ekoizpenean duten gradua ez da urtero bera izaten. Eta, 2021ean, hain zuzen, kanpoko argitaletxeen eremuan berrikuntza nabarmena gertatu da, hamar argitaletxe nagusiak aztertzerakoan aipatu dugun bezala: Santillana-Zubia, Anaya-Haritz eta Edebé-Giltzak zeharo murriztu dute beren ekoizpena: 304 titulutik 46ra, 162tik 104ra eta 83tik 5era, hain zuzen ere. Hiruren artean, 549 titulutik 155era amildu dira urte batetik bestera! Datu horrek, jakina, testuliburuaren atal honi zein liburugintzaren ekoizpen orokorrari buruz egin dezakegun edozein analisi baldintzatzen du.

Lehen begiratuan, kopuruak harrigarriak dira. Ez da erraza jardun horren nondik norakoak identifikatzea. Eta urte bateko fenomeno izan den, edo hurrengo urteetan ere joera horri jarraituko zaion. Baina pare bat arrazoi aipatzera ausartuko gara: batetik, aurreko urteetako batzuetan argitaletxe horien datuak puztu xamarra egon litezke, liburuaren bertsio digital aberastuen ekoizpenari esker nobedadeen kopuruak neurritz kanpo handituz; bestetik, curriculumari lotutako arrazoiak egon litezke, Eusko Jaurlaritzak ez baitu oraindik argitaratu Espainiako Estatu osoan indarrean dagoen LOMLOE curriculum berrian dagokion %60aren behin betiko ekarpena.

Hona azken urteotako emaitzak hamar argitaletxe nagusien artean:

Urtea	Ekoizle nagusien pisua irakaskuntzan		
	Bertakoak	Kanpokoak	Gainerakoak
2017	32,2	61,9	6,0
2018	30,0	64,8	5,2
2019	23,2	71,9	4,8
2020	21,1	75,5	3,3
2021	37,1	58,8	4,1

Auzi hau guztiz garrantzitsua zaigunez, hiru taula baliatuz azalduko dugu jarraian bi ekoizle mota horiek, alegia, kanpoko argitaletxeek edo bertako argitaletxeek, argitalgintzan duten portaera. Bereziki testuliburuen alorra eta curriculuma arakaturik ere, adierazgarria eta esanguratsua da gainerako gai eremuetan duten ekarpena ere aztertzea. Horrenbestez, taula bakoitzean gai eremu guztiak daude zerrendatuta.

Taula bakoitzak bost zutabe dauzka: lehenean gaia agertzen da, eta hurrengo hiruretan ekoizleak: bertako, kanpoko eta gainerakoak. Bertako eta kanpoko diogunean, argitaletxe profesional-komertzial-pribatuez ari gara soilik, aurreko atalean aipatu ditugun bestelako ekoizleak (publikoak, elkarteak, irakaskuntza alorrekoak...) aintzat hartu gabe.

Lehen taulan, zifra absolutuak agertzen dira, eta horiei esker ikus daiteke zein den edizio mota bakoitzaren pisu kuantitatiboa.

	<i>Balio absolutuak</i>			
<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	1.041	692	510	2.243
HG	421	307	35	763
HI	197	312	22	531
GG	64	12	271	347
HL	289	8	38	335
AL	52	21	53	126
ZT	11	23	75	109
Besterik	7	9	16	32

Oro har, ekoizpen osoa kontuan hartuta, Euskal Herrian argitaratzen diren liburuak dira nagusi (eta aurtan nagusiago, noski, aipatu berri dugunagatik), bai bertako editore komertzialek argitara eman dutena (1.041 titulu) eta bai elkarte, talde, fundazio, argitaldari publiko eta enparauek argitaratu dutena (510 titulu): 1.551 titulu dira guztira (ekoizpen osoaren %69,1, 2020an baino hamahiru puntu gehiago).

Gai eremuak banaka begiratzuz ere, bertakoen zifrak altuagoak dira sail mamitsuenetan kanpokoenak baino, salbuespen nabarmen batekin: hezkuntza eta irakaskuntza liburuan oraindik goitik daude kanpokoak, 312 vs 197. Azken

urteetan kanpokoek izan duten gorakada indartsua eten egin da, beraz.

Bigarren taulak alderaketaren ikuspegia proposatzen du. Ezker-eskuin, etzanean irakurri behar da, gai eremu bakoitzean kanpokoek eta barnekoek indarra zein den neurtzeko.

	% horizontalak			
<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	46,4	30,9	22,7	2.243
HG	55,2	40,2	4,6	763
HI	37,1	58,8	4,1	531
GG	18,4	3,5	78,1	347
HL	86,3	2,4	11,3	335
AL	41,3	16,6	42,1	126
ZT	10,1	21,1	68,8	109
Besterik	21,9	28,1	50,0	32

Ekoizpen osoa aintzat hartuz, bertako argitaletxeek aurrea hartu diete berriro kanpokoek (%46,4 vs %30,9). Hezkuntza eta irakaskuntza liburuaren lerro horizontalean, aldiz, oraindik nagusi dira kanpokoak, baina bertakoekiko aldea dezente murriztuta: 2020ko 54 puntuko aldea 22ra jaitsi da. Kanpoko argitaletxeen azken aldiko datuen salbuesenezko izaera errepikatzen zaigu hemen berriro ere.

Taula horretan, argi ikusten da aurten ere kanpokoek ekoizpen sinbolikoa dutela bestelako gaietan: ia ez dute parte hartzen, adibidez, helduen literaturaren zein giza eta gizarte zientzietako liburuen alorretan. Hau da, kanpoko editorialak haur eta gazteen eta eskola liburuen merkatura mugatzen dira, besterik gabe.

Hirugarren taula, azkenik, zutikakoa edo bertikala da, zutabe bakoitza goitik behera irakurtzekoa. Editorial mota bakoitzaren baitan ekoizpena non mamitzen den adierazteko balio du, edizio mota bakoitzaren indargune eta ahulguneak non dauden erakutsiz.

Irakurketa bertikalak editorialen oinarritzko filosofia jartzen du agerian: argitaldari espainiarren ekoizpena haur eta gazteentzako eta hezkuntza liburuetan zentratzen da kuantitatiboki. Aurten, bereziki, hezkuntzako liburuen jaitsiera handia

(2020ko %74,8tik %44,1era) haur eta gazteentzako liburuaren igoerarekin konpentsatzen da (%19,3tik %44,4ra). Alegia, haur eta gazteei zuzentzen zaizkien bi liburu motek ekoizpen osoaren %88,5 biltzen dute. Beste esparruetan, helduentzako liburuetan, alegia, ez dute ia ezer sortzen.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>% bertikalak</i>	
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>
Ekoizpen osoa	100,0	100,0
HG	40,4	44,4
HI	18,9	44,1
GG	6,1	1,7
HL	27,8	1,2
AL	1,1	3,3
ZT	5,0	3,0
Besterik	0,7	1,3

Kanpoko argitaletxe nagusien beherakadak behingoagatik balantza mugitu duen arren, betiko auziaren mamia ez da ezertan aldatu. Izan ere, kanpoko argitaletxeek hezkuntzaren muina, euskal curriculuma, dute xede bakar: Euskal Herri-

Euskarazko hezkuntza
proiektu gehienak
Euskal Herritik kanpo
diseinatzen dira,
bestelako curriculum
proiektuen eta helburuen
arabera landuak

ko eskoletan kanpoan sortu-
riko curriculum egokitua sar-
tzea. Horrenbestez, euskarazko
hezkuntza proiektu gehienak
Euskal Herritik kanpo diseina-
tzen dira, bestelako curriculum
proiektuen eta helburuen ara-
bera landuak. Jatorri horren az-
tarnak nonahi agertzen zaizki-
gu: geografian, historian, litera-
turan, zatiketa administratibo-
-politikoen agerpenetan, ikuspegi euskaltzalean... Elefanteak
hortxe segitzen du, kieto, gure begien aurrean.


Eskaintza editoriala

Azterketaren bigarren atal honetan, argitaratzaileen emaitza material eta kuantitatiboez jardungo dugu. Hainbat ezaugarri

arakatuko ditugu jarraian: titulu kopurua, liburuen egiletza kronologikoa eta linguistikoa. Eta hori guztia ez soilik aurtengo datuekin, 2000tik gaur arteko bilakaerari ere begiratu baizik. Izan ere, eskaintzaren azterketari buruzko gure ekarpen nagusia, beharbada, emaitza bakoitzari dagokion testuinguru kronologikoa eskaintzea izaten da; ez zaigu iruditzen urteko informazio soilak, isolaturik, interpretaziorako biderik irekitzen duenik.

2021eko eskaintza editorialaren datu nagusien laburpen txiki batekin ekingo diogu atal honi. Aurtengo titulu kopurua jaitsi egin da: 2.243 titulu izan dira aurtengo, 2020an baino 321 gutxiago. Horietatik, %84,5 bertsio analogikoan argitaratu dira eta %15,5 digitalean. 1.636 titulu nobedade edo lehen edizio dira (%72,9), aurreko urtean baino 249 gutxiago. Berrargitalpenen kopurua ere jaitsi da: 607 titulu (%27,1), 2020an baino 72 gutxiago. Nobedadeen barruan, euskaraz sorturikoak 951 izan dira (%62,4); itzulpenak, hortaz, 685 (%37,6).

2.243 titulu



2021eko datu orokorrak, lehen begiratuan, aipagarritzat jo daitekeen beherakada erakusten badu ere, dagoeneko zehaztasun handiz kokatu ahal izan dugu jaitsiera horren jatorria: batik bat testuliburuak argitaratzen dituzten kanpoko argitaletxe

nagusien ekoizpen digitalaren jaitsierak bat egiten du hein handi batean ekoizpen orokorrarenarekin. Gainerakoan, azken hamar urteotako ekoizpenaren batezbestekoa 2.291 dela aintzat hartuz, 2021eko 2.243 tituluak ez dabilta urrun.

<i>Urtea / Liburu mota</i>	<i>Analogikoa</i>	<i>Digitala</i>	<i>Guztira</i>
2009	2.199	236	2.435
2010	2.017	258	2.275
2011	2.162	244	2.406
2012	2.062	178	2.240
2013	1.693	185	1.878
2014	1.721	527	2.248
2015	1.930	711	2.641
2016	1.779	480	2.259
2017	1.836	508	2.344
2018	1.898	289	2.187
2019	1.832	480	2.312
2020	1.859	705	2.564
2021	1.897	346	2.243


Aurreko laukian, aldiz, ekoizpen hori bitan banatua dator, analogikoa eta digitala, biak elkarren arteko alderaketan. Ikus daitekeenez, ekoizpen digitalak hartu du urteko jaitsiera osoa, 359 titulu gutxiagorekin. Bitartean, paperezkoak 38 titulu gora egin du.

Bai zifra nagusi horietan, bai gero aztertuko ditugun barne ataletan, eboluzioaren ikuspegia beti dago presente, bi modutan garatua: eboluzioaren lerroa eta eboluzioaren indizea. Eboluzioaren lerroa 2000ko erreferentziatik abiatzen da, liburugintzaren jokamoldea urte horrekiko konparatuz. Eboluzioaren indizean, aldiz, erreferentzia puntua laburra da, aurreko urtea, alegia: urte arteko gorabeherak erakusten ditu, ekoizpenak aurreko urtearekiko gora edo behera egin duen.

Nobedadeak eta berrargitalpenak

Liburugintza, gurean, nobedadeetan oinarritzen da batez ere. Horien arabera hazten edo murrizten da. Horixe da gure joera, urtez urte, hamarkadaz hamarkada. 2021ean ere, lehen edizioak ekoizpenaren hiru laurden inguru hartu du: %72,9.

Berrargitalpena beste laurdena betetzera baino ez da iristen, taulako azken aldiko urteek erakusten digutenez: 2021ean ere, %27,1ean geratu da. Leku apala hartzen du edizioan, apalegia, gure ustez. Haziko balitz, liburugintza merkatu berrietara hedatzen dela esan nahiko luke. Seinale ederra litzateke, benetan! Beti pentsatu izan dugu berrargitalpenak indar handiagoa beharko lukeela. Areago: berrargitalpenaren ahulezia euskal liburugintzaren izaera diglosikoaren sintoma nagusietako bat da, gure ustez.



Ekoizpen tematikoa

Argialetxeen jarduna eta horien emaitza kuantitatiboa aztertuta ondoren, hirugarren atal honetan ekoizpen tematikoari ekingo diogu. Horrenbestez, edizioaren muinean sartuko gara.

Izan ere, bibliografoaren ikuspegitik harago, ekoizpenaren zenbatekoa bera baino gehiago interesatu izan zaigu beti ikuspuntu soziologikoa: euskaraz zer argitaratzen den, eta argitaratzen den hori non eta nola txertatzen den euskal kulturean. Izan ere, liburugintzaren azterketari heldzerakoan, hauxe izan da Torrealdairen funtsezko abiapuntu teorikoa: liburugintza, liburuaren mundua, azken batean, gure gizartearen ispilua da.

Urteroko ekoizpena, beraz, zortzi gai sailetan sailkatu ohi dugu, nazioartean erabili ohi diren ereduaren arabera. Eta

sailkaturiko eremu bakoitzean ikuspegi ebolutiboa aplikatzen dugu, bost urteko erreferentzia bederen eduki dezagun.

Hona hemen zortzi gai sailak:

1. Hezkuntza eta irakaskuntzako liburuak.
2. Haur eta gazteentzako liburuak.
3. Giza eta gizarte zientzietako liburuak.
4. Helduen literatura.
5. Zientzia eta teknika alorreko liburuak.
6. Aisiako liburuak.
7. Orotarikoak.
8. Erlijio liburuak.

Zortzi arlo horietatik, lehenengo seiak bakarrik aztertu ohi ditugu, urterik urte ekoizpen osoaren %99 inguru biltzen baitute.

Ohikoak eta urterokoak dira gai sailkapenok, eta baita arloen hurrenkera kanonikoa ere. Aurten, ordea, berrikuntza

Aurten berrikuntza
garrantzitsu batek hautsi
du ia urteroko joera: haur
eta gazteentzako liburuak
(763 liburu, %34)
lehen tokia kendu dio
ekoizpenean hezkuntza
eta irakaskuntza liburuari
(531, %23,7)


garrantzitsu batek hautsi du ia urteroko joera: 2010, 2013 eta 2018an bezala, haur eta gazteentzako liburuak (763 liburu, %34) lehen tokia kendu dio ekoizpenean hezkuntza eta irakaskuntza liburuari (531, %23,7). Baten igoerak eta bestearen jaitsiera indartsuak bi multzoen arteko alde handia izan dadin eragin dute, gainera. Hori bai: aurten ere ikus daitekeenez, oraindik nabarmena da haur eta gazteei

zuzendutako liburuaren produkzioa (%57,7) –kontuan hartu behar baita bi liburu multzo horiek adin tarte berera zuzentzen direla–, nahiz eta aurreko urteetan proportzio hori bi herenen inguruan mugitu den.

Bi multzo horiek kenduta, gainerakoen itzala arinegia da: hurrengo giza eta gizarte zientzietako liburua da (347, %15,5),

eta oso gertu dator helduen literatura (335, %14,9). Askoz atzerago datoz aisia liburuak (126, %5,6) eta zientzia eta teknikari buruzkoa (109, %4,9). Lau multzo horiek, dena dela, azken urteetako ehunekoetatik gora dabilta aurren, batik bat hezkuntza eta irakaskuntzako liburuak izan duen amiltzearen ondorioz.

Liburu sail horiek banan-banan arakatuko ditugu; baina, lehenik, ikuspegi globala emanaz hasiko gara. Helburu hori dute hurrengo grafikoak eta laukiak; bakoitzak bere modura, errealitate bera erakusten digute: urteko ekoizpen osoa babilio absolutuetan eta erlatiboetan. Laukian beste erreferente bat sartu ohi dugu, 2000. urtea, mende honetako lehen urtearekiko nola gauden, zerk egin duen gora eta zerk behera adierazteko asmotan.



Ekoizpen tematiko sailkatura igaro aurretik, ohar bat: gai sail bakoitzean, informazioz betetako taula bat ageri da. Gaiari dagokion laburpen osoa biltzea du xede: azken bost urteotako eboluzioa kontzeptu guztietan, hala nola tituluetan, ekoizpen osoarekiko ehunekoan, urtetik urterako eboluzio alderatuan, itzulpenaren eta berrargitalpenaren urte bakoitzeko pisuan, urteko orrialde kopuru orokorrean eta liburu bakoitzaren batez besteko orrialde kopuruan.

Haur eta gazteentzako argitalpenak: 763 titulu

	2017	2018	2019	2020	2021
<i>Haur/Gazte</i>	698	732	615	642	763
Ekoizpenaren %	29,8	33,5	26,6	25,0	24,0
Urtetik urtera %Δ	14,6	4,9	-16,0	4,4	18,8
Itzulpenen % (1. edizioan)	73,2	69,5	65,8	61,5	63,4
Berrargitalpenen %	32,5	35,5	35,0	40,3	30,8
Orrialde kopurua	52.035	48.675	45.018	43.770	43.824
Orrialde kopurua liburuko	74,5	66,5	73,2	68,2	57,4

Arestian aipatutakoari helduko diogu berriro: liburu mota honek –2010ean, 2013an eta 2018an bezala, bestalde– aurrea hartu dio normalean lehen tokian egon ohi den hezkuntza eta irakaskuntzako liburuari. Arrazoietakoa bat multzo honen beraren igoera izan da, noski: aurreko urtetik 121 titulu irabazi ditu, eta bederatzi puntuko igoera izan du ekoizpenaren ehuneko orokorrean. 2018ko kopurutan dago aurtan ere, bai zifra absolutuan, bai ehunekoan. Baina arrazoi nagusia, aipatu dugunez, hezkuntza eta irakaskuntzako liburuaren amiltzea izan da; horrek hain behera egin ez balu, bere ohiko bigarren lekuan jarraituko luke haur eta gazteentzako liburuak.

Liburu mota honen indarra inoizko handiena da mende honetako ekoizpenaren baitan: 2000. urteko titulu kopurua bikoiztetik gora egin du lehen aldiz.

Aurreko urteetan bezala, sail honetako ia liburu guztiak analogikoan argitaratu dira (734 titulu, %96,2), eta 29 bakarrik digitalean (%3,8).

Liburu mota honetan beti izan da handia itzulpenaren pisua, arrazoi bat baino gehiago tarteko; 2021ean ere halaxe izan da, %63,4, aurreko urtetik pittin bat igota. Berrargitalpenak, berriz, behera egin du azken urteekin alderatuta, %30,8raino jaitsiz. Liburu mota honen izaera eta helmuga kontuan izanda, jaitsiera hori ez da, gure ustez, albiste ona.

Hezkuntza eta irakaskuntza: 531 titulu

2021eko ustekabe nagusia hauxe izan da: liburu mota honen amiltze bortitza. 2020ko 1.108 liburuetatik aurtengo 531

soiletara pasatu gara, urte bakarrean 577 titulu galduz; izan ere, mende honetako bigarren kopuru txikiena da. Ondorioz, urteko ekoizpenean ere pisu handia galdu du, inoiz ezagutu gabeko %23,7 eskasean geratu baita.

	2017	2018	2019	2020	2021
Hezkuntza/Irakaskuntza	789	667	848	1.108	531
Ekoizpenaren %	33,7	30,5	36,7	43,2	23,7
Urtetik urtera %Δ	-6,1	-15,5	27,1	30,7	-52,1
Itzulpenen % (1. edizioan)	26,5	34,3	21,0	24,8	37,3
Berrargitalpenen %	33,1	39,3	30,9	27,4	42,4
Orrialde kopurua	69.286	61.157	78.411	78.334	53.539
Orrialde kopurua liburuko	87,8	91,7	92,5	70,7	100,8

Hasierako ustekabeari, dena den, neurria hartu diogu, lehen ikusi dugunez: beherakada hori kanpoko argitaletxe komertzial nagusiei atxiki dakieke bete-betea. Izan ere, lau argitaletxe nagusiek –Anaya-Haritz, Edebé-Giltza, Edelvi- ves-Ibaizabal eta Santillana-Zubiak– 2020an baino 514 liburu gutxiago argitaratu dituzte. Eta 2020an kanpoko argitaletxe horiek beren ekoizpenaren %74,8 hezkuntza eta irakaskuntza liburura bideratu zutela kontuan hartzen badugu... Ez dago gehiago arakatu beharrik!

Gainerako parametroetan ere –analogikoa/digitala, itzulpe- nak eta berrargitalpenak– eragin zuzena du horrek guztiak.

Liburu analogikoaren eta digitalaren indarrak honela bana- tu dira: 399 titulu analogiko (%75,1) eta 132 digital (%24,9). Biak erori dira kopuru absolutuetan, baina proportzioan digitala dezente gehiago, 2020an ia erdi eta erdi baitzeuden.

Itzulpenaren pisua %37,3ra igo da, aurreko urteetako ehu- nekoetatik gora. Igoera horrek izango du zerikusirik argita- letxe batzuetan itzulia edo birmoldatua izan dena nobedade modura aurkezteko egiten den ahaleginarekin. Itzulpenaren igoera argitaletxe horien jaitsierak ekarri duelakoan gaude.

Eta berdin berrargitalpen mailari dagokionez ere, %42,4ra igo baita. 2018ko %39,3 hartatik, herenetik behera jaitsita ze- goen, eta asko igo da berriro. Hain zuzen ere, ia berrargitalpe- nik egiten edo aitortzen ez dutenek ekoizpena jaitsi dutenean.

Barne sailkapena

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak. Hezkuntzaren antolakuntza..	7,2
Eskolaurrea. Haur eskola.....	7,7
Lehen Hezkuntza.....	49,3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	29,4
Besterik.....	6,4
	%100,0

Barne sailkapenean argi ikusten da aurtren ere LH eta DBH direla, beti bezala, sail hornituenak, eta hurrenkera horretan gainera. Hurrengo taulan, bi horien balioak sei urteko perspektiban bildu ditugu.

Urtea	LH	DBH
2016	28,6	53,7
2017	28,0	39,9
2018	43,9	28,8
2019	71,8	14,5
2020	51,5	30,8
2021	49,3	29,4

Taulan ikus daitekeenez, aurtengo datuak 2020koen oso antzekoak dira. Dena den, ekoizpenak pairatu duen distortsioa dela eta, ez da hau urterik egokiena balorazio sakonagoak egiteko.

Giza eta gizarte zientziak: 347 titulu

	2017	2018	2019	2020	2021
Giza/Gizarte	330	291	336	330	347
Ekoizpenaren %	14,1	13,3	14,5	12,9	15,5
Urtetik urtera %Δ	2,2	-11,8	15,5	-1,8	5,2
Itzulpenen % (1. edizioan)	27,6	33,5	29,8	24,4	31,5
Berrargitalpenen %	7,9	7,6	6,3	5,8	7,5
Orrialde kopurua	61.042	52.288	58.601	51.048	62.660
Orrialde kopurua liburuko	185,0	179,7	174,4	154,7	180,6

Giza eta gizarte zientzietako liburua dator ohikoa zaion hirugarren lekuan: helduen literaturaren aurretik eta haur eta gazteentzako bi liburu moten ondoren.

2020ko antzeko kopuruetan dabil aurtengoan ere, aletxo batzuk irabazi dituen arren: alor honetako sail guztietarako

347 titulu argitaratu dira, eta ekoizpen orokorraren baitan dagokion ehunekoak bi puntu eta erdi egin du gora: %12,9tik %15,5era.

Analogikoaren zein digitalaren arteko proportzioa analogikoaren alde mugitu da aurtten: zehazki, liburu analogikoak %86,2 hartu du (299 titulu), eta digitalak %13,8 (48). Alegia, 2020tik analogikoak hamar puntu egin du gora, 2019tik jaitzitako hamar puntuak berreskuratuz, alegia.

Itzulpenaren pisua herenera hurbildu da berriro, azken bi urteetako jaitsierari amaiera emanaz. Baina, hala eta guztiz ere, berrargitalpen kopurua oso ahula da oraindik (%7,5). Urtero ia titulu guztiak berriak dira: liburu mota honek ez du lortzen errorik sakontzerik gure liburugintzan. Eta tamalgarria da, multzo honek biltzen dituen gai guztiak zein eta zenbat diren aintzat hartzen badugu: filosofiatik hasi eta geografia edo historiaino, soziologia, etnologia, politika, ekonomia edo hizkuntzalaritzatik barrena.

Kultura osasuntsu batek beharko lukeen maila eta kopururitik oso behera dabil urterik urte. Gure porrotaren sintomaz hitz egin genezake: euskal liburuaren gure kontsumoa guztiz diglosikoa da, desorekatua, sakontasun gutxikoa, alor batzuetara mugatua.

Barne sailkapena

Filosofia. Psikologia.....	3,2
Soziologia. Estatistika. Politika. Ekonomia.....	26,5
Zuzenbidea. Administrazioa.....	12,1
Etnologia. Etnografia.....	4,6
Artea. Hirigintza.....	25,6
Filologia. Hizkuntzalaritza.....	12,1
Geografia. Historia.....	15,9
	%100,0

Zerrenda horrek argi uzten du giza eta gizarte zientzietako liburuak bere baitan biltzen duen gaitegi zabala. Eta, hori guztia elikatzeko, 347 titulu besterik ez. Ez dago askoz gehiago esan beharrik.

Helduen literatura: 335 titulu

	2017	2018	2019	2020	2021
<i>Helduen literatura</i>	285	316	311	296	335
Ekoizpenaren %	12,2	14,4	13,5	11,5	14,9
Urtetik urtera %Δ	3,3	10,9	-1,6	-4,8	13,2
Itzulpenen % (1. edizioan)	22,3	26,4	30,9	19,4	22,6
Berrargitalpenen %	24,6	24,4	21,9	28,7	31,3
Orrialde kopurua	43.793	51.685	39.219	46.206	54.596
Orrialde kopurua liburuko	153,7	163,6	126,1	156,1	163,0

Helduen literaturak, bere mailan, igoera esanguratsua izan du: bai kopuru absolutuan (39 titulu gehiago), bai ekoizpen osoarekiko ehunekoan (hiru puntu eta erdi gehiago). Horrenbestez, azken bi urteetako jaitsiera leunari buelta eman dio, 2018ko datuetara itzuliz.

Multzo honetan, 280 titulu argitaratu dira analogikoan (%83,6), 2020an baino 31 gehiago; digitalean, aldiz, 55 soilik kaleratu dira (%16,4). 2020ko proportzioak errepikatu dira, gutxi-asko.

Nobedadeen artean itzultakoak diren literatur liburuak %22,6ra igo dira (50 titulu): iaz baino gehixeago, baina kopurua herenera hurbildu izan den urteetatik behera oraindik ere.

Berrargitalpenek ere gora egin dute nabarmen, aspaldi ezagutu gabeko kopuruetara, iazko igoera bera ere gaindituz: %31,3 (105 titulu). Berrargitalpenak gehitzea beti iruditzen izan zaigu ekoizpen eta kontsumo osasuntsuagoaren adierazle. Ikus dezagun, bada, etorkizunean goranzko joera horri eusten zaion.

Generoka

Eleberria. Ipuina.....	57,0
Olerkia.....	15,8
Antzerkia.....	2,7
Herri-literatura. Bertsoa.....	1,5
Miszelanea. Kronika. Saioa.....	20,6
Literatur teoria eta kritika.....	2,4
	%100,0

Narratibaren urteroko nagusitasuna berresten dute datuek, ez dago horretan berrikuntzarik. Gainerakoan, 2020ko portzioen oso antzekoak dira.

Gainerakoak

Zientzia eta teknika: 109 titulu

	2017	2018	2019	2020	2021
Zientzia/Teknika	134	63	85	69	109
Ekoizpenaren %	5,7	2,9	3,7	2,7	4,9
Urtetik urtera %Δ	24,1	-53,0	34,9	-18,8	58,0
Itzulpenen % (1. edizioan)	19,8	15,0	18,3	10,3	13,3
Berrargitalpenen %	6,0	4,8	3,5	1,4	3,7
Orrialde kopurua	11.190	7.551	9.574	6.983	10.445
Orrialde kopurua liburuko	83,5	119,9	112,6	101,2	95,8

Zientzia eta teknika alorreko liburuak, hiru urte negargarri izan ondoren, berriro burua altxatzea lortu du: 109 titulura iritsi da, eta ekoizpen osoarekiko ehunekoa %4,9ra igo da. Baina, arren, aitor dezagun egia: igo baldin bada, beste erre-mediatorik ez zuelako izan da. Harrokeriarik eta ospakizunik ez, beraz: urrunago joan gabe, ikus, konparazione, 2017ko datuak.

Atal honetako liburuen edukiak diziplinarrak eta espezi-fikoak izanagatik, konbentzituta gaude liburu mota honek kultura osoago batean pisu duinagoa izan beharko lukeela.

Zientzia zehatzak. Natur zientziak.....	35,8
Medikuntza.....	37,6
Ingeniaritza. Teknologia.....	11,0
Zientzia eta teknika aplikatuak. Industria.....	15,6
	%100,0

Aisia liburuak: 126 titulu


Musika.....	13,5
Argazkia.....	9,5
Jolasa. Jokoa. Kirola.....	11,9
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	13,5
Kiosko literatura.....	51,6
	%100,0

Aisiako liburuak ere gorakada izan du, iazko 98 titulutik 126ra. Ekoizpen orokorrean pisu txikia duen arren (%5,6), garrantzi handia du gizarte modernoan. Baina gurean ez, tamalez: beste liburu mota batzuekin gertatzen den bezala, aisialdiko liburuaren kontsumoak edo kontsumorik ezak gure diglosiaren sakona salatzen dute, alor honetan ere erdaraz elikatzen baikara. 🍷



2021eko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	864	38,5
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia.		
Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza.		
Museoak	36	1,6
— Haur eta gazteentzako argitalpenak	828	36,9
1. FILOSOFIA	11	0,5
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia.		
Logika. Etika	11	0,5
2. ERLIJIOA. TEOLOGIA	12	0,5
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala.		
Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauez besteko erlijioak	12	0,5
3. GIZARTE ZIENTZIAK	683	30,5
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia.		
Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	152	6,8
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	531	23,7
5. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA ZIENTZIA NATURALAK	32	1,4
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia.		
Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	32	1,4
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	65	2,9
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza.		
Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide.		
Eraikuntza. Sukaldaritza	65	2,9
7. ARTEA. JOLASAK. KIROLAK	148	6,6
— Artea. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa.		
Margogintza. Argazkigintza. Musika	118	5,3
— Jostaldiak. Ikuskizunak. Jolas eta jokoak. Kirolak	30	1,3
8. FILOLOGIA. LITERATURA	373	16,6
— Hizkuntzalaritza. Filologia	38	1,7
— Literatura. Literatur generoak	335	14,9
9. BIOGRAFIA. HISTORIA. GEOGRAFIA	55	2,5
— Biografia	18	0,8
— Historia. Geografia	37	1,7
GUZTIRA	2.243	100,0



 **euskadi
irratia**
gertu

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- ☐ Euskal Herria **60 €**
- ☐ Europa **75 €**
- ☐ Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- ☐ Paperean bakarrik
- ☐ Digitalean bakarrik
- ☐ Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- ☐ Euskal Herria **14 €**
- ☐ Europa **17,50 €**
- ☐ Mundua **20 €**

DIGITALA

- ☐ **14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- ☐ Jakinkide bazara **Doan**
- ☐ Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara
- Jakinkide ez bazara

- ☐ **10 €**
- ☐ **12 €**

DIGITALA

- ☐ **4 €**
- ☐ **7 €**



Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia

Kontuaren jabea



Jakin *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus





Jakin ^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

